



Escola Antzerkia



ESKOLA ANTZERKIA 5



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SALILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1996

Argitaraldia: 1.a, 1996ko ekaina

Ale kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Prestatzaileak: Iñaki Artola, Joxe Mari Berasategi

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellingtongo dukea, 2 – 01010 Gasteiz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 – 01009 Gasteiz

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Cervantesen etorbidea, 51 – 48970 Basauri

I.S.B.N.: 84-457-1077-X

Lege Gordailua: BI-1359/96

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
ANTZERKI MUSAK SALBA NAZALA	
Lukas Dorronsoro	9
ANTZEZLANAK	
Lekurik bai...?	
Komedia. Yolanda Arrieta	15
Maritxu, nora zoaz?	
Komedia. Zumaiako Maria eta Jose ikastetxeko ikasleak, Josu Urrestillaren ardurapean	65
Musu baten bila	
Tragikomedia. Joxe Martin Urrutia. Durangoko Kurutziaga ikastola	87
Nontzeberri enparantza	
Komedia. Zuriñe Zorrozueta. Sopelako Zipiriñe herri ikastetxea	117
Nueva Zaragoza-ko herritarrak	
Drama. Joxe Martin Urrutia. Durangoko Kurutziaga ikastola	127

Rutinaren itzala	
Drama. Edurne Alberdi. Azpeitiko batxilergo institutua	159
Sor-gin hauek!	
Komedia. Bittor Arrondo. Donostiako Axular lizeoa	177
Tangala Danba	
Komedia. Arantxa Goiburu. Idiazabalgo Aita Iparragirre herri ikastetxea	187
Urkuletako bainuetxea	
Komedia. Joxe Martin Urrutia. Durangoko Kurutziaga ikastola	207
Zentimetroak 93	
Komedia. Ordiziako Jakintza ikastolako ikasleak, Koro Irastorzaren ardurapean	251

HITZAURREA

Hamaika urte egin ditu, 1995-96 ikasturtearekin, Eskola Antzerkigintza laguntzeko Hezkuntza Sailak egiten duen deialdiak. Deialdi horretan parte hartu duten ikastetxeen, eta batez ere ikastetxe horietan antzezlanak tajutzen eta lantzen hainbeste ahalegindu diren irakasle eta ikasleen frutu da liburu hau. *Eskola Antzerkia 5* du izenburua, 1988an argitaratu zen lehen *Eskola Antzerkia* haren, 1992ko *Eskola Antzerkia 2 eta 3* eta 1995eko *Eskola Antzerkia 4* liburuen segida baita. 10 antzezlan bildu dira liburu honetan, neurri, molde eta tankera desberdinetakoak. Adin eta maila desberdinetan egin, landu eta antzeztuak. Bakoitzaren hasierako aurkezpen orrian azaltzen dira zehaztasunak, gaiaren laburpenarekin batera.

Ikastetxeetako taldeei, laguntza eskuratzekotan, hauxe eskatzen zaie: eskabidearekin batera antzezlanaren testua Hezkuntza Sailera bidaltzea (beraiek asmatua denean Aste Santua arte luza daiteke epe hori); euskara landuz antzezlana prestatzea eta gutxienez hiru emanaldi egitea, lehena norbere ikastetxean eta beste biak inguruko beste bi ikastetxetan. Ikasturte amaierarako, antzerki lanketa nola egin den azaltzeko galdekizuna eta emanaldi bakoitzeko ebaluaketa fitxa bat bete eta bidali behar izaten da Hezkuntza Sailera. Deialdi honen inguruan ikastetxe eta talde asko dabil. Zehatz esanda, 1995-96 ikasturtean 159 ikastetxe eta 369 talde. Deialdiaren helburuez edo jardupidez gehiago jakin nahi duenak jo beza urtero EHAAn argitaratzen den Agindura, eskola-antzerki liburuen sail honetako beste lauetara edota *Euskararen Irakaskuntza: 10 urte* argitalpena.

Eskoletatik jasotako antzezlanak ez dira Hezkuntza Sailean gordeta geratzen. Eskoletan horien premia badagoela aipatzen dute irakasleek, behin eta berriz. Premia horri erantzun nahirik egiten da jasotakoen artean aukeraketa eta, ondoren, argitalpena. Argitaratzeko aukeratu ez diren antzezlanak ere, alfabeto ordenan eta aurretik laburpen fitxa dutela, 15 karpeta osatutako 3 bildumatan daude jasoak. Lehen karpeta aurkibide orokorra da eta bilduma handitu ahala berritzen da. Bilduma hauek ere ikastetxeen eskura daude eskualdeetako PATetan.

Antzezlanok 1991-92 eta 1994-95 ikasturteen bitartean jasotakoen artetik hautatuak dira eta alfabeto ordenan agertzen dira, ez beste inolako lehentasuni begira. Arreta handiegirik jarri gabe ere erraz ikus daiteke alfabeto hori L letran hasten dela. Aipatu epealdikoen arteko hautalanaren bigarren emaitza baita, *Eskola Antzerkia 4* liburuan bildutakoen ondorengoez osatua, hain zuzen ere.

Liburu honetako antzezlanak lagungarri gertatuko zaizkio, ziurrenera, ikasleekin batera edo bere kasa berriak sortzeko beta edo aukerarik ez duen irakasleari. Beta, modua eta gogoia duenarentzat, ordea, pizgarri izan nahi lukete. Polita ateraz gero, hurrengo liburuetan argitaratua izateko aukera izan dezake. Hartara, beste eskoletara zabalduko da eta –Hara antzerkigile ooren amets utopiko gauzatua!– seguruenera behin eta berriz antzeztua izango da. Beti dago, gainera, kontsolazio saria: argitaratzen ez bada ere, Bilduman jaso eta beste eskolen eskura jarriko da PATetan.

Eskerrik asko antzezlanen egile, itzultzaile, moldatzaile... guztiei, argitalpen hau gauzatzeko eman dizkiguten erraztasunengatik. Esker mila, halaber, Lukas Dorronsoro eta Lurdes Intxaustiri, antzezlanak hautatzen eta prestatzen egindako lanagatik. Hitzaurre honen ondoren datorren *Antzerki musak salba nazala* sarrera idazteagatik ere eskerrak Lukas Dorronsorori. Beste hainbeste, azkenik, prestakuntzan lagundu diguten lankide guztiei, bereziki Pili Sanchez, Itziar Lizarralde eta Blanca Castañori.

EUSKARA ZERBITZUA

**ANTZERKI MUSAK
SALBA NAZALA**

Lukas Dorrnsoro

Gertatu izan naiz behin edo beste, biderik jakin gabe mendira abiatu eta, sasiarte batekin topo eginda: aurea sasi, ezkerra sasi, eskuina sasi eta, atzera eginez gero, jakin ez nondik hasi. Azkenean, aurrera! Larrak lar, oteak ote, arantzak arantza, urratuen odola nekearen izerdiz gorriagotzen dela, gailurrak zaskarditik atera nauen arte.

Halaxe nabil une honetan, burutazio xelege bat dela medio, olerki liburuen erruz; olerkietako hitzaurreen erruz. Irakurri ditudan olerki liburu guztietan –eta badira erruz– hitzaurrea beti hizlauruz, askotan arrunterian luzaturuz.

Ez da itxura! Ez da egoki!

Gipuzkeraz itsusi, bizkaieraz motza! –nire barnearen hotsa–. Behar lukete lotsa.

Olerkaria olerkigai ez balitz bezala! Olerkiz behar lituzke hitzaurre nahiz azala! Eta orain, antzerki musak salba nazala!

Antzerki liburu hau aurriztu behar eta ez dakit nondik hasi ere. Aurreko burutazioak ez zaizkit ez argi ez lore; antzerkiari antzerkia baitzaio bere.

Eskatuari egin niezaioke muzin. Baina euskaldunak, hitzemanik, jan ezin! Jatorriz diogu egina jokabide honi zin.

Lanbide honetarako jende trebea hautatu ohi dute. Baditut antzerkiari emanak auskalo zenbat urte. Horretxegatik, soilik, bereizi bide naute. Urteak, ordea, besterik gabe, ez dira inongo bertute.

Ipuina... antzerkigai! Hala entzun izan diat, bai! Sasiartean nabilen honek, nolabait, gailurra lortu nahi.

Konta dezadan, beraz, ipuina: **antzerkiaren muina**. Nahiz eta norbaitek har lezakeen mina.

Bazen behin, behin hurbilean, udaberrian, aurtengo udaberrian, udaberriko larunbatean, aurtengo udaberriko maiatzaren azken larunbatean, itsasertzeko herririk politenean, eguerdi-erdian, Udaletxeko areto nagusian, herri polit bezain kulturzale hartan urtero ospatu ohi duten lehiaketan saridun eta aipagarri etsi dituzten ipuinez osaturiko ipuin liburuaren aurkezpena, azken hitzetan.

Mahaiburu, kultur zinegotzia. Ezker, herriko alkatea. Eskuin, saioan zehar hitzun nagusi bilakatu den idazle ospetsua, euskal literaturaren historian, agian, beste inork baino sari gehiago jaso dituenaren ospea sinesgaitz bihurtzen dion gazte-irri lotsatia dariola; antzerki idazle oparoa, beste inork baino antzerki sari gehiago jaso dituena, beste inork baino bere antzerki gehiago eszenaratuak ikusi dituena (euskal idazleetan, noski).

Jende artean maisu bizartzuri bat zaio arduragarrien idazleari, aurrean dauzkan saridunak baino ere gehiago. Honi so aritu da solasaldi guztian, honen oniritzia behar balu bezala. Maisu xumeari barregurea damaio, hasieran, jarrera atipiko horrek; gero, lotsaren lotsaz, begiak alboetara azpibegiratuka hasi zaizkio, ezin sinetsi baitu *Publikoari Gorroto* idatzi zuenak jendea, lagun zahar batengatik, hain itsuski saltzea. Entzuleak xuxumuxuka hasi dira: herriko antzerki taldeak –herri honek bai baitu bere antzerki taldea ere– idazlearen antzerkiren bat edo beste taularatu omen duela maisuaren zuzendaritzapean eta... Gaitzerdi!

Aurkezpena azken hitzetan dela esan dut. Mahai nagusiaren eskuinean beste mahai luze bat ezarri dute, hari erdiz erdi perpendikular zaiola: platertxoak ugari mahai gainean, txorizoz, urdaiazpikoz, gaztaz... beteak. Tarteka botila ardoak eta botila uren bat, astemiook berriki lortu dugun ohiturari jarraiki.

Bukatu da aurkezpena. Txalo bakar bat ere ez. Gertatuak merezi halako txalo zaparrada ateratzeko jendetza laburregia ginela etsi genuen: dozena eta erdi ozta-ozta.

Jendea mahai luzerantz doa, txertalde gosetua azpilera bezain zalapartatsu.

Idazleak maisuarenganantz jo du erabakikor; honek idazlearengana. Bosteko estua, bizkarreko pare bana eta, idazleak:

– Zuen eskolumeak Antzerki Astearen parte hartzekoak omen dituk. Lan bikaina ari haiz egiten.

– Hala delakoan ari gaituk behintzat. Ez zekiat! Nola jakin duk?

– Antzerki Astearen egitarauan irakurri diat.

– Asko gaituk antzerkiak hezkuntzan duen garrantziaz jabetu garenak.

– Gidoirik eza izango duzue arazorik larriena, noski.

– Moldatzen gaituk.

– Lehengo batean hiriburuko kultur arduradunarekin hitz egiteko parada izan nian.

– A, bai? Zer ziok?

– Oso arduratua aurkitu nian.

– Jakina. Horretarakoxe duk arduraduna, ez?

– Hi beti adarra jotzeko pronto! Ez, gauza serioa duk. Hiriburuko ikastetxeek, haurrekin antzerkia egin nahi eta euskarazko gidoirik ezin aurkitu omen ditek, gaztelerazkoak nahiala dituzten bitartean. Gidoi lehiaketa bat antolatzea erabaki dik.

Irrimurri bat ikusi dut lehenbizi maisuaren ezpain zimurretan; gero algara batean lehertu zaio. Idazlea, harri eta zur. Ez zuen inondik inora horrelako erantzunik espero:

– Zeri egiten diok barre?

– Barka nazak. Ez, ez duk batere barregarria. Bi atal zeuzkak esan duanak. Lehiaketarena benetan txalogarria duk. Gidoigintzan, musutruk, ari ohi den irakasleren bat saritzeko bederen balioko dik eta, ez duk gaizki. Baina bestea, gidoirik ezin aurkitu omen dugulakoa... Hik ba al dakik sei-zortzi urte hauen buruan, mila antzez-gidoi inguru idatzi dituztela Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxeetan (auskalo zenbat Nafarroan eta Iparraldean)?

– Horrenbeste?

– Horrenbeste, bai. Hire arduradun horrek amesgaiztoren bat izan dik, nonbait, eta sinestu. Gainera, lan hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, bere Euskara Zerbitzuaren bidez, babestu eta diruz laguntzen duenez, gidoi horiek denak hamalau karpeta handitan, eskualdeetako PAT guztietan banatu dizkik, behar duenak har ditzan. Hauetan asko, daudenez dauden taularatzeko egokiak dituk; beste askori ondo etorriko litzaiekek esku on baten ukitua. Baina denak dituk erabilgarriak eta erabiliak, bakoitza, guxtienez, hiru ikastetxetan antzeztua izan denez gero. Batzuk (hirurogei bat edo), onenak, lau liburutan argitaratuak ditik aipaturiko Euskara Zerbitzuak eta ikastetxe guztietara bidali zizkiguk. Agian ahaztu egingo zitzaiean hiriburuetako kultur sailetara bidaltzea. Beste hamar datorren udazkenerako argitaratzekoak ditik, beste liburu eder batean.

– Ez zegok gaizki.

– Ez, ez diat uste batere gaizki dagoenik. Eta oraindik ez diat dena esan. Aldi berean, berrehun eta gehiago irakaslek egin ditiztek antzerki ikastaroak;

eta, besteak beste, antzerki gidoia nola egiten den ikasi ditek. Esaiok hau ere, ikastaro gehienak hire kultur arduradun horren herrian izan dituk eta.

– Ez haut aspaldian horren haserre ikusi.

– Ez duk haserre. Amorrazioak egin zidak gainez.

– Ez duk horrenbesterainokoa, moteil!

– Hoa antzarrak perratzera! Ez ote zaik iraingarria iruditzen haurrentzako gidoirik ezak horren urduri jarri duen kultur arduradunak ikastetxeetan egiten denaren arrasto zipitzik ez jakitea?

– Bai, horretan arrazoi daukak. Esango zioat hurrena ikusten dudanean.

– Ez daukala gidoi lehiaketa antolatzen nekatu beharrik, esaiok. Hobe izango dik datorren ikasturtean ere ikastetxeek Eusko Jaurlaritzara igorriko dituztenetik kopia bana eskatzea; zer sariturik aurkituko dik eta. Aski dik hango Euskara Zerbitzukoekin harremanetan jartzea. Pozik emango zizkiotek!

– Ez duk ideia txarra.

– Orain goazemak jende artera, eztarria lehortu egin zidak eta.

Hustu samartu dute dagoeneko mahai, baina han-hemenka ageri da oraindik mortadela zatiren bat edo beste. On bekie!

Eta hau hala bazan... etabar.

Gustatu al zaizue ipuina?

Konta iezaiozue, ba, herriko kultur arduradunari, eskola-umeen barregarri eta irakasleen amorragarri gerta ez dadin. Amen!

LEKURIK BAI...?

Yolanda Arrieta
Komedia
Cebanc ikastetxea
Donostia
1993-94

GAIA

Errentako pisu batean bizi diren lau gazteren arteko tirabirak, batez ere etxeko leku faltari dagozkionak, eta beren arteko harremanen bilakaera.

PERTSONAIAK

Leo (28 urte)

Xabi (30 urte)

Koldo (28 urte)

Miriam (27 urte)

(Goiza. Egongela-sarrera-erdi-sukalde horietakoa eszenatokian. Lau aterekin. Ez dago inor. Kaleko ateko txirrina entzuten da, fuerte, lau edo bost aldiz. Atean, Xabi, arnasa goian, lasaitu nahirik. Leo agertzen da kamisoian eta ileak nahasturik)

Leo

Bai, banoa, banoa... 'Zein kristo ote da sasoi honetan...? Zer ordu da...? Non daude erlojuak...? *(Erdi lo, ez da akklaritzen, erlojua eskumuturrean dauka)* Liburu saltzaileren bat, seguru...! Aidean jaurtikiko dut ba... Kokoteraino naukate...! Larunbatetan debekatu egin beharko litzateke' *(Txirrina)* Baiiii! Baieeetz!! 'Goiz osoa bakarrik egongo naizelakoan...' *(Atean, mirilatik begira, ireki gabe)* Nor da?

(Beste aldetik Xabi oso herabe, oso ixil)

Xabi

Pisua alokatzeko..., hemen da...?

- Leo** ‘Ai, pisua! Ireki ezan neska! Nora begira hago...?’ A bai, bai... (*Atea irekitzen du*). Sartu, sartu. (*Bere itxura mehoratuz*) Ohean nengoen... oraintxe jaiki naiz.... arratsaldetan lan egiten dut...
- Xabi** Nik ere bai, baina gaur larunbata da eta bihar igandea eta nik...
- Leo** Lasai, lasai, aurrera...! Kontuz trasteekin, gaur edo bihar etorriko dira bila eta... jazarri nahi, ahal duzun lekuan, bitartean sukaldean... Zeozer nahi duzu...? Kafesne bat...? Gosaldu duzu...?
- Xabi** Ez, ...eskerrikasko... Gosaldu... naiz..., dut... Gosaldu dut.
- Leo** (*Logelarantz bata bat janztera*) ‘Ez mesedez, beste bat...!’
- Xabi** Barkatu, oso goiz, goiza libre dut eta aprobetxatu nahi...
- Leo** (*Logelatik*) Trankil...! Trankil... Ni ere normalean zortzi t’erdietan jaikitzen naiz... Azterketak zuzenduko ditut horrela...
- Xabi** (*Pisuari begirada bat botaz*) Zenbat gela..., zenbat gela... dago...?
- Leo** (*Logelatik bueltan, oso arin hitz eginez*) Zenbat gela dau-den...? Hiru. Begira: hau nirea da, hemen dagoena... Kontuz, katuarekin, ‘Tximist’ da, nire lagunik onena. (*Katuari*) Ala, Tximist, alde hemendik. (*Xabiri*) Umeak eginda dago ba eta... Beno hemen, ohe batekoa, txikia da baina... oso akojedorea... eta gero bestea, ohe bikoa..., hau ere handia ez, baina argitsua... Denetatik argitsuena...! Zeu bakarrik zatoz...?
- Xabi** Zer...?
- Leo** Ea bakarrik zatozen...

- Xabi** Nora...?
- Leo** Hona! Pisura!! Eta gainerik despistaua. Besterik ez dugu behar...!' (*Geldiroago hitz eginez*) Bakarrik etorriko zara, ala beste lagun bat ekarriko duzu...?
- Xabi** Ez, ni bakarrik nago. Ni, tabernan lan egiten dut..., eta euskaraz ikasten nahi dut... eta euskaraz ikasten nahi dut.
- Leo** Bai..., bai. Euskara ikasten ari zara... 'Ez, esaion ezetz eta kitto! Ezin dunala.'
- Xabi** Nik, hirugarren lehen urtean...
- Leo** Iaz...
- Xabi** Bai, hori, iaz... Gaur, orain, laugarrena... Bai.
- Leo** Laugarrena e...? Laugarrena! Hemendik aurrera ia dena euskeraz... 'Zer tonta, zer komentario ganorabakoa. Hemen ere andereñoa...'
- Xabi** Bai, hori, horixe nahi dut... Nor zara zu.... Nola deitzen...?
- Leo** Ni...? Leo. Leo Azpiazu.
- Xabi** Ni, Xabi. Xabier Iraola. Nik, euskaldunak... bizi nahi dut...
- Leo** Euskaldunekin bizi nahi duzula...?
- Xabi** Bai... Ni praktikatu nahi dut...
- Leo** Ni k. Ni kk.'Berriz, tonta, tonta, esan dezala txarto, zuri zer ardura dizu...?'
- Xabi** A, bai, bai. 'dut' da eta... Ni hemen gera... Ni k hemen gera nahi dut...

Leo 'No da pie con bolo'... Baa... Beno, nik, kontuan izango zaitut. Beste batzuk ere badaude... atzo deitu zutenak...

Xabi Atzo deitu... zuen...? Zuten?

Leo 'Gorra gainera...' Bai, atzo gauean, eta noski..., beraiei utzi behar diet lehenengo...

Xabi Berandu nabil...

Leo 'Inoiz ez dut gustuko jenderik aurkituko. Aj!' Baina beno, kontuan izango zaitut.

Xabi Telefonoz deituko ...?

Leo 'Aurretik ere egin zenazekeen hori! Goizeko zortziretan etorri behar da, auzoko atea jotzera... Ta orain, aditzak jan.' E...? Bai... klaro, klaro..., bai, deitu...

Xabi Bihar?

Leo 'Ete! Bihar ez. Utzi egun bat gutxienez... Besteren bat egon behar du. Derrigor...' Ez... ez..., hobe itxaron etzi arte edo...

Xabi Etzi...?

Leo Bai, bihar pasatuta, astelehena.

Xabi A, bale...! Bale! Bale! Etzi deitzen dut orduan...

Leo 'Ezin dut, ezin dut... Eta horrela beti...?' Deitu ko, deitu ko...

Xabi A bai! Futuroa da, noski...

Leo (Aterantz) 'Ale, ale, ospa, ospa...' Beno ba..., etzi arte orduan...

Xabi ...A! Zenbat... zenbat ordaindu...?

Leo A, bai. Ohe bakarrekoa, hogeita hamar. Bikoa, hogei.

Xabi Hogeita hamar... Puf!... Nola daude prezioak e...! Beno, bihar pasatu... nola esan duzu...?

Leo Etzi...?

Xabi Hori, hori, 'etzi arte.'

Leo Bai, etzi arte.

(Atea isten du. Atearen beste aldean)

Xabi 'Treinta mil pelas! ¡La puta!! Solo me quedarían otras treinta para gastos. No puedo. Pero aquí, con el garbo que tiene ésta, me ahorro el euskaltegi. Me la ligo, y ya está. En un año me saco el EGA..., y luego a vivir...!! Ya está! ¡Nada de 'etzi!' Hoy mismo la llamo de nuevo... Me daré una vuelta al mediodía... ¿Y si ya está liada...?

(Beste neska bat heltzen da. Miriam. Hau ere atea jotzera. Arnasa goian, jertsea erremangatuta, mendira igo balu bezala)

Miriam Epa!

Xabi Epa...!

(Xabierrek alde egiten du. Miriam, heldu berria, berari begira geratzen da)

Miriam 'Zer begi goxoak dituen. Berton bizi ote da...?' *(Txirrina jotzen du)*

(Leo beste aldean dago, dutxan; ez da ikusten, entzun egiten zaio bakarrik)

- Leo** Baiiii!! Oraintxe! Oraintxe noa...!!! ‘Mekauen! Ez naute bakean utziko... Nor ote da orain...? *Testigo de Jehovah*ren bat, seguru...! Behin edukiko pisu osoa neuretzat bakarrik eta...’ (*Jadanik eszenatokian, bata batekin, ilea bustita*) Banator... Banator... (*Barrutik, mirilatik begira*) Nor da...?
- Miriam** Periodikoan ikusi dut, gelak libre...
- Leo** A, bai. ‘Zertarako asmatu ote ziren telefonoak...?’ (*Atea irekitzen du*). Sartu, sartu. Dutxan nengoen. Zer goiz e...?
- Miriam** Bai, lanera joan behar dut eta...
- Leo** Oraintxe etorri da beste bat...
- Miriam** Bai, ikusi dut...
- Leo** Kontuz trasteekin, gaur edo bihar etorriko dira bila... Alde hemendik, Tximist! Hau nire katua da; umeak izan ditu eta oso arraro dabil... E... gosaldu duzu...?
- Miriam** Ez dut gosaltzen.
- Leo** ‘Nondik irten ote du honek...?’ Beno, ba hemen daude gelak: hau, nirea da, eta gero beste bi hauek geratzen dira, ohe bakarreko txiki hau, oso akojedorea... eta gero bikoia, hau ere ez da oso handia, baina argitsuena, berau da hiruretatik argitsuena...!
- Miriam** Zer txikiak, ez da...?
- Leo** ‘Zer pentsatzen ote du honek...? Maria Cristina-n dagoela ala?’ Bai, esan dizut ba... txiki samarrak direla, baina beno, ez dakit, zure trasteak eta jartzerakoan, dena aldatzen da eta ez dira hain txiki ikusten. Niri gustatzen zaizkit behintzat...! Agian urte bi daramatzadalako...

- Miriam** Ez, itsusiak ez dira. Eta argitsuak ere badira. Baina ez dakit. Niri eskultura eta pintura gustatzen zaizkit... nire denbora libre betetzeko eta noski, hemen ez nuke lan egingo, baina zeozer gordetzeko orduan ba...
- Leo** A! Klaro! 'No me jodas...! Eta honek kuadroak eta *tenperitak*... Ama! Ez dago inor normalik ala...?' Beno, ba, hemen ez dago besterik... Hemen, komuna, sukaldea eta balkoia... Telefonoa ere badauka...
- Miriam** Eta igongailurik ez...
- Leo** Ez... Igarriko zenuen, ez da...? Forman mantentzeko ez dago gaizki...
- Miriam** Forman bai, baina tresnak igotzeko... Beno, pentsatuko dut. Telefonoa, periodikoan zetorrena, ez da...?
- Leo** (*Barrez*) Trasteak, gauez jasotzen badituzu ba, trinbrea jo eta etxean dagoenak lagundu behar...
- Miriam** (*Barrez*) Eta etxean inor ez dagoenean...?
- Leo** Ba... porteroari esan behar... Mutilzaharra da...
- Miriam** (*Barrez*) Beno, pentsatuko dut..., deituko dizut.
- Leo** Noiz...?
- Miriam** Ba, ez dakit..., beste bi pisu ikusi behar ditut eta etzi edo...
- Leo** A, beno... 'Tonta zara ala, etzi hilaren lehena da. Ezin diezu denei ezetzik esan... *kuadroak eta tenperitak*' Bihar ezin duzu...? Bihar etxean egongo naiz egun osoan norbaitek deitzen badu...

Miriam Agian... Saiatuko naiz... Baina, esan dizut. Lekua behar dut eta hemen...

Leo Bai, bai, noski.

Miriam (*Orduari erreparatuz*) Ene! Bederatziak! Beno, banoa...

Leo Bale! ...A! Prezioa...

Miriam Egia...

Leo Ohe baharra, hogeita hamar. Bikoa, hogeia.

Miriam Hogeita hamar...??? Jode...! Zer garestia, ez da...?

Leo ‘Zer teatrerara! Zer pentsatzen ote du honek...? Besteak nolakoak direla ba...? Eta nik zer kulpa daukat gainera...? Neurea balitz ere...!’ Bai... nik hori ordaintzen dut...

Miriam Jo! Bilbon..., askoz merkeagoak dira...

Leo Bilbotarra zara? Neu ere bizkaitarra naiz. Nongoa zara ba?

Miriam Bilbo bertakoa. Bertan jaio nintzen. Euskaldun berria naiz.

Leo ‘Euskalgegititis kronikoa etorriko zait oraindio...!’ Zer esaten ari nintzen...? A! Ba Bilbon hala izango da, baina hemen, ez duzu berrogeitamarretik beherako pisurik aurkituko... Eta gainera handia, argitsua eta lasaia nahi baldin baduzu..., beno! Nik zazpi urte daramatzat hemen bizi izaten eta denetatik frogatu dut... kalefazio gabeak, dutxa bakoak, gela bakoitzean hiru lagun sartu beharrekoak, auzo drogazaledunak, egunero lau aldiz autobusa hartu beharrekoak, txakurrarekin lo egin beharrekoak, labadora gabekoak; behin, jabeak urte osoa geurekin pasatu behar izan zuen etxerik ez zuelako, ur berorik gabekoak... Beste behin, egun oso bat bota behar izan genuen

irten gabe, ateko sarraila hondatu zelako... Kriston mobida!
Bonberoak eta etorri ziren... Esaten dizut. Agian, aurkituko
duzu..., ez diot ezetzik..., baina suerte handia, erraldoia
beharko duzu. Gainera hilaren azkena...

Miriam Beno..., ahalegindu behintzat egin behar dut... (*Orduari begiratzuz*) Zer berandu!! Orduan bihar deituko dizut...

Leo Bai, nik nahiago dut... 'Aj! Horrela ibili beharra ere...! Jabea neu banitz ere...! Ez dut inoiz gustuko jenderik aurkituko...!' Agur ba. (*Atea irekiz*)

Miriam Agur. (*Atearen beste aldean*) 'Bestera deitu behar dut... Gaur zer da...? Larunbata! Fenomeno! Gaur bakarrik! Okindegitik deituko dut..., ea Martak zer dioen...'

(*Mutil bat dator. Arnasa goian honek ere. Ondo jantzita. Koldo da*)

Koldo (*Arnasa hartuz*) Hau da alokatzeko pisua...? Zu zara...?

Miriam Ez, ez. Ni ere ikustera etorri naiz.

Koldo Puf! Seigarren pisua, ez da...?

Miriam (*Barrez*) Bai...

Koldo Zein da pisua...? Hau...?

Miriam Hauxe! Hauxe berberau!

Koldo A! Beno!... Milesker.

Miriam Ez horregatik. (*Joanez*)

Koldo E... Hemen geratuko zara...?

- Miriam** E..., ez dakit. Oraindik ez dakit...
- Koldo** A beno..., beste bat arte orduan...
- Miriam** Bai, agur.
- Koldo** *(Berari begira)* ‘Zer hippia. Artista itxura dauka... Ea hemen zer ateratzen zaidan...’ *(Txirrina jotzen du)*
- (Beste aldean, Leo. Jantzita, ilea sekadoreaz sikatzen. Irratia ipini du. Ez du entzuten. Txirrinak bost edo sei aldiz jotzen du. Atearen beste aldean Koldo, gero eta urduriago)*
- Koldo** ‘Mekauen! Entzun ba! *(Berriz jotzen du)* Begira, joan pik...’
- (Beste aldean Leo, zerbait entzun duelakoan, atera hurbiltzen da)*
- Leo** *(Mirilatik begiratzuz)* ‘Ui! Qué guapo...!’ Bai...?
- Koldo** *(Ernegatuta, ez diolako oraindik aterik irekitzen)* ‘Ez zaituzte biolatuko...’ Hau da alokatzeko duzuen gela...?
- Leo** *(Atea irekiz eta barrez)* Ez, hau da gelak alokatzeko dituen pisua.
- Koldo** ‘Zer graziosa...!’ A, bai, bai... Batzuetan, egun batzuk egoten dira... dena aldrebes...
- Leo** ‘Uau!! Hau, barrura!!’ Kontuz, kontuz trasteekin, gaur edo bihar etorriko dira bila... Alde ba, Tximist! Nire katua da; umeak izan ditu eta badakizu, berehala *moskeatzen* da. Nahi duzu zeozer...? Kafesne bat...?
- Koldo** Ez, milesker. Ez dut kaferik hartzen.
- Leo** Zumoa..., tea..., manzanila..., poleo...

- Koldo** Ez, ez. Goizetan ura hartzen dut bakarrik.
- Leo** Ura...? (*Sukalderantz*)
- Koldo** Bai, ur minerala...
- Leo** (*Buelta eman behar*) A! Ez, ez daukat ba ur mineralik...
- Koldo** Berdin dio. Zeintzuk... dira gelak...?
- Leo** A bai! Begira, hau nirea da. Eta hau duzu ohe baharrekoa, oso txikia, baina zeure gauzak eta jartzen dituzunean, ikusiko duzu, oso akojedore geratzen da... eta beste hau, bikoa, hau ere txikiena, baina oso argitsua, argitsuena, hiruretatik argitsuena ... Bakarrik zatoz...?
- Koldo** Bai, bai...
- Leo** Ba, ohe bakarrekoa hau da. Txikitxo, baina epelena da eta ez da kanpoko zaratarik entzuten... 'Pisu saltzaile bihurtu behar nuke...'
- Koldo** Zenbat...?
- Leo** Hogeita hamar. Ohe bikoa hogeia. Baina bakarrik bazatoz...
- Koldo** Noizko bete nahi duzu?
- Leo** Ba..., beno... Etzi da urriaren hasiera eta hilaren hasieran ordaindu behar diot... Beraz, albait arinen jakingo banu...
- Koldo** Bale! Nik ohe bikoa.
- Leo** Dena? Gela osoa...?
- Koldo** Ez! Ez, ez. Ohe bat bakarrik.
- Leo** Eta ez zaizu axola norekin...

Koldo Berdin zait. Total, ez naiz gauerarte etxean egongo...

Leo Bueno bueno... Nahi duzun moduan...

Koldo Telefonoa...?

Leo Bai, bai... Hor, apalean...

(Koldo telefonoz deitzera joaten da. Leok ez daki zer egin eta gela eskobatzan hasten da, garbo handiz. Koldo ez tulka hasten da eta erroa astintzen, hautsa trajean geratzen hasi zaio eta, baina bestea ez da enteratzen)

Leo *(Eskobatzan eta inguruan garbitzen ari dela)* 'Ekina okerra da! Esaten zuen amak...! Zer majoa...! Eta gainera, heuri gustatzen zainan modukoa. Zuzena. Pentsatu eta esan. Erabakiak erraz hartzekoa. Eta guapoa, gainera. Zer ote da? Zer lan ote dauka...? Abogadu hasi berria ematen din. Uauau...!'

Koldo *(Telefonotik)* 'Vale, muy bien, estupendo, a la una. Hasta luego.' *(Telefonoa esekitzen du. Leori)* Beno, ba, ni gaur etorriko naiz ia. Gaur bertan, ahal bada behintzat.

Leo Gaur...?

Koldo Ahal bada... etxez mudatu naiz... Beno, lana aldatu dut, eta klaro, etzi hasiko naiz ofizial, baina gaur eta bihar ere batzarrak e.a. dauzkat eta etxea izanez gero, ba bidaia aurreratuko nuke. Orain, ezin bada, esan eta kitto. Badakit, hilaren hasiera etzi dela eta...

Leo Eske... 'Baina nora begira hago, neska...? Ez hadi tonta izan. Majoagorik ez dun inon aurkituko... Gainera, ez haiz etxean bakarrik egongo...' Beno, nik..., giltzarik ez daukat emateko... Jakin izan banu, kopia batzuk... Bihar etorriko dira lehen egon direnak traste bila... haien giltzak ematekotan egon naiz...

- Koldo** Ni hamaikak aurretik ez naiz iritsiko...
- Leo** Hamaikak... Bai, bai, ni etxean egongo naiz... ‘Zeren beldur baina, neska, ez hau biolatuko... Datorrela eta laguna edukiko dun afaltzeko...’ Nik gaur bilera daukat... larunbata da baina... baina bai, hamaiketarako egongo naizela uste dut...
- Koldo** Bestela..., ba utzi giltza buzoian, eta gero txirrina jo...
- Leo** Ez, ez, ez. ‘Zuzena, zer nahi duen dakiena. Aiii!’ Ez da premiarik izango baina. Etorriko naiz.
- Koldo** Beno ba, orduan, hamaiketan etorriko naiz.
- Leo** Bai, hamaiketan. Badakizu, seigarrena B. Trasterik edo badaukazu, jo beheko txirrina eta lagunduko dizut...
- Koldo** Ez, ez daukat gauza askorik. Hiru edo lau liburu, baina bakarrik ere ekarri ahal izango ditudala uste dut.
- Leo** Bale, beno ba... A! Non, zertan egiten duzu lan ba...?
- Koldo** Biajantea naiz... Liburu saltzailea.
- Leo** A! Bai interesantea... ‘Hipokrita!!’
- Koldo** Beno, gero arte orduan...?
- Leo** Bai, gero arte... A! Leo naiz. Leo Azpiazu...
- Koldo** Koldo. Koldo Urbitarte. Beno, banoa, berandu nabil eta. Gero arte, Leo.
- Leo** Bai, gero arte, Koldo.

(Atea isten du) ‘Ai! Koldo. Zer guapoa..., zer serioa..., zer formala..., liburu saltzailea baina..., honek behintzat hitz egiten

daki... Orain, beste bi, eta beteta! Hau da gogoa...! Ea Milaren lagunak deitzen duen..., hamarrak aurretik deituko zuela esan zuen baina... hamarrak ia...’

(Alde egiten du, sukaldera. Atearen beste aldean, Koldo, ajendan apuntazen ari da)

Koldo ‘Beno, pisuarena eginda! Apur bat gehiago eta mesedez eskatu behar... ¡Qué tia! Ez da ixiltzen...! Eta horrekin bizi behar... Eskerrak ez dudan ia-ia ikusiko, zer ote da...? Seguru andereñoa dela. Itxura guztia dauka...’ *(Alde egiten du)*

(Telefonoa. Leok hartzen du, sukaldetik korrika ahoa bete madalenarekin joanda)

Leo Bai...? Nor da...? Ez, ez da ia hemen bizi e... Ez, Gasteiza joan da... Bai, mutilarekin... Ez, ez dakit... baina amaren etxekoa emango dizut... Bai..., lehengo astean, bai... Bihar pasatuko da segurutik..., trasteen bila... Bai, esango diot, esango diot. Neure kontu. Bai, agur.

(Txirrina. Xabi beste aldean arnasa goian eta jertsea besoan)

Leo ‘Jesus! Hau da eguna...! Gaur ere ezin azterketak zuzendu... Nor ote da...? Nor ote da...?’

Xabi Ni naiz. Lehen... etorri naiz. Xabi...

Leo ‘Ay, no, por favor...!’ *(Atea irekitzen du)*

Xabi *(Atean)* Epa! Lehen etorri...

Leo Bai, bai. Ezagutzen zaitut. Pasa, pasa barrura. ‘Trankil, trankil, ez din ezer egin eta...’

Xabi Eske..., ni, pentxatu dut..., ni k pentxatu dut, hemen geratu nahi...

Leo 'Ay, no! Lanarekin ez daukat nahiko eta...' Oraindik denbora daukazu e...? Etzi arte...

Xabi Ez dira alokatu oraindik...?

Leo 'Denborarik eman didak ala?' E..., ba bai. Bata bai.

Xabi Zein...? Bakarra...?

Leo Ez. Bakarra ez.

Xabi Puf! Eskerrak...!! Pentxatzen nuen, baietz. Eske... pentxatu dut...

Leo 'Zenbat *pentxatxen* duen honek...'

Xabi Piska bat garestia da, baina zu euskalduna...

Leo 'No, por favor, por favor..., lo que me temía... Ez. Ni pa Dios!'

Xabi ...zara eta hemen, giroa eskalduna, mintza praktika... Hain zaila da jende euskalduna aurkitu...

Leo Bai, bai. Ulertzen dut, ulertzen dut. Baina ni oso gutxi egoten naiz etxean.

Xabi Berdin da..., baina egongo, egoten..., nola esaten da...?

Leo Egoten zarenean...

Xabi Bai, hori, begira, begira, zu hemen, egoten zarenean...

Leo Ez, zaudenean...

Xabi Zaudenean...? Zu hemen egoten zaudenean.

- Leo** Ez egoten gabe. Zaudenean bakarrik.
- Xabi** Ba hori, zu hemen zaudenean bakarrik...
- Leo** Ez, *bakarrik* gabe.
- Xabi** Bueno, ‘Cuando estás...’, ba zuk nirekin egin eta nik praktikatu.
- Leo** ‘Ta Leo kabreatu. Jau! Ez daukat beste zereginik ba eta...’ E..., nik...
- (Telefonoa)*
- Leo** Bai...? Bai, neu naiz... Ai...! Aurkitu du...? Ezin du... Ez, ez, ez... konponduko naiz. Bai, ohe bat bete dut. Ez, bestea, zuena... bai, mutil bat, liburu saltzaile bat... Ez, ez trankil, trankil neska..., bai...! konponduko naiz... Bai... Goraintziak. Agur Mila. Agur.
- Leo** ‘Ahalegin guztiak egin dituzu, Leo.’ Libre dago. Ohe bakarrekoa libre dago.
- Xabi** Bai...? Bai ondo! Orain, zenbat falta...
- Leo** Pisua osatzeko...? Bat. Aizu, Xabier, Xabier zara, ez da?
- Xabi** Bai, Xabi lagunentzat...
- Leo** Xabi... Zergatik ez zara sartzen Koldorekin? Koldo bestea da, liburu saltzailea, ohe biko gela alokatu duena, beno ohe bata, zergatik ez zara berarekin jartzen...? Merkeago aterako zaizu eta askoz errezagoa da ohe bakarreko gela alokatzea, konpartitua baino.
- Xabi** Eske nik, ikasi egin nahi dut eta denbora daukat... Goizak libre ditut eta nik ikasi nahi dut. Nik hori nahi dut. Berdin zait gehiago ordaindu...

Leo ‘Goizak hemen...? Ai ez! Kurtsiloren batean edo apuntatu behar dut. Honek ez nau ni jodiduko.’ Bueno, bale, bale... Nahi duzun moduan, nik esaten nuen ba... *(Telefonoa)* Berriz... *(Telefonoa hartuz)* Bai...? Gaur...? Eske pisua betetzen eta ez dut astirik izan... Jode! Nahiago dut bihar... Ezin duzu...? Jo eske, orain..., bale. Baaiii! Hamabietan... *(Eseki egiten du, amorruz)* Kaha zaharra!! *(Xabiri)* Zertan ari nintzen...?

Xabi E... *(Txirrina)*

(Miriam. Erdi ittota. Arnasa sakon hartuz, jertsea eranzten)

Leo Jessuss!! *(Ateko mirilatik begira)* Bai...? Nor da...? A! *(Ireki egiten du)*

(Miriam da, hiru edo lau kuadro handirekin)

Miriam Alokatu duzu dena? Telefonoz deitzekotan, baina panadera etorri da... Han lan egiten dut... Ez neukan kanbiorik kabina... *(Xabiri erreparatzen dio)* Epa! Zu ere hemen...?

Leo Ezagutzen duzue elkar...?

Miriam Lehen, etorri naizenean ikusi dut... Beno, ‘al grano’, *kolgata* utzi naute lagunek. Azken orduan, beste bat hartu dute, atzo eta niri ezer esan gabe. Ez nautela lokalizatu... ‘Las muy cabronas...!’ Eta bestean ez dago inor... Dena beteta...?

Leo Ez. Oraindik ohe bat dago libre...

Miriam Puf! Eskerrak! Neuretzat! Gorde e...? Gorde... Panaderak bankura bidali nau eta bide batez etorri naiz... A! Kuadro hauek hemen utz ditzaket...? Gero jasoko ditut... Eske panaderari ez zaizkio gustatzen... eta pentsioan ez didate uzten... *(Txirrina)*

(Koldo kajakada libururekin. Jota, arnasa hartu ezinik. Kaja lurrean utzi eta jertsea eranzten du. Txirrinak jotzen du berriz ere)

- Leo** Baiiii! Banoaa! *(Mirilatik begira)* Nor da...? A! 'Estamos completos!' *(Ireki egiten du)*
- Koldo** Pasatu egin... *(Jendeari)* Epa...!
- Leo** Ai, bai... Hau Koldo da. Hauek, Miriam eta Xabier...
- Koldo** Epa...! *(Leori)* Kale honetatik pasatu naiz furgonetarekin eta aprobe txatu egin dut, hauek ekartzeko...
- Leo** E..., a!, Bai, bai... Miriam, hau da Koldo, e..., hau da zure gela...
- Koldo** *(Leori)* Ohe bakarrekoa okupaturik dago ala...?
- Leo** Bai. Xabik hartu du.
- Miriam** Jo, baina nire kuadroak eta...
- Koldo** Ni ez naiz gauerarte egongo...
- Miriam** Ez, ez da zugatik... Eske, eskultura eta pintura piska bat egiten dut eta lekua...
- Xabi** Kuadroak balkoian gorde ahal dira... edo salan...
- Leo** 'Salan. Sala-comedor-recibidor-pasiloan.'
- Koldo** Nik ez daukat gauza askorik... Liburu hauek eta beste hiru edo lau.
- Leo** 'Inoiz ez. Inoiz ez dut neure etxerik edukiko. Sekula ere ez!.' Ez dakit, arratsaldetan pisua hutsik egongo da... *(Miriami)*

- Xabi** Nola esaten da..., *camaroterik* ez dago...?
- Koldo** Ez..., horiek solte alokatzen dira...
- Miriam** Ez, nik ez daukat dirurik estudio bat alokatzeko.
- Leo** Trankil, lasai..., begira, utzi kuadroak hemen, izkinan eta sofa hau neure gelan sartuko dut.
- Miriam** Eske mahaia ere badut...
- Leo** Eta ez da hemen kabitzen...?
- Miriam** Hum ..., ez dakit. Frogatu egin behar.
- (Koldo bere gelara, liburu kajarekin.)*
- Koldo** *(Bueltan Miriami)* Trasteak dituen ohea zuretzat?
- Miriam** Zer traste...?
- Leo** Ez, ez. Horiek nire lagun batenak dira. Gero etorriko da bila... Beno, bihar... Alde, alde, Tximist...!
- Koldo** Beno, nik alde egin behar dut...
- Leo** Eta giltza...? *(Koldori)* Ez! Konpondu naiz zurekin... Zuek, noiz etorriko zarete...?
- Miriam** Ba ni, ahal bada, gaur..., pentsioak ez zaizkit gustatzen...
- Xabi** Ni ere bai. Ni ere, gaur etorri nahi. Ni k ere gaur etorri nahi dut...
- Leo** Eske ez dut denentzako giltzarik...
- Koldo** Ba lehen esan duguna. Utzi buzoian...

- Xabi** Eta buzoia giltza...?
- Leo** ko. Buzoi ko giltza. Egia...
- Koldo** Ba..., utzi auzoari eta lehenengo heltzen denak eskatu eta etxean egon besteei atea irekitzeko...
- Leo** Hori egin beharko...
- Xabi** Beno, orduan, nik ere nire traste batzuk ekarriko ditut... (*Leori*)
Hemen egongo zara, ez da...? (*Arin ateratzen da*)
- Leo** E...
- Miriam** Nik maletak hartu behar ditut pentsioan... Oraintxe ekarriko ditut... (*Arin ateratzen da hau ere*)
- Leo** (*Zerbait esatera doa*)
- Koldo** Ba nik ere oraintxe aprobetxatuko dut. Furgonetan ditut erropak... (*Hau ere atera egiten da*)
- Leo** Nik hamabietan alde egin behar... (*Denak alde eginda euren trasteen bila*) 'Trankil, lasai. Jende barria ezagutuko dun... desberdinak..., artistak, biajanteak, kamareroak... Bihartik aurrera tila goizetan...'
- (*Eszenatokia ilundu egiten da*)

II

(Eguerdiko ordu biak. Lurrean, inguruetan, kuadroak, eskultura hasiak, liburuak, kajak, apunteak, ordenadore bat, landare handi batzuk..., traste pila bat. Ia-ia ezin da ibili ere egin. Musika kasetean. Leo eta Xabier mahaian, espagetiak jaten)

Xabi Zer hotz! Gaur ez dut lorik egin.

Leo Kalefazio konpontzaileari deitu behar zaio.

Xabi Orain ere, hankak izoztuta, horrela esaten da, ez da...?

Leo Bai...

Xabi Izoztuta ditut...

(Leo ixilik. Ez dio begiratzen Xabiri. Platerekoari begira, jaten ari da)

Xabi Kalentadorea konponduta dago...?

Leo Bai, atzo etorri ziren.

(Isilunea)

Xabi A! Zuk ordaindu duzu...? Zenuen...?

Leo Bai.

Xabi Orduan kaja jarri behar da... Zenbat...?

Leo Ez dakit zenbat zen... Bost mila edo... Gero egingo dugu.

(Isilunea)

- Xabi** Koldok jarri du lehen astean..., lehen astekoa...?
- Leo** Ez.
- Xabi** ‘¡Jo con el tío! ¡Qué morro tiene!’ Atzo ere nik jaso nuen, bai, plurala, nituen bere trajeak tintoreriatik. A! Baina ez nuen ordaindu e...? Beste bitakoa zor du..., dit.
- Leo** Zeure errua. Hurrengoan, ez jaso.
- Xabi** Ez jaso, ez jaso, ‘de paso’ daukat eta.
- Leo** Ba orduan ez kexatu...!
- Xabi** A! Ia-ia ahaztu zait...! Beste kajakada bat liburu ekarri du... zuen... eta kokoteraino nago bere trajeak... nire armairuan... Miriamen kuadroekin zikindu egiten direla eta... ez dut tokirik nire gauzak guardatzeko.
- Leo** ‘Gordetzeko’. Non daude?
- Xabi** Zer...? Liburuak...?
- Leo** Bai.
- Xabi** Nire gelan. Atzo gauean, ordu batean etorri zen eta ni ere bai. Nik lagundu diot.
- Leo** Eta ez zenion ezer esan...?
- Xabi** Zer esan...?
- Leo** ‘Jode tío!’ Ez duzu ikusten ala? Portalean bizi beharko dugu...! Hiru-lau liburu esan zuen eta biblioteka osatzen ari da...
- Xabi** Eta Miriamek tronko bat..., nola da?... enbor bat ekarri du...

Leo Bai zera...! Zer diozu...? Enbor bat...?. Hau gehiegi da! Non dago...?

Xabi Balkoian...

(Leo balkoira, eszenatokiaren ertz batera joaten da. Bueltan...)

Leo Zertarako behar du hori...?

Xabi Ez, bihar eramango du Artelekura. Figura bat egiteko da. Datorren astean eramango ditu harria, komunean dagoen harria. Zer ondo esan dudan e? Eta ere bai zure gelan dagoen komuneko tasa.

Leo Baita. 'Ere bai' azkenean bakarrik.

Xabi A bai! Ba..., zure gelan dagoen komuneko tasa ere bai. Bilbora eramango ditu. Erakusketa bat dauka uste dut...

Leo Bilbora...? Zelan? Nola?

Xabi Koldoren furgoneta eskatu du.

Leo Eta utzi egin dio...?

Xabi Ez. Bueno, Koldok eramango dio.

Leo Koldok eramango duela...

Xabi Eramango du. Bai. 'Nork-nor'.

Leo Beti baitaude haserre... Hor ibiltzen dira... 'Nire tokian ez libururik utzi... Nire tokian ez zapatilarik gorde... Non sartu duzu nire pintzela... non nire korbatak... Nire trajeak ez ukitu... Nire lientzoak sakratuak dira...

Xabi Bai baina... 'a la hora de la verdad...' senar-emazteak bezalakoak dira...

- Leo** Horrek, neska horrek dauka arpegia! Orain ere engainatu du. Tontoa da baina Koldo. Tontoa! Ez da konturatzen erabili egiten duela...!
- Xabi** Ez dago ona ala...? (*Sukaldera*)
- Leo** Bai, bai, onak daude. Joan egin zait gosea.
- Xabi** (*Sukaldetik*) Ai! Yogurrak ahaztu zaigu...!
- Leo** Zaizkigu! Yogurr ak!!! Plurala da. Atzo ere esan nizun! Erdaraz bezalaxe da, ez da horren zaila...! (*Jaiki eta sukalde ondora*) Zer esan duzu? Ez dagoela yogurrik...? Atzo ekarri nituen sei eta...? Neuk jan nituen bi baina besteak...? Beste lauak???
- Xabi** Koldok jan du, ditu... atzo....., zuen, zituen atzo...
- Leo** Denak...?
- Xabi** Ez, bi.
- Leo** Eta beste biak...?
- Xabi** Goizean hartu du, ditu, bai, bai, plurala e... Miriamek.
- Leo** ‘Txerri horrek...!’
- Xabi** Jode! Eta Koldok ez du kajarik ipintzen jateko. (*Koldo imitatuz*) ‘Nik ez dut etxean jango, bakarrik lo egingo dut.’
- Leo** Goizean hartu ditu yogurrak e...? Eta atzo gaueko *fregaua* ere neuk...
- Xabi** Lehengo astean utzi diot..., dizkiot..., nion... ‘nizkion’, ez da...?... mila pela eta...

Leo Zer?

Xabi ‘Nik hari plurala. Nor-nori-nork...’

Leo Bai. Nizkion.

Xabi Eta oraindik ez dit eman...

Leo Nork? Miriamek?

Xabi Ez! Koldok!!!

Leo Emango dizkizu... Seguru Miriam txerri horrek eskatzen dizkiola...

(Atearen beste aldean Miriam eta Koldo, arnas estuka. Miriamek trafikoko STOP seinale bat du eskuetan. Koldok telebista bat)

Miriam *(Arnasa goian)* Giltza, Koldo...

Koldo Bai, itxoin, oraintxe...

Miriam Uste dut Leo nirekin haserre dela. Ez dakit zergatik... Perfekzionistegia da...

Koldo *(Telebista lurrean utzi eta giltza bila, arnasa goian)* Ba! Ez egin kasurik!

Miriam Hala ere arrazoi piska bat badu... Zu zure pedidoekin eta ni nire lanekin...

Koldo *(Giltza bila)* Eta zer...? Horrelakoa da bizitza...! Horrela tokatu zaigu...! Hirurogeiko hamarkadan jaioak izatea ere geure errua al da ba...? Gizartean tokirik ezin aurkitzea ere, geure errua al da ba...? Dugun lanbidearekin sekula santan bakoitzak bere pisua ez dugula izango jakitea, gure errua al da ba...? Gehiago pasatu beharko luke eta askoz gehiago bizi, disfrutatu...! Giltzarik baduzu...?

- Miriam** Ez, nik ez!
- Koldo** Jode... (*Giltzen bila*)
- Miriam** Berak egiten du beti harrikoa...
- Koldo** Xabi ere hor dauka. Goiz guztia egoten dira bakarrik etxean... Guk baino gehiago disfrutatzen dute etxearekin... Non sartu ditut giltzak...?
- Miriam** Xabik nahikoa dauka lanarekin eta euskera ikastearekin... Kriston esfuertzoa egiten ari da... Non sartu dituzu baina...? (*Bera hasten da bila, bere poltsan. Horretarako, seinalea lurrean uzten du*) Itxoin...
- Koldo** ‘Jode tía...! Como hay Dios’ sartu ditudala goizean poltsikoan...
- Miriam** Itxoin, itxoin... Hemen daude...! (*Atea irekitzen du*)

(*Denak ixilik une batez. Leo Miriamen seinaleari begira. Xabi, Koldoren telebistari*)
- Xabi** (*Koldori*) Zer arraroa zu hemen... Zer da... hori...?
- Koldo** Pasatu egin naiz eta hau, bideoa ekartzera etorri naiz. Mudantzan ari gara eta aste bete edukitzeko..., bitartean aprobetxatu egin genezake... (*Leori*) ‘Memorias de Africa’ alkilatu dut... Itxoin... Miriam, non utzi dut zinta...?
- Miriam** Zer zinta...?
- Koldo** Ai...! Dendan utzi dut! Gero jasoko dut... Hau da usaina...! Ezer geratzen da...? (*Sukaldera*)
- Miriam** Ai! Yogurrak! Panaderiatik irtendakoan erosteko izan naiz eta ahaztu...

- Leo** Ez. berdin dio..., lanera joan behar dut...(*Logelara*)
- Koldo** (*Sukaldetik bueltan, platera bete*) Bazkaldu duzue, ez da...? Sobran dago...?
- Xabi** ‘No se para qué lo preguntas... ¡Qué morro!’
- Koldo** Yogurrik badago...? Jo! Zer gozoa atzokoa...! Non erosi zenuen, Leo...?
- Leo** (*Logelatik*) Beheko dendan erosi *nituen*. Ofertan zeuden...
- Xabi** Erosketak egin ditugu... Kaja jarri behar da...
- Miriam** A bai... Zenbat...?
- Xabi** Hiru mila. Kalentadorea konpondu dute eta...
- Koldo** A! Konpondu dute...? Dutzatu egin behar dut... Ea denbora ematen didan...
- Leo** (*Logelatik bueltan, alkandora plantxatzera*) Lurra sikatu gero.
- Koldo** Zergatik esaten didazu hori...?
- Leo** Ez, nik bakarrik diotsut lurra sikatzeko, bestela, Miriamen harria hondatuko da...
- Miriam** Ez, nire harriari ez zaio ezer pasatzen...
- Leo** A bueno! Hala ere, sikatu...
- Koldo** Begira tía! Nik beti sikatzen dut bainua...
- Leo** Niri ez deitu ‘tía’...
- Koldo** ‘Printzesa’, ‘printzesa’ deituko dizut...

- Leo** Zer esan nahi duzu tonu horrekin?
- Koldo** Zer tonu?
- Leo** Badakizu ondo ere. Aspaldidanik nirekin erabiltzen ari zaren tonu horrekin...
- Koldo** *(Espagetiak jaten)* Zer tonu eta zer tonu oste! Badakizu gauza bat...? Badakizu zer komentatzen aritu izan naizen oraintxe, Miriamekin...? Gehiago irten beharko zenukeela, arraro bihurtzen ari zarela... Neskazahartzen... Normala pisuko lehengoek alde egitea...
- Miriam** Koldo! Nik ez dut hori esan...
- Xabi** *(Koldori)* Utzi bakean! Arrazoia du Leok... Gaur goizean dena bustita egon da...
- Koldo** Ni ez naiz dutxatu...
- Xabi** Ez, baina lababoan ibili zara...
- Miriam** Ez, ni izan naiz... Erropak garbitzen ibili naiz eta...
- Leo** *(Koldori)* Ni neskazahartuta egongo naiz. Baina zu potrohandi bat zara. Ez duzu inoiz harrikorik egiten. Ez duzu inoiz erosketarik egiten. Ez duzu inoiz eskobarik hartzen. Denen yogurrak jaten dituzu. Auzokoen liburu-pedido guztiekin etxea betetzen diguzu eta gainera... gainera, zorrak ordaintzea ahazten zaizu... A! eta lanean traban dituzun gauza guztiekin betetzen diguzu etxea...!
- Miriam** Ai! Ni banoa. Nik ezin dut diskusiorik ikusi. Urduri jartzen naiz. Bihar bertan eramango ditut harria eta seinalea...
- Xabi** *(Miriami)* Itxaron. Arrazoi du Leok. Geuk egiten dugu lana. *(Koldori)* Zu gauean etortzen zara eta kito! Txandak egin

behar dira! (*Miriami*) Eta zuk, bilatu lokal bat... Atzo, praka berriak oleoz zikindu nuen... e..., nituen, plurala...

Miriam 'Jode tío!' Kontua izan! Badakit kuadro batzuk ditudala... Baina ez dut tokirik... Enroilatu ez...? Nik pentsatzen nuen kolegak zinetela eta ulertzen zenutela... Badakizu erakutsi egin behar ditudala... Jode! Neuk ere ez dakit non sartu...! Egun batzuk baino ez dira...

Koldo Gainera gu, gela batean gaude... Guk kexatu beharko genuke... Zuek, gela bat bakoitzak...

Xabi Gehiago ordaintzen dugu...

Leo (*Koldori*) Zer morro! Zeuk nahi zenuen...!!! (*Plantxan*)

Miriam (*Aterantz doala*) A! Koldo! Nire ohepean dauden liburuak atera, tenpera berriak sartu behar ditut eta...

Koldo Bai, kenduko ditut.

Miriam Bai, baina gaur.

Koldo Baietz...

Miriam Baina ez ahaztu e...? Atzo ere esan nizun...

Koldo Baietz! Jode!!! Esan dizut, ez da...? Ba kenduko ditut! Kenduko ditut!! A! Zuk ere kendu zure kremak mesanotxetik... Atzo esan nizun eta ahaztu egin zitzaizun...

Miriam (*Atetik*) 'Jode tío!' Ez zaituzte molestutzen...

Koldo Ezin dut ezer utzi. Atzo ere gauean ametsetan denak bota nituen lurrera... Giltzak ere seguru ohepean daudela...

Miriam Bueno, kenduko ditut... komunean utziko ditut...

Leo Komunean ez dago lekurik.

Miriam Ba, lurrean. Ez dakit. Poltsan eramango ditut! A! Zergatik konplikatzen duzue horrenbeste bizitza...? (*Alde egitera doa, baina Leok seinaleari begiratzuz...*)

Leo Non gorde behar duzu hori...?

Miriam Hementxe edo...

Koldo (*Espagetiak jaten*) Ez Miriam, hor telebista jarri behar dut.

Miriam Ba ez dakit..., sukaldean, frigorifiko ostean...

Xabi Frigorifiko ostean loreentzako abonoa dago...

Koldo A! Badakit...! Loreak atera balkoira eta hementxe bertan.

Leo Bai, barruko loreak dira eta kanpora aterako dituzu... Listo...!

Miriam Ba..., lurrean...

Xabi Lehengo egunean, Koldoren kaja batekin tropezatu nuen... eta betaurrekoak, ia-ia apurtu...

Koldo ‘Jode tío!’ Begiratu egin behar duk...

Miriam Xabi, ez daukazu lekurik zure gelan...? Armairu ostean edo...?

Leo Xabiren gelan kargatzen dugu beti dena azkenean...

Miriam Beno, ez dizut zuri galdetu, ez da...? Ba utzi berari erantzuten...

Xabi Jo, eske, apal batzuk daukat..., daukat gabonetan erosita eta ipini egin nahi ditut...

Miriam Jo Xabi..., egun batzuk baino ez dira...

Leo ‘Qué cabrona...! Beti denak engainatzen...!’

- Koldo** *(Espagetiak bukatuta platereko hondakinak ogiaz batzen)*
 Begira ezak...! Datorren astean, asteartean arratsaldea libre zeukeat eta neuk lagunduko diat...
- Leo** Ordurako seinalerik ez badago...
- Koldo** Esan du pare bat egun baino ez direla... Zer nahi duzu, bat-batean traste guztiak kalera botatzea...? Bota zeuk ere zeure loreak... Ni ere kokoteraino nago kantoi guztietan zure landareak ikusten... Eta katua...? Tximist hara, Tximist hona..., lehengoan ere ohean buelta ematerakoan, zer dela eta zer dela, eta bera! Pila izen horrekin zorriak baino ugariagoa da...!
- Xabi** Ohea epelduko zizun behintzat...
- Miriam** Zergatik konplikatzen duzue, baina, horrenbeste bizitza...? Begira, ohean, ohean utziko dut eta berarekin lo egingo dut! Eta kitto! *(Seinalea bere gelara eraman eta bueltan ateratzen da. Koldori)* Nire ohe gainean zegoen trajea zure ohe gainean utzi dut. Gero arte!!! *(Atea fuerte itxiz)*
- (Denak isilik: Leo, plantxan. Xabi, bere arropak tolesten. Koldo, biei begira. Halako batean...)*
- Koldo** *(Xabiri)* Hik jaso duk trajea...?
- Xabi** Ez. Nik atzo. Gaur Leok. *(Xabi bere gelara arropekin)*
- Koldo** Zeuk ordaindu duzu...?
- Leo** Ez, beste hiru faktura zenituen eta ez neukan dirurik denak ordaintzeko.
- (Koldo berea jan eta dena garbitzen ari da. Mahaia eta dena, esajeratuz, Leori begira. Leo plantxa jaso eta zapatak garbitzen ari da)*

- Koldo** Konforme...?
- Leo** Ez, ez didazu batere graziarik egiten.
- Koldo** ‘Jode! Tía!’ Ekarriko dizkizut yogurrak! Hamar!! Gustu desberdinetakoak!! Txokolate, laranja, marrubi, platano, franbuesa eta tutifruti!! Eta katuari.... katuari..., *Miau* sardina lata, handiena! Baina aldatu aurpegia! Gaur mozkortzera joango gara! Denok!! Karnabalak ospatzera!!
- Xabi** Lehengo astean pasatu ziren...
- Koldo** Ez hadi gafea izan...
- Leo** Ez duzu esan ba ‘Memorias de Africa’ ikusi behar dugula...?
- Koldo** Ai, egia...! Non jarriko dugu telebista...? A! Badakit...! (*Ostikopetik jaso eta nebera gainean jartzen du*) Tatxan! Tatxan...! Nork esan du gure etxean ez dagoela lekurik...? Bihar, ‘Memorias de Africa’ eta etzi, etzi..., ‘Casablanca’, nire lagun batek dauka.... Gustatzen zaizu, ez da, Leo?
- Leo** Bai...
- Koldo** Baina gaur, mozkortzera...!
- Leo** (*Koldori*) Zure kontura...?
- Koldo** Bai...! Zergatik ez...! Kaña bi ordaintzeko lain behintzat badaukat...!
- Xabi** ‘Qué morro!’ Nik lan egin behar dut.

- Koldo** Jode...!
- Leo** Eta nik ez daukat gogorik...
- Koldo** A zer pareta...! Karakola eta bareta...! Zuekin ezin da... (*Katua lepoan hartuz*) Tximistekin joango naiz...! (*Katuari*) Ez da, mixina...? Biok, bakar-bakarrik, soso hauekin ez dago zereginik eta...

(*Telefonoa*)
- Xabi** Nik hartuko dut.
- Leo** Ez erabili katua lepoan, txarto ohitzen da eta. Ni banoa. (*Kalerakoa egiten du. Koldori begira*) Kalefazio konpontzaileari deitu behar zaio... (*Alde egiten du*)
- Xabi** Bai...? ‘Sí. Está aquí.’ (*Koldori*) Zuretzat...
- Koldo** ‘¿Sí...? ¿Otro pedido...? Es que no tengo sitio... Sí, sí, ahora voy. Sí. Ya voy.’ Mekauen! Ez dit minutu bat libre uzten! Nork esan zuen norbere negozioa montatzea erraza zela...?’ ‘Kooperatiban’. Kooperatiban lan egitea da onena... Lau pezeta irabazteko! (*Xabiri*) Joan egin behar diat...! Heuk bukatuko dituk, ez da...? (*Erantzuteko astirik eman gabe, alde egiten du*) Ez, ez dut liburu gehiagorik ekarriko...! Topatuko dugu tokiren bat...! Beno, gauerarte! (*Alde egiten du*)
- Xabi** (*Koldok alde eginda gero*) Gauerarte! ‘¿Y la caja...? ¿Y las mil pelas que me debes, cabrón...? ¿Y la calefacción...? ¿Y tus trajes, que me estás llenando la habitación de trajes...? ¿Y las facturas de la tintorería...?’ (*Gauzak batzen hasten da, arin*) ‘¡Si soy el más cagao! ¡El más pringao! Ni EGA-s, ni pelas, ni ligués, ni hostias! Todo el día aguantando a la plebe. El día que reviente...!’

(*Musika kendu, txamarra hartu eta kalera joaten da. Iluna*)

III

(Gaueko ordu biak. Udaberria. Ekainaren bukaera. Traste asko gelan, baina ordenaturik: horma izkinetan kuadroak zintzilik eta liburuz beteriko apalak, non-nahi: hormetan, ate gainetan, mahaiean, silapean. Egurrezko edo harrizko eskulturak ere bai, baina zeozertarako erabilgarri: batean, trapuak zintzilik, bestean, apunteak, bestean ogia edo fruta, telefonoa, plantxa, arropetarako pintzak, oinetakoak, loreak, lore asko... Tokia polita ikusiko da, oso arraroa, baina polita. Pisua hutsik. Inor ez dago.)

(Atearen beste aldean, Xabi. Etxera sartzen da. Argia piztu eta komunera doa. Komuneko bonba entzuten da. Bueltatu eta sukalderantz. Baso bete esnerekin bueltatzen da. Periodikoa leitzen hasten da. Bat-batean...)

Xabi

Ostias! Ahaztu zait! Leoren urtebetetzea. Eta goiz guztia berarekin... Ai!! Ahaztu zait ! ‘¿Qué puedo hacer ?’ Orain lo egongo da... Bihar... baina bihar ez dauka graziarik... Aj! Aste osoa gogoratzen...

(Atean Koldo. Giltzak topatu ezinik).

Koldo

Mekauen...! Zer egin dut baina...? Ez nituen galduko...? Jode! Bigarren juegoa galtzen dudana...! Baina ezin ditut, ezin nituen galdu...! La hostia...! Non daude baina...? *(Ez ditu aurkitzen)* ‘¡A tomar por culo!’ *(Txirrina jotzen du, suabe)*

(Xabik atea irekitzen du)

Koldo

(Xabi dela ikustean) Puf! Eskerrak! Pentsatu dut denak lo zeundetela... Ez zekiat zer egin dudan giltzekin... Poltsikoan sartu ditut...

Xabi

Galdu egin dituzu...?

- Koldo** Ez zekiat...! Ez zekiat!!! Ez nitian etxean utziko, ez da...? (*Bere gelarantz*) (*Bueltan*) Hemen daude. Badakik non zeuden...? Alfonbra gainean... Ez, ez ezak barrerik egin... Ametsetan mesilako gauza guztiak jaurtikitzen dizkiat lurrera. Eskerrak agertu diren...! Leoren ama aurpegia ez ikustearren...! Izan ere, non daude neskak...?
- Xabi** Ez daude ohean ala...?
- Koldo** Ez zekiat...! Miriam ez behintzat... Eta Leo ere ez, poltsarik ez dago hemen eta... Zer arraroa...! Bera denarekin...!
- Xabi** A...! Orduan denbora daukagu...
- Koldo** Zertarako...?
- Xabi** Bere urtebetetzea da gaur... Bueno, atzo ia...
- Koldo** Bere urtebetetzea...? Eta ez digu ezer esan... 'La muy cabrona...' Zenbat egiten ditik...?
- Xabi** Ez dakit, 27, edo 28...
- Koldo** Pentsatzen nian gazteagoa zela... Neuk beste...
- Xabi** Txorradaren bat egin behar diogu...
- Koldo** Bale...! Ea atzokoa barkatzen didan...
- Xabi** Zer atzoko...?
- Koldo** Gauekoa..., zazpi lagun ekarri nituen afaltzera...
- Xabi** Atzo...?
- Koldo** Bai... Ez dik ezer esan...?

- Xabi** Ez... Eta ez nuen ezer igarri etorri nintzenean...
- Koldo** Dena garbitu genian eta...
- Xabi** Horregatik zeuden leihoak zabalik...
- Koldo** Bai, aireatzeko... Eta loreak ez galtzeko. Gaur azterketak egin behar zituen eta goiz oheratu zen... Miriam ere geurekin etorri zuan gero, kalera, kafea hartzera...
- Xabi** Ez dit ezer esan...
- Koldo** Bazekiat zer egin...!
- Xabi** Zer...?
- Koldo** Musika kaxa bat zeukeat hor, behin, sozioak eman zidana..., semeak beti tapa kendu eta kristoren pelmada ematen ziola eta... Gustatuko zaio! Seguru...! (*Gelarantz*) Gainera, ez du ia-ia tokirik behar...
- Xabi** Eta txorradaren bat idatziko diogu barruan.

(*Miriam dator kaletik*)
- Miriam** Gabon! Zertan ari zarete...? Zer zarata...? Goizeho hirurak dira ia-ia... Leo lotan egongo da...
- Koldo** (*Gelatik bueltan*) Bai zera...! Oraindik ez da etxera etorri... Formalagoa zelakoan nengoen...
- Miriam** Zer arraroa (*Leoren gelara*). Egia da. Ez du ezer esan ba.
- Xabi** Bere urtebetetzea da...
- Miriam** A bai...? Agian horregatik... Zergatik ez digu ezer esan...?

Xabi Musika kaxa bat oparituko diogu...

Miriam Bale...! Nork erosi du...? Zuk, Xabi...?

Xabi Ez, ez, ez. Koldok zeukan...

Miriam A! Fenomeno...! (*Xabiri*)... Eta zuk nola jakin duzu ba...?

Xabi Zer? Urtebetetzearena...? Berak esan zidan.

Koldo (*Paketea eginez*) Jo! Hiri dena kontatzen dik e...? Ez haiz kexatuko...

Xabi Niri...? Bai zera...!

Miriam Bai, ni ere konturatuta nago.

Xabi Kristoren pazientzia dauka nirekin... Berak erakutsi dit hitz egiten...

Koldo Hitz egiten lehen ere jakingo huen, ez...?

Xabi Beno, esan nahi nuen... Jo! Koldo, zu beti bosgarren hanka bilatzen... Zer esaten ari nintzen...? A! Uste dut kokoteraino egongo dela nitaz...

Miriam Ez dakit... Hasiera batean, agian bai. Baina orain, oso ondo konpontzen zarete... Nik ondo ikusten zaituztet behintzat...

Xabi Ba..., normal...

Miriam Gustatu egiten zaizu, ez da...?

Xabi (*Harriturik*) Nor? Leo...?

Koldo Benga! Benga...! Igarri egiten zaik eta. Ez ezak disimulatu...

- Xabi** Ez dakit... Ke ba! Ohitura da... Leok ez dauka niretzat lekurik...
- Miriam** Zer diozu...? Zergatik esaten duzu hori...?
- Xabi** Leok... gauza asko nahi ditu... Beste gauza batzuk... Oso ameslaria da...
- Koldo** Bai, baina horrek ez du ezer esan nahi... Denok gara ameslari. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago...
- Xabi** Leok bere 'lekua', bere etxe propioa aurkitzen duenean, bakarrik biziko da. Seguru...! Eta aurkituko du, ni ziur nago behin edo behin aurkituko duela... Eta orduan, guztiz ... nola esan..., guztiz 'inalcanzablea' izango da.
- Koldo** Orain ere zer duk ba...?
- Miriam** Ai...! Zuek ez duzue ulertzen... Makina bat aldiz esan dizut zuri ere, Koldo...
- Koldo** Nik ez diot ezer kentzen... Neska... 'berezia' dela. Orde-natuegia. Besterik ez...
- Miriam** Eta eskerrak...! Uste duzu, bera izan ez balitz, urtearen bukaera arte aguantatuko genuela kutxitril honetan...?
- Koldo** Ez.
- Miriam** Pasatzen da, ba... Berak toki bat nahi duela... Berea den toki bat... Etxetik irten zenetik pisuz eta lagunez aldatzen ibili da. Niri gustatu egiten zait hori... Baina ulertzen diot, zazpi urte horrela, asko dira... Nik ere, eskerrak nire kuadroak eta mobida guztia ditudan...; ni, nire lanak egitean, neure lekuan, neure etxean sentitzen naiz, nahiz eta ez dakit noren almagazean edo ez dakit noren ganbaran egon... Bakoitzak bere gustuak ditu. Bere roiloak... Ez dakit... Zuri Koldo, adibidez, zuri ia-

ia berdin zaizu non lo egin, baina zure furgoneta...? Ai, ai, ai...! Zure furgoneta sakratua da zuretzat..., ala ez?

Koldo

Nire lanbidea da...

Miriam

Ez, gehiago da. Zure 'lekua' da. Benetan tío, harriturik geratu nintzen ikusi nuenean. Hemen, norbaitek esan ezik, ez duzu trapurik ere hartzen..., eta ikusi egin behar da nola dituzun trasteak gelan...! Arropa, tintorerian garbitzen dizutelako... Bestela, zer...? A! Baina zure furgoneta...? (*Xabiri*) Ez dakizu! Atze guztia dauka apalekin ipinita, baina liburuak ez jausteko moduan, eta gero, sabaian, behin edo behin lo egin nahi izanez gero..., beno, behar diren gauza guztiak... Ai, 'amigo' ! Gero besteei esan... Eta zuk Xabi, makina bat aldiz entzun dizut zuri, euskera ikasten hasi zinenean ireki zitzaizkizula ateak.... Ordurarte zerbaiten faltan egon bazinen, orduantxe aurkitu zenuela zeure lekua... Zergatik 28 urterekin erabakitzen duzu zeurea ez den hizkuntza bat ikasi behar duzula, bestela...? Zuk ez zenuen lan arazorik... Inork ez zintuen behartu...

Xabi

Egia da. Ordurarte, beste baten bizitza 'bizitu', horrela esaten da...?

Miriam

Bizi izan...

Xabi

A, bai, bizi izan nuela iruditzen zitzaidan... Nire familia jaioterrira bueltatu zenean, Extremadurara, ni konturatu nintzen, hemen jaio nintzela, hemengoa nintzela. Orduan, hemen bizi behar nuen. Baina zerbait falta zitzaidan...! Arrotza sentitzen nintzen...! Ikasten egon nintzenean, ni heldu eta hizkera aldatu behar..., 'intruso' bat sentitzen nintzen... Gero, tabernan, katxondeoz, 'zuri bi eta beltz bat' eskatzen zidaten, 'honek ulertzen du', irribarrez esanez, baina besterik ez. Punto. Eta 'zuri bi eta beltz bat' esanda, esango didazu nora joango nintzen... Eta euskaltegian hasi eta etxean apurka-apurka periodikoa leitzen eta irratia entzuten eta hasi nintzenean,

beste mundu bat ireki zitzaidan, eta gustura nengoen... Eta gero, Leok pila bat lagundu dit... Berak apuntatu ninduen Udaletxeko oposaketetan, lorazain. Behin esan nion, tabernarekin piska bat nekatuta nengoela, asko aguantatu behar delako eta niri, landareak eta baserria gustatzen zait, zaizkidala eta hurrengo egunean, eskaera orria ekarri zidan. Eta berak ekarri ez balu, ni ez nintzen sekula apuntatuko... (*Gogoratzuz*) Lorezain. Udaletxeko lorezain.

Miriam Ikusten duzue...? Bakoitzak era bat dauka..., baina denok nahi dugu zerbait, gurea, gure nahia... Batzuek bizimodua aldatzen dute lortzeko, beste batzuek amoldatu eta ahal dutena egiten dute... Ez dakit... Eta Leok ere, bera bizi den tokia, pisu normal bat baino gehiago izatea..., astea pasatzeko toki bat baino gehiago izatea..., toki hori, ahal den neurrian bere lekua izan dadila nahi izatea, normala ikusten dut... Ez dakit esplikatu naizen...

Koldo ‘A las mil maravillas’ Baina ez nago guztiz ados. Beste zerbait ere gertatzen zaio... Baina, orain ez dugu eztabaidatuko e...? Ale, benga, zer jarriko diogu paperean?

Miriam Zer paper...?

Xabi Paper bat sartu behar diogu..., txorradaren bat...

Miriam Itxoin...! (*Bere gelarantz. Bueltan*) Behin, marrazki bat egin nion, eskobatzen ari zela..., froga bat zen..., itzalekin egin nahi nuen froga bat... ez dakit... hemen dago... hemen dago...! Hauxe, hauxe jarriko diogu...

Koldo ‘Lixibi’rentzat, bihotzez...

Xabi Zer da ‘Lixibi’...?

Miriam Lixiba, lezia... Bai...? Hori jarriko diogu...?

- Koldo** Baiiii! Katxondeoz, ez du txartzat hartuko...
- Xabi** 'Lixibi', ez du lejia dela ematen...
- (Honetan ari direla, Leo sartzen da. Erdi 'piripi' dago; mozkorturik ez, oso-oso alai eta 'desberdin')*
- Leo** Epa...!! Denok hemen...? Zer ordu da ba...? Gosaldu duzue ia...?
- Xabi** Hiru eta erdiak dira oraindik...
- Koldo** Mozkortu egin zara ala, Leo...?
- Leo** Mozkortu...? Ka! Ni ez naiz inoiz mozkortzen. Ospatzen egon naiz.. Pisuko iazko lagunekin...
- Miriam** Noski! Zergatik ez diguzu ezer esan...?
- Leo** Esan...? Neuk ere ez nekien...
- Miriam** Nola ezetz...? Xabiri esan zenion ba...
- Xabi** Adarra jotzen ari da... Nola ez duzu jakingo zure urtebetzea dela...?
- Miriam** A! Ez...! Hori ez...! Beno, hori ere ospatu dut, baina beste gauza bat ospatu dut... *(Xabiri)* Esan egin diezu ala...?
- Xabi** Zer esan...?
- Leo** Nire urtebetzea dela...
- Koldo** Bai. Eta hau, zuretzat. Zorionak *(Erregaloa eta musua ematen dizkio)*, zorionak denon partez...
- (Denek musu bana eman ondoren, Leo, negarrez hasten da...)*

- Leo** Lana utzi dut. Ez, lasai, ez naiz horregatik negarrez ari, emozio asko izan dira egun bakar baterako. Inspektorea etorri da gaur eta zera, esan dit, azterketa egin behar diedala ikasleei. Nik ezetz, kokoteraino nagoela eta zezter ebaluatu nahi baldin badu, egon dadila neurekin gelan hilabete oso batean. Ezetz, baietz, ezetz, baietz, azkenean denak neure aurka eta bere alde irakasle guztiak eta ia! Esan diet! Egin nahi duzuen. Ni banoa!
- Xabi** Eta utzi egin duzu...?
- Koldo** Bihar beste era batera ikusiko duzu.
- Leo** Ez, erabakita neukan, aspaldi, baina ez nintzen ausartzen... Baina gaur, bukatu da, bukatu da!! ‘¡Se acabó! ¡Finito!’
- Miriam** Eta zer egingo duzu orain...?
- Leo** Aurten, lasaitu, paseatu, itzulpenak ditut eta horiekin biziko naiz..., eta ikasi. Datorren kurtsoan, Unibertsitatera!! A! Eta bidaiatu! Udan, hilabete behintzat, irailean edo, norabait..., Greziara!!!
- Koldo** (*Barrez*) Zuk harrapatu duzu zuk...
- Leo** Ez, ez, ez, Koldo, maitea. Zazpi ‘Goya’ edan ditut, baina etxera joan direnak baino askoz argitsuago nago ni. Sekula baino argitsuago... Ai! Erregaloo...! Ea zer den... (*Irekitzen du*) Ai...! Zer gauza polita...! Ez dut bitxirik baina... zer polita...! Aiba! Eta hau...? ‘Lixibi’rentzat. Zer da ‘lixibi’...? Koldoren ideia, seguru...! (*Miriami*) Eta hau...? Noiz egin didazu hau...? Ez didazu inoiz erakutsi...
- Miriam** A...! Sorpresa...!
- Leo** ‘Lixibi!’ Zer izen... Seguru Koldok jarri didala...

Koldo E...! Nik...? Nik ez e... nik ez...

Leo Berdin dio...! Berdin zait...! Gainera, kariñosoa da. (*Koldori*)
Bainua sikatu duzu...?

Koldo Nik beti... Bai... sikatu dut.

Leo Lagunak...?

Koldo Lagunak.

(*Denak isilik*)

Miriam Ostias! Laurak...! Ni banoa lotara...! Bihar, bederatzietan panaderian egon behar dut... Gabon!

Leo Miriam...!

Miriam Zer...?

Leo Bihar libre zaude...? Gauean...?

Miriam Bihar...? Hum... barikua... bai, libre nago. Zer ba...?

Leo Eta zuek...?

Koldo Ni bai.

Xabi Nik..., beno, libratu ahal dut...

Leo Afaltzera gonbidatzen zaituztet...

Koldo Uau!! Bale!! (*Komunerantz*)

(*Xabi eta Leo bakarrik, mahaian*).

Leo Zer ondo pasatu dudan gaur... Bat-batean, dena, den-dena ikusi dut argi eta garbi... nire moskeo guztiak lanean eta hemen, etxean..., nire inbidiak..., zeloak... Bai! Zeloak!! Koldo eta Miriam, horren desordenatuak izanda, zoriontsu direlako... Puf! Dena baina, dena garbi-garbi. Azkenean, eskerrak eman beharko dizkiot ikuskatzaileari...

Xabi Seguru zaude egin duzunarekin...?

Leo Erabat. Zu hemen, nire aurrean zauden bezain ziur.

Xabi Orain ezingo duzu etxerik erosi...

Leo Eta lehen bai ala...? Gainera, oraindik gaztea naiz...! Denbora dago...! Nork daki ba... Ikasi duzu...?

Xabi Ba!

Leo Zer da ba? Bai ala ez...?

Xabi Bai. Ikasi dut, gero...

Leo Noiz dira oposaketak...?

Xabi Datorren barikuan...

Leo Uuuu! Gainean...! Laguntzarik nahi baduzu...

Xabi Zuk, zer egin behar duzu datorren urtean...?

Leo Esan dizut. Tripa jo eta ikasi.

Xabi Ez baina, hemen biziko zara...?

Leo Ai! Ostias! Eskerrak esan didazun... Jabeak deitu du gaur... Ea zer egin behar dugun pisuarekin... Esan diot hitz egin behar dugula...

Xabi Ni... geratuko nintzateke... Zuk, zuek zer egin behar duzue?
(Miriam agertzen da, pijama jantzita)

Miriam Ai! Ia-ia ahaztu zait! Jabeak deitu du lehen...

Leo Zuri ere bai...?

Miriam Ea zer egin behar dugun pisuarekin...

Xabi Nik, ez dakit...

Miriam Koldok dio ea zer egin behar duzuen...

Leo Guk...? Eta berak zer egin behar du ba...? Hori da hori, potrohandia...!

Miriam Ez dakit..., ni geratuko nintzateke... Koldoren sozioak lokal bat lortu du, bere aitarena edo..., eta almatzen moduan erabiliko dute...

Leo Aleluya! Liburuak fuera!!

Miriam Eta handia denez..., ba estudioa montatu dezaket bertan... Leiho handi bat dauka eta.

Leo Orduan, kuadrarik ere ez...? 'No me lo puedo creer'....

Miriam Beraz..., ni, beno, Koldo eta biok, prest gaude bertan jarraitzeko...

Leo Beno, orduan probatu egin beharko dut jende berarekin urte bi jarraian bizitzea...

Miriam Orduan baietz esango diot...? Geratu egingo garela, ez da...?

Xabi Nigatik bai.

Leo Bale.

Miriam Gabon!

Xabi Azken batean, ez gara hain gaizki konpontzen, ez...?

Leo Leku-arazo txikitxo batzuk kenduta,... ezin hobeto...!

Xabi A! Ez dakizu zer lortu dudan merke-merke...?

Leo Zer...?

Xabi Argazkiak errebelatzeko ekipoa. Bihar ekarriko dut...

Leo Baina non sartzeko...?

Xabi Nire gelan...

Leo Eta non lo egingo duzu?

Xabi (*Barrez*) Trankil. Dena dago kalkulatuta. Begira, zure armairu gainean, tokia dago. Nire neguko arropak eta apunteak han uzten baditugu, armairu erdia libratuko dut.

Leo Zoratuta zagoz...? Nola sartuko duzu errebelatzeko ekipoa armairu batean...?

Xabi Probisional da bakarrik. (*Keinua eginez belarrira hitz egin*) Gero, Koldoren almazena daukagu trasteak gordetzeko.

(*Koldo dator, pijama hutsik*)

Koldo A! Lehen ahaztu egin zait...! Bost urtetan ikusi ez ditudan lagun batzuek hots egin didate ea asteburua pasatzeko lekurik daukagun etxean...

- Leo** Eta zer esan diezu...?
- Koldo** Ba nik... nik ba... badakit askorik ez dagoela baina ba..., baietz, baietz esan diet. (*Arin hitz eginez*) Etzi goizean etorriko dira. (*Alde egiten du logelara*)
- Leo** Koldo! Koldo!!
- Xabi** Utz ezazu. Total, berdin dio...! Jendea ezagutuko dugu... artistak, kamareroak, irakasleak, liburu saltzaileak eta orain, ‘sorpresa, sorpresa ikaragarria zuekin. Ez galdu, hurrengo asteburua!’ Azken batean nik, pentsatzen dut, lekua, lekua, ez dela arazoa...
- Leo** Etengabe norberaren lagun bihurtu behar duen etsai demontrea baino..., ez da...? Goazen lotara...!
- Xabi** (*Argia itzaliz*) Zer da ‘demontrea’, Leo...?
- Leo** Ai, Xabi...!
- (*Lauren ‘gabon’ agur desberdinak entzuten dira. Eszenatokia ilundu egiten da*)

MARITXU, NORA ZOAZ?

8. mailako ikasleak,
Josu Urrestillaren ardurapean
Komedia
Maria eta Jose ikastetxea
Zumaia
1992-93

GAIA

Mutil talde bati ezkontzeko garaia heltzen zaio. Neskekin harremanak izateko lotsatiegiak direnez, kondaira baten esanak jarraitzea erabakitzen dute. Kondairak dioenez, *Maritxu nora zoaz* abestia oso lagungarria gertatzen omen da; hala ere, batzuek nahikoa zailtasun izaten dute.

PERTSONAIAK

Bartolo	Arritxu
Manolo	Axintxi
Mariano	Mirentxu
Xerapio	Maritxu
1. amona	Zepelino
2. amona	Pako
Iñaxi	Lalo
Marixa	

Kontalaria

Euskal Herrian kondaira zahar asko ditugu eta, gainera, era desberdin askotakoak. Herriko zaharrenek diotenez, kondaira hauetako bat ezkontzari buruzkoa da. Beronek dioenez, andregai bila zebiltzan mutilzaharrak, gogoko zituzten neskei beren maitasuna agertzeko hitzik gabe geratzen zirenean, abesti batez baliatzen omen ziren. Abesti honekin lortzen zituzten erantzunak beti nahi bezain onak ez baziren ere, askotan oso lagungarria izaten omen zen.

Bartolo izeneko batek, ordea, abesti eta guzti ere, nahikoa zailtasun izan zituen.

1. EKITALDIA

- Kontalaria** Bartolo, Manolo, Mariano eta Xerapio mutilzahartzen hasiak dira eta hizketan daude zelai batetan.
- Bartolo** Mendi buelta ederra egin ondoren, otarteko eder bat! Hau duk bizimodua gurea!
- Manolo** Bai, gizona! Eta gainera ardo xarraxtada batez lagundurik, oraindik hobea.
- Mariano** Zuek daukazue aurpegia! Mendi buelta esan duzue? Zenbat ibili zarete ba?
- Xerapio** Egia duk! Etxetik atera garenetik ez dituk hamar minutu ere pasa eta herritik zelai honetara dagoen aldapatxoa igo besterik ez diagu egin eta!
- Bartolo** Bazekiat, baina sekula santan pauso bat ere ematen ez duen batentzat, nahikoa duk.
- Manolo** Bai, gizona, bai. Bueno, bueno... guk hobe izango diagu ekarri ditugun otartekoak janez botila ardoa hartzea.
- (Ardoari xurrut egiten hasten dira eta, otartekoak jaten dituzten bitartean)*
- Xerapio** Hau duk bizimodua gurea. Amari otartekoa prestatzeko esan eta, bost minutu baino lehenago... bai ederra prestatu ere!
- Manolo** Guk beti horrela bizi behar geniake. Golpe zorririk jo gabe, tripa ondo beteta.
- Mariano** Bai, gizona! Baina ni dagoeneko pentsatzen hasia nauk zerbait makinatzen hasi beharrean garela.

- Bartolo** Zerbait pentsatu? Zertarako? Orain ederki bizi gaituk eta gauzak horrela jarraitzen duten bitartean... zertarako pentsatzen nekatu, motel?
- Xerapio** Hori duk! Pentsatu eta lanik egin gabe bizi garen bezala bizi bagaituk... nahi dugunean lo, nahi dugunean jan, nahi dugunean paseatu... Lan piska bat egin ondoren ez lukek erraza izango gu asetzea.
- Mariano** Horregatik esan diat ba lehen zerbait pentsatzen hasi beharko dugula.
- Manolo** Ez diat ezer ulertzen. Jakin al daiteke zer esan nahi duan?
- Mariano** Bai motel! Orain, gurasoak bizi diren bitartean, bapo bizi gaituk. Baina, galtzen ditugunean... zer egin behar dugu?
- Manolo** Alde horretatik nik ez zeukaat arazorik.
- Bartolo** Ez daukaala arazorik? Andregairen bat bilatu al duk ba?
- Manolo** Baita zera ere! Nire ama, gaztetan pasa zuen gaixotasun baten ondorioz, elbarri gelditu zuan. Eta gaixotasuna dela eta ez dela kalera ezin denez atera, nola galdu behar diat ba?
- Mariano** Galdu esan dudanean, hil esan nahi nian. Astakiloa!
- Manolo** Ez duk horrela jartzekoa. Edonork uler zezakek gaizki zerbait.
- Mariano** Esaten ari nintzen bezala, gurasoak falta zaizkigunean zer egin behar dugu? Nork prestatu behar dizkigu arropak? Nork plantxatu? Nork janaria prestatu? Azken finean, nork mantendu? (*Azken hau ozenki esaten du*)
- Bartolo** Arrazoi duk. Oraindaino ez nian horrelakorik pentsatu.

- Xerapio** Eta... Zer egin genezake orain arterainoko bizimoduarekin jarraitzeko?
- Mariano** Baaa, erraza duk; dagoeneko urtetan aurrera sartuak gaituk eta neskazarren bat bilatzeko garaia ere badiagu. Oraindik begi onekoak gaudek eta ez litzaigukek zailegia gertatuko.
- Manolo** Zaila gertatu, hiri ez zekiat, baina niri... Normalki lagunartetik kanpo hitz egitea kosta egiten bazait, ez nauk gai neska baten aurrean ezer esateko: gorritu egiten nauk, hankak dardar batean jartzen zaikidak, ilea erortzen hasten zaidak eta mingaina ere estomaguraino bueltatzen zaidak. Hitz gutxitan esanda: desastre bat nauk!
- Bartolo** Hau duk panorama hirea? Hik pasatu behar dituk goseak zahartzaroan? (*Azken hau Manolori iseka eginez esaten du*)
- Xerapio** Hi lasai egon hadi! Guri ere beste horrenbeste gertatzen zaiguk. Baina honen konponbidea badiat nik.
- Bartolo** Konponbidea hik? Komunera joateko ere amaren beharra duk eta zer konpondu behar duk ba hik? Egon hadi isilik!
- Xerapio** Oraingoan gutxienez nitaz fidatu zaitezte.
- Mariano** Zer egin genezake ba?
- Xerapio** Ez al duzue sekula entzun neskatan egiteko abestiaren istorioa?
- Mariano** Honek onenak eman ditik! Zertaz ari haiz orain?
- Xerapio** Dakizuen bezala, Euskal Herrian kondaira zahar asko zeuzkaagu. Ba horietako bat guk dugun arazoaz duk. Leiendaren oinarria abesti bat duk eta bazirudik gure arbaso lotsatiek ere abesti horretaz baliatzen zirela andregai bilatzeko.

- Manolo** Ez diat ezer ulertzen.
- Xerapio** Neska bati amodioa hitzez agertu beharrean, abestuz agertzea duk kontua.
- Bartolo** Abestuz deklaratu?
- Xerapio** Bai, gizona, gogoko duan neskari abestu ondoren erantzuna jasotzen baduk, San Balentin ere langabeziara joateko arriskuan egongo lukek.
- Bartolo** Eta zein da abesti xeble hori?
- Xerapio** Hor zegok arazoa. Nire jakinduriak ez dik horrenbesterako ematen eta kondairak nola jarraitzen duen ideiarik ere ez zeukaat.
- Manolo** Ba orduan... Oraintxe egin dik gureak. Zer egin genezake?
- (Horrela dauden bitartean antzokiaren alde batetik bi amona zahar ateratzen dira. Basoko iturritik datoz...)*
- Bartolo** Eta hauei galdetzen badiegu? Zaharrak dituk eta behar bada zerbait jakingo diate.
- Xerapio** Ederra ideia. Horixe egingo diagu.
- Kontalaria** Bi amonak ere neskazaharrak dira eta ezkontzeko irrika bizian daude. Gazteek geldiarazten dituztenean, amona zaharrak berauekin enamoraturik gelditzen dira.
- Bartolo** Andereño agurgarriok, arratsaldeon, arratsalde on bat izan dezazuela!

- 1. amona** Arratsaldeon! (*Bartolorekin txoraturik*) Baina errespetu tonu horrekin ez mintzatu guri. Gu oraindik gaztetxoak gara horrela tratatzeko. Bestalde, oraindik ezkontzeko garaian gaude. (2. *amonari begira*) Zer esaten dinat beti, oraindik ikusten nagon gure bizitzak ezkonduzik bukatu behar ditugula.
- 2. amona** Bai neska! Izan ere oraindik lirainak gauden!
- Mariano** Ezkondu hadi ba hauekin! Gaixotasuna baino okerragoa sendagaia!
- Manolo** Egia duk! Dituzten urteekin, ezkonbidaia egin baino lehenago hauek beste mundura joan eta gu berriro hasieran bezala geldituko gaituk.
- 2. amona** (*Oso haserre*) Zer esan duk? (*Jotzeko itxura egiten du*)
- Bartolo** Ez kasurik egin.
- 1. amona** Zer jakin nahi zenuten ba? (*Oso maitekiro*)
- Bartolo** Ba, begira. Hizketan egon gara eta ezkontzeko garaia heldu zaigula ohartu gara. Baina, nahiko lotsatiak garenez, neskekin mintzatzen ez gara ausartzen.
- Xerapio** (*Bartolori moztuz*) Eta badakizu... hitz egiten ez duenak... nola bilatu andregai?
- 2. amona** Ez dago arazorik. Zenbat zarete? Bat, bi, hiru eta lau. (*Banan bana zenbatzen ditu*) Gu bi gara, baina baditugu gure antzeko beste bi lagun ere. Itxoin, itxoin... Inaxi, Marixa, etor zaitezte! Azkarrrr! (*Beste bi amona zahar agertzen dira*)
- Inaxi** Zer nahi duzue? Gibela galdu beharrean etorri naiz. (*Mutilak ikustean bere burua apaintzen hasten da*)

- Marixa** Hauek ditun morroxkoak! Bizitza guztian horrelako mutilen baten zain egon naun.
- 1. amona** Hauekin ezkontzeko prest?
- Marixa** Non, noiz eta nola? Esan eguna eta ordua eta ni behintzat han egongo naiz nire morroxkoaren zain. (*Azken hau emozio handiz esaten du*)
- Manolo** Egia esan... gure asmoa zera zen...
- Maria** (*Berak nahi duena ulertzen du*) Ez da ba ezkondu gabe elkarrekin bizitzen jartzea izango. Ba jakizu gu oso elizkoiak garela eta horrelako gauzarik burutik pasa ere ez zaigula egiten. ‘¡Faltaría más!’
- 2. amona** Ongi esana. Bai jauna!
- Manolo** Nik esan nahi nuena zen... zuek baino gaztetxoagoen bila gabiltzala.
- 1. amona** Gaztetxoagoak...? Gu baino gaztetxoagoak? Zoazte antzarrak perratzera. (*Besteei begiratzuz*) Goazen iturrirantz, bestela lau hauek txiki-txiki eginda utziko ditinat eta. Lotsagabeak! Gaztetxoagoak? (*Azken hau mutilei begiratzuz esaten du*)
- (*Lau amonak herrirantz abiatzen dira, baina Inaxi, aitzakia bat bilatu eta atzean gelditzen da*)
- Inaxi** (*Manolori begiratzuz*) Ni atso zahar horiek baino gazteagoa naiz. Nahi al duzu asuntua hobeto pentsatzea? Garbi izan zoriontsu egingo zaitudala.
- Mariano** Guk gauza bat jakin nahi dugu bakar-bakarrik.
- Inaxi** Zer? Galdetu, galdetu.

- Bartolo** Euskal Herriko kondaira zahar batez...
- Inaxi** Kondaira bat?
- Bartolo** Bai. Andregaia bilatzen laguntzen duen abesti bat ba omen dela entzun dugu. Zuk horretaz zerbait jakingo bazenu.
- Inaxi** Kondaira? Andregaia? Abestia?
- (Amonak gazteok eroturik daudela pentsatzen du eta beldurtzen hasten da. Ahal den azkarren alde egiteko, gezurretan)*
- Inaxi** Egia da, kondairak dioenez ‘Maritxu nora zoaz’ abestia neskatan egiteko aproposa omen da.
- Xerapio** ‘Maritxu nora zoaz’ abestia?
- Inaxi** Bai, badakizu *(Oso urduri eta gezurra ezin asmatuz)* Zuk zera abestu behar duzu: ‘Maritxu nora zoaz, eder galant hori’, eta berak ‘Iturrira Bartolo, nahi baduzu etorri’ erantzuten badu, ezkondu egingo zaretela dio kondairak.
- Mariano** Hori al zen guztia?
- Inaxi** Bai, bai, bai, horixe, horixe *(Oso beldurturik)* Bueno... besterik behar ez baduzue, besteengana joango naiz. *(Korrika alde egiten du)*
- Mariano** Orduan... Hori duk kondairak esaten duena? Goazen herri aldera eta pentsatuko diagu zerbait.
- Manolo** Iturri eder horretatik xurrut bana egin beharko diagu behintzat?
- Xerapio** Goazen ba. Ur garbiak burua argitzen omen dik.

(Lauak antzeztokitik ateratzen dira. Beste aldetik lau neska agertzen dira)

- Kontalaria** Hemen dira Maritxu, Arritxu, Axintxi eta Mirentxu. Kontu kontari doaz mendiko iturrirantz eta bidean atsedenaldira bat egiten gelditzen dira.
- Arritxu** Hau ere gogorra dun gero? Etxean bost gizonezko eta ur bila ere nik joan behar.
- Axintxi** Bai neska. Goizean goiz jaiki, etxea garbitu, janaria prestatu, abereak gobernatu, plantxa egin, arropak konpondu eta herriaren erdi-erditik... ur bila iturriraino etorri behar.
- Mirentxu** Lasai, emakumeok. Laister etorriko zaigun ezkontzeko garaia eta.
- Maritxu** Gu ezkondu? Norbait gerturatzen bazaigu izan beharko din. Eta egia esan... herri honetan dagoen kirten pilarekin ez zekinat ez ote genukeen hobe izango neskazahar geratzea?
- Arritxu** Neskazahar? Ezta pentsatu ere! Niri berdin zaidan kirtena, txotxoloa edo astakiloa! Gizaseme ederra den bitartean. Badakin, hoberik ezean...
- Maritxu** Ba ni astakilo hauekin nazkaturik nagon eta hauetako batek nirekin ezkondu nahi badu... bota beharko din izerdi piska bat. Bai horixe.
- Arritxu** Hik nahi dunana egin, baina denbora galtzerik ez dugunez, ni lehenengoarekin ezkonduko naun.
- Mirentxu** Herrian bazegon batere gaizki ez dagoen laukote bat. Haiek harrapatuko bagenitu!
- Maritxu** Laukotea? Nor ditugu ba horiek?

- Mirentxu** Ez ba jakin hik! Manolo, Mariano, Xerapio eta Bartolo.
(*Azken hau oso ozen esaten dio*)
- Arritxu** Nire Mariano harrapatuko banu... ez nioken berehalakoan alde egiten utziko!
- Axintxi** Eta nik Manolito harrapatuko banu...
- Mirentxu** Ba Xerapio ere begi onekoa zegon.
- Maritxu** Ba... Bartolok nirekin zerbait nahi badu, astakeriak utzi eta orijinaltasun piska batekin eskatu beharko zidan nirekin ezkontzeko.

(*Horrela hitz egiten dauden bitartean, antzektokiaren beste aldetik lau morroskoak sartzen dira eta, neskak ikustean, geratu eta beraien artean hizketan hasten dira*)
- Xerapio** Ikusten al dituzue horiek? (*Bere lagunengana zuzenduz*)
- Manolo** Hona hemen gure solterotzaren konponbidea!
- Bartolo** Horrelako ondo bizi gaituk eta, orain arazo bila hasi behar ote dugu ba?
- Mariano** (*Bartolori zuzenduz*) Badakik, gaurko lana biharko jana.
- Manolo** Benga, benga. Nor hasiko da abestiarekin?
- Xerapio** Nik andregai bilatzeko gogo handia dudanez, neu hasiko nauk.
- Hirurak** Hor konpon Mari Antton, heuk ikusiko duk zer egiten duan.
- Xerapio** (*Abestuz*) Mirentxu nora zoaz, eder galant hori?
- Mirentxu** Iturrira Xerapio, nahi baduzu etorri (*Xerapioarengana gerturatz eta besotik helduz*)

- Xerapio** Iturrian zer dago?
- Mirentxu** Ardotxo txuria. Biok edango dugu nahi dugun guztia. (*Besotik heldurik antzeztokitik ateratzen dira*)
- Manolo** Ikusi al duzue hori?
- Mariano** Jesus, Maria eta Jose. Egia zuan kondairaren historia hura. Orain nik egingo diat proba.
- Bartolo** Lasai motel, ni zaharragoa nauk eta niri tokatzen zaidak aurrena. Gainera, momentu txar hauek zenbat eta lehenago pasa, hobe. (*Prestatu ondoren, abesten hasten da*) Maritxu nora zoaz, eder galant hori?
- Maritxu** Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora naramate eta ez dakit nora (*Abestuz trufa egin ondoren, Maritxu kanpora ateratzen da*)
- Arritxu** Hau zoratu egin zaigun! Ez dauka ba brometan ibiltzeko adinik. (*Hau esan ondoren, Maritxuren atzetik joaten da eta Axintxi bakarrik gelditzen da*)
- Bartolo** Kondairak balio duela? Batzuentzat izan beharko. Ni banoak hemendik, amak behintzat ez naik pikutara bidaliko eta.
- Mariano** Lasai Bartolo, behar bada sentimentu gehiagoz abestu beharko hioke. (*Bartoloren atzetik ateratzen da. Axintxi eta Manolo bakarrik gelditzen dira*)
- Axintxi** Ba, hemen... biok bakarrik gelditzen gara, Manolotxo.
- Manolo** Hau duk nirea! Oraintxe saiatu beharko diat! (*Prestatu ondoren, abesten hasten da*) Axintxi nora zoaz, eder galant hori?
- Axintxi** Iturrira Manolo, nahi baduzu etorri.

- Manolo** Iturrian zer dago?
- Axintxi** Ardotxo txuria. Biok edango dugu nahi dugun guztia.
(*Manolori besotik heltzen dio*)
- Manolo** (*Poz handiz*) Aupi! Asmatu diat eta, hemendik aurrera, bapo bizitzera.
- Axintxi** Goazen, goazen! Baina... bapo bizitze hori... ikusiko dugu.
- Manolo** Bai, gu konpondu gara, baina Bartolo eta Mariano gixajoak, begiratu... Oraindik bakarrik gelditzen dira.
- Axintxi** Bai, gauza bera gertatzen zaie Mirentxu eta Arritxuri ere. Zer egin genezake?
- Manolo** (*Pentsatzen egon ondoren*) Gaur arratsaldean hemen erromeria dago, ez da?
- Axintxi** Bai jauna! Zergatik galdetzen duzu hori?
- Manolo** Zuk zure lagunak ekartzen badituzu eta nik nireak. Behar bada...
- Axintxi** Bai, saia gaitezke. Baina zuk Bartolorengatik zerbait gehiago egin behar duzu.
- Manolo** Bai, emakumea. Zer nahi duzu egitea?
- Axintxi** Nik Maritxu ezagutzen dut eta badakit edozein abestirekin ez dela konformatuko. Beraz, esan Bartolori zertxobait orijinalagoa abesteko.
- Manolo** Zu lasai. Hori utzi nire esku.
- Axintxi** Bueno, Manolotxo, goazen iturrirantz! (*Oso maitekiro sudurretik helduz*)

2. EKITALDIA

(Biek alde egiten dute eta, hauek atera bezain laster, Xerapio sartzen da)

Xerapio Andregai batek bizimodua horrela aldatu zezakeenik ez nian berehalakoan pentsatuko. Hau duk bizimodua! Neska ez duk politegia, baina dena atentzioak dituk: Nahi al duzu hau? Nahi al duzu hura? Gogoko al duzu horrela? Eta beste era honetara? Gainera, Mirentxuren mesedeak ederrak badituk ere, bere ama ere ez duk atzean geratzen. Bere etxera joaten naizen bakoitzean ez ardorik ez gaztarik ez duk falta izaten. Hau duk loteria tokatu zaidana! Andregaia, bere ama eta nire amatxoren artean bizimodua konpondua diat.

(Honela ari den bitartean, gizon bat sartzen da. Zepelino du izena)

Zepelino Bai gustura habilela! Zer, loteria tokatu al zaik?

Xerapio Loteria? Hori baino hobe! Andregaia bilatu diat.

Zepelino Hori al duk guztia? Laster motxanduko haiz!

Xerapio Motxandu? Baita zera ere, bizimodua konpondua diat eta.

Zepelino Lasai, mutil. Beti berdin gertatzen duk. Hasieran denak ogi pusketa baino hobeak izaten dituk, baina laster hasten dituk arazoak: Ekarri al duzu ogia? Haurrari fardela aldatu al diozu? Ontziak garbitu al dituzu... Hau da, agindua aginduaren gainean.

Xerapio Zer? Horixe bakarrik falta zaidak! Jateko lanik ez egitearren andregaia bilatu eta... etxeko lanak egin beharra izatea. *(Pentsati gelditzen da)* Ba lasai, gizona, horrelakorik gertatuz gero, konponbideren bat asmatuko diat.

- Zepelino** Bai, bai! Ez dakik non sartu haizen. Hi, eta zer egiten diate hire lagunek?
- Xerapio** Manolo ere hor zebilek beste neska baten gonon atzetik. Bartolo eta Mariano berriz saiatu dituk, baina fruiturik ez ditek jaso.
- Zepelino** Orain pena izango diate, baina ikusiko duk denborarekin nola ez duten penarik izango. Badakik... gaurko pena biharko poza.
- Xerapio** Hik nahi duana esan, baina... beste esaera ere ezagutzen duk: 'Ez ezazu biharko utzi gaur egin dezakezuna'. Dena den, orain hemen erronomia zegok eta ea zerbait lortzen duten.
- Zepelino** Entzuten al duk hori? Musika duk! Bazetozak trikitilariak eta une batetik bestera hasiko duk gaurko erronomia.
- Xerapio** Ba... Bartolo eta Marianok oraingoan ezer ez badute lortzen, mutilzahar ederrak geldituko dituk.
- (Trikitilariak sartzen dira eta beraien atzetik dantzari guztiak. Trikitixa bat jotzen dute eta ondoren Bartolo, Manolo eta Mariano sartzen dira. Festa giroa dago: trikiti musika, dantzariak... Pieza bukatutakoan atsedean bat hartzen dute eta, beste dantzariak etxe ingurura jotzen duten bitartean, gure lau lagunek aurreko aldera egiten dute)*
- Xerapio** *(Bartolo eta Marianori)* Oraingoan saiatu beharko zarete, ez?
- Manolo** Bai horixe! Gainera ambientea ere zuen alde daukazue. Hemen dagoen giroarekin laister dituzue bi neskatxo horiek zuen oinetara eroriak. *(Erdi trufatuz)*
- Bartolo** Ez gero nitaz trufatu! Ikusiko diagu zer gertatzen den.

- Mariano** Ez zekiat hi saiatuko haizen, baina ni... baita osasuna galdu behar badut ere, andregaiia nireganatzen saiatuko nauk.
- Xerapio** *(Bartolori)* Badakik Maritxu nahiko berezia dela eta, hire abestia orijinaltasun piska batez ez baduk abesten, ez zekiat ondorio onik aterako duan.
- Bartolo** Lelokeriak! Hiri balio izan badik, niri zergatik ez zidak ba balio behar!
- Xerapio** Hik ikusi. Nik jakinaren gainean jarri haut.
- (Horrela hitz egiten ari diren bitartean, Maritxu, Arritxu, Mirentxu eta Axintxi erromeriara heltzen dira. Hauek ikustean, Xerapiok eta Manolok beraiengana jotzen dute; ondoren, besteekin nahasten dira. Maritxu eta Arritxu alde batean gelditzen dira hizketan eta Bartolo eta Mariano bestean)*
- Mariano** Bartolo, hik nahi duana egin, baina ni neskatan saiatzera noak.
- Bartolo** Itxoin piskat! Utz iezadak lehenengo niri. Hik ere andregaiia nik baino lehenago bilatzea, besterik ez zaidak falta eta.
- Mariano** Nahi duan bezala. Baina azkar mugitu, bizitza motza duk eta.
- Bartolo** *(Oso lotsati, bi emakumeei gerturatzen zaie. Abestuz)* Maritxu nora zoaz, eder galant hori?
- Maritxu** *(Oso harro erantzuten dio)* Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora naramate eta ez dakit nora? *(Erantzun ondoren, jendearekin nahasten da)*

- Bartolo** Hau duk suertea nirea! Abestia besteei ondo zetorkiek, zergatik ez niri? Eta beste tuntun-puska hori erdi-erditik nitaz trufatzen. Itsasontzi baten? Nik jotzen badut, igerian ere joan beharko dik. (*Ondoren Marianorengana joaten da*) Ikusi al duk hori?
- Mariano** Hi lasai, zerbait gaizki egingo huen. Nahi baduk saiatu haiteke berriro. Ni ere aproba egiteko irrikatzen nagok, baina hire desesperantza ikusirik, piska bat gehiago zain egon naitekeela uste diat.
- Bartolo** Berriro saiatu? Nire zain badago, bizar ederra atera behar zaiok.
- Mariano** Heuk ikusi! Hor konpon! Hik ez baduk nahi, ni saiatzera noak.
- Bartolo** Ez alferrik! Hik ere pote ederra hartu behar duk. Damutuko zaik!
- Mariano** (*Arritxurengana zuzendu eta abesten hasten da*) Arritxu nora zoaz, eder galant hori?
- Arritxu** Iturrira Mariano, nahi baduzu etorri.
- Mariano** Iturrian zer dago?
- Arritxu** Ardotxo txuria. Biok edango dugu nahi dugun guztia.
- (*Besotik heldu eta kalejiran sartzen dira. Bartolo txoko batean bakarrik gelditzen da eta, txaranga bukatutakoan, beste guztiek alde egiten dute*)
- Bartolo** Niri bai horrelakoa tokatu! Besteek lehenengoan erantzun egokia jaso diate eta nik, berriz, bi aldiz saiatu eta ezer ez. Madarikatua neskazahar horretan fijatu nintzen eguna. Bera aukeratu nuenean hobe nuen ohean gelditu banintz. Mari Matraka! (*Oso haserre*)

(Horrela ari den bitartean, Maritxu beste aldetik ateratzen da)

Maritxu Zer egiten duzu hemen? Besteekin joan zinela uste nuen.

Bartolo Ba ez, ni horrelako orijinala naiz. *(Trufa eginez)*

Maritxu Ez da horrenbesterako, Bartolotxo. *(Leptik heltzen hasten da)*

Bartolo Ezta ukitu ere! Mari Sorgin! Besteen aurrean pikutara bidali eta orain, bakarrik gaudenean, Bartolotxo? Honek jotzen zidak niri arpa!

Maritxu Ez zaitez horrela jarri. Ni neska berezia eta orijinala banaiz, ez da nire errua. *(Oso emeki)*

Bartolo Eta ni horrelako kirten eta astakiloa banaiz ere, ez da nirea.

Maritxu Zu ez zara astakiloa!

Bartolo Zerbait ona behintzat badut.

Maritxu Baina... edertasuna eta sentsibilitatea falta zaizkizu. Edertasunarena barka daiteke, baina bestea...

Bartolo Erdi-erditik hori! Orijinaltasun falta gutxi baldin bazen... orain berriz sentsibilitate falta. Maritxu, Maritxu... argi ibili zaitez... bestela...

Maritxu Bestela zer? Begira, dardarka nago. *(Oso harro)*

(Horrela dauden bitartean, bi gazte sartzen dira. Oso modernoak dira eta kalejiratik nekaturik datoz. Pako eta Lalo dira)

Pako A zer giroa zegoan erromeria horretan!

- Lalo** Hala duk, bai. Ni erabat nekaturik nagok, baina merezi zian.
(*Azken hau 'rap' martxarekin esaten du*)
- Pako** (*Bartolo eta Maritxu ikustean*) Kaixo tronko! Zer, piperturik?
(*Pasota itxuraz*)
- Bartolo** Horixe bakarrik falta zaigu! Orain hi bezalako labezomorro bat ere adar joka hastea!
- Lalo** Hau kaka-erreta zegok! Zer, arazoak dituk? Laguntzarik behar baduk, gu laguntzeko prest gaudek.
- Maritxu** Hauen laguntza? Ni banoa, Bartolo. Lantxo batzuk egin beharra dauzkat eta geroxeago etorriko naiz berriro. Eta zerbait lortu nahi baduzu, badakizu zer egin.
- Bartolo** Gero arte bai, gero arte eta bidean galtzen bazara, hobe.
- Pako** Hau duk neska hau! Hau gurekin ederki konponduko lukek.
- Bartolo** Zuekin konpondu? Horixe bakarrik falta zaigu orain! Ni hemen tontoen moduan neskazahar hori ezin neureganaturik eta orain zuekin burrukan hastea!
- Lalo** Hori ez duk gure arazoa. Berak gurekin joatea aukeratzen badu... zer egin behar duk ba?
- Pako** Zer egingo du ba? Izorratu! (*Biek barre egiten dute*)
- Bartolo** Eta nik hortzak botatzen badizkizuet. Zer egin behar duzue?
(*Erremangatuz*)
- Lalo** Jesus, gizona! Ez da horrenbesterako!
- Pako** Ongi pentsatuta, gaurkoz mutil zintzoak izango gaituk.
(*Lalori*)

- Lalo** Hori duk. Lagundu egingo zioagu eta bitartean eguneko eginbehar ona egingo diagu.
- Bartolo** Zuek niri lagundu? Zuek zer dakizue ba bizitzaz?
- Lalo** Hik aproba egin.
- Pako** Zer gertatzen zaik? Zein duk arazoa?
- Bartolo** Ba, oraintxe ikusi duzuen neskazahar horren atzetik ero baten gisan nabilela.
- Pako** Ez al diate ba funtzionatzen hire pertsuasio metodoek? (*Burla eginez*)
- Bartolo** Zer egin behar duzue? Lagundu edo nitaz trufatu?
- Lalo** Lagundu, moteil. Jarraitu, jarraitu.
- Bartolo** Bazirudik neskak norberarekin enamoratzeko badagoela mirariak egiten dituen abesti bat. Nire lagunek abesti honen bidez aurkitu dituate andregaiak, baina nirekin ez dik funtzionatzen. Zergatik ote? Nik besteek egin duten guztia egin diat, baina neskazahar horri orijinaltasunak gustatzen zaizkionez, nirekin ez dik funtzionatzen.
- Lalo** Arazo larria duk hirea, e? Orijinaltasuna! Eta zein abesti duk ba mirari horiek egiten dituen?
- Bartolo** Maritxu nora zoaz.
- Lalo** Eta hik nola abesten hion abesti hori?
- Bartolo** Nola abestuko nioan ba. Normal, amak erakutsi zidan bezala.
- Pako** Listo! Bazekiat arazo hau nola konpondu!

- Bartolo** Esan ezak ba azkar!
- Pako** Begira, hik abestia doinu zaharrarekin abesten duk, bai?
- Bartolo** Oraintxe esan ez diat ba baietz?
- Pako** Baina Maritxuri orijinaltasunak gustatzen zaizkionez, abesti horrek hirekin miraririk ez dik egiten.
- Bartolo** Hau tontoa behintzat bada! Horixe esan ez diat ba neuk oraintxe?
- Lalo** Behar bada ez duk abestia failatzen duena. Erritmoa izango duk. Eta gauzak horrela badira, arazoa konponduta zeukaagu.
- Bartolo** Hitz gutxiago eta bota konponbidea.
- Pako** Ea, erreza duk!
- Bartolo** Izango ez duk ba! Horregatik nagok ni nagoen bezala!
- Pako** Abestia beste erritmo batekin abestu behar diok.
- Bartolo** Eta, zein erritmo duk hori?

(Biak belarrira gerturatu eta isilka esaten diote. Musika hasten da eta Bartolo abesten. Maritxu ere berarekin dago antzeztokian eta, erantzunak ongi ematen dizkionez, betiko Bartolorekin gelditzen da. Horrela eman zioten bere izena abestiari. Teloia itxi eta antzerkia bukatzen da)

MUSU BATEN BILA

Joxe Martin Urrutia
8. mailako ikasleek antzeztua
Tragikomedia
Kurutziaiga ikastola
Durango
1991-92

GAIA

Lehenengo musuaren bila dabilela mutiko bati gertatzen zaizkion abenturak.

PERTSONAIAK

Jon	Irakaslea
Ander	Katy
Joxemiel	Braulio
Aitor	Langa
Miren	Korner
Pili	Lur
Elena	Sorgina
Iker	Aurkezlea

Aurkezlea

Goizeko zazpi eta erdiak dira. Dena isilean dago. Giro hotza nabaritzen da eta oraindik eguzkiaren izpiak ez dira azaldu mendi gainetan. Goizero bezala, kaja erritmikoek apurtzen dute isiltasuna eta jendea esnatu.

Batzuek, ipurdian ostikada bat eman balitzaie bezala, ohetik salto egiten dute; hainbatek izarei ebatzen diete, izugarrizko amildegi batean zintzilikatuta egongo balira bezala. Baina beti dago norbait inguruan, oinen azpian lurra dagoela gogorazten.

Etxeko makinak martxan ipintzen dira; batzuek kafea edo esnea botatzen dute bere zainetatik eta beste batzuek ogi-xerra erreak.

Ez dago denborarik euliei begira egoteko edota ogi apurrak kafesne gainean nola mugitzen diren ikusteko; kaja erritmikoak orratzak mugitzen ditu etengabe; ez da inoiz aspertzen.

Inguratzen gaituzten hormek ezin gaituzte babestu kaleko zaratatik eta, lehen urrunean entzuten genituen zaratak, gero eta hurbilago sumatzen ditugu.

Urak laguntzen digu gauzak argiago ikusten; badirudi zineko akomodadorea dela eta, txirrina entzun ondoren, teloiak zabaltzen dizkigula, irudiak ikusi ahal izateko. Teloi!...a! Egia, teloia ... gaurko historia hastera doa.

(Eszenatokia hutsik dago. Izkina batean arbel bat. Mutiko bat agertzen da izugarritzko magnetofoi batekin; erdi lokartuta dagoela dirudi. Lurrean jartzen da eta katxarroa martxan ipintzen du: rap musika entzuten da. Berak ez dio jaramon handirik egiten eta erdian jarraitzen du eserita...

Handik gutxira, bi mutil sartzen dira hizketan, keinu handiak eginez. Badirudi futbolaz ari direla)

Jon Hartu baloia, aurrean zuen atzelariari 'kañete' bat egin eta, gehiago pentsatu gabe, demaseko ostikada eman baloiari eta...

Ander *(Izugarritzko saltoa emanaz)* Gol! Gol! Gol! *(Eta gela osoari bueltak ematen hasten da)*

Jon Keba, kanpora joan zuan!

- Ander** Beno baina, dudarik gabe, onena duk. Jode! Nola gustatuko litzaidakeen bera izatea!
- Jon** Beno, ez duk hainbesterako izango; gainera, nik uste diat hire ezkerria harena baino askoz hobe delarik.
- Ander** Hala uste duk?
- Jon** Noski! Ez didak sinesten?
- Ander** Bai, baina hi konturatuko haiz; entrenadore memelo horrek beti eskumatik jolasteko esaten baitzidak.
- Jon** (*Ander alde batera utziaz*) Joxemiel, esna hadi, gizona, oraindik bizirik hago eta!
- Joxemiel** Utz nazak bakean, ez zeukaat umore onik eta badakik, bi ordu pasa arte joan hadi hortik zehar ostikadak ematera.
- Jon** Lasai, Simpson! Dena delarik, ez diat ulertzen nola jasan dezakean musika hori jaiki orduko.
- Ander** Hori, hori, nik bost minutu zeramaat eta burua zeharo izorratuta zeukaat.
- Joxemiel** Musika hau ez banu entzungo ez nintzatekek altxatu ere egingo. Bestalde, ez zekiat konturatu zareten, baina burua gero eta borobilagoa duzue, futboleko baloiaren itxurakoa, joa, joa...
- Ander** Kontxo, esnatu duk.
- Jon** Bai, bazirudik baietz, eta lo hobeto dagoela esango niake.
- Joxemiel** Bale, bale, atsedenaldira bat, e?

- Ander** Konforme, horrek esan nahi dik ingleseko ariketak egin gabe dauzkaala, ez da?
- Joxemiel** Horrela duk!
- Jon** Ba nire buru borobilak ez dik ezer entzun, je, je, je...
- (Hau esan eta bikote bat sartzen da gelan. Hirurak begira gelditzen zaizkie, baina eurek, inori begiratu gabe, aurrera jarraitzen dute)*
- Jon** Egunon! Romeo eta Julieta!
- Aitor eta Miren** Egunon! *(Biak batera burua mugitu eta erantzunez)*
- Ander** Ezin diat ulertu nola egon daitezkeen bi pertsona hain ‘kolgatuta’. Alde guztietara elkarrekin joaten dituk. Eta egun guztia pasatzen diate bata bestearen aurpegira begira.
- Jon** Egia duk, ez diate ezer egiten bata bestea gabe.
- Joxemiel** Zuek biok bai artaburu pare! Munduan futboletik aparte bazeudek beste gauza batzuk!
- Jon eta Ander** Zeintzuk? *(Harridura keinu bat eginez)*
- Joxemiel** Neskak, adibidez.
- Ander** Eta zer egin dezakek neskekin. Aspergarriak dituk eta, beti euren gauzekin. Eta eurekin jolas egin nahi baduk, beti ‘rollo’ bera: ‘Huy, sois unos brutos!’
- Jon** Hori, hori!
- Joxemiel** Zuen buruak konponezinak dituk.

**Jon eta
Ander**

Bea, bea! (*Mespreziosko keinuak eginez*)

(Jon eta Ander euren rollora bueltatzen dira. Mirenek buelta eman eta Joxemieli zerbait esaten dio. Aitor begira gelditzen da)

Miren

Kaixo, Joxemieli!

Joxemieli

Kontxo, esnatu zarete?

Miren

Asteburu honetan entzun dugun talde baten zinta ekarri dugu. Ipiniko diguzu? (*Joxemielek zinta esku artean hartzen du*)

Joxemieli

Zer talde da?... Um... Zer? Hau ez dut ipiniko. Radiokaseta izorratu egingo litzateke!

Miren

Ez zaitetz burugogorra izan eta noizbehinka aldatu musika mota, beti berbera entzuten!

Joxemieli

Hara bestea, aldatu ezazu mutila, beti berberarekin, ez zaitetz burugogorra izan!

(Zinta eskutik kentzen dio eta Aitorrengana bueltatzen da. Bata besteari begira gelditzen dira lelo aurpegiarekin. Neska bi sartzen dira gelan eta, euren tokietarantz abiatzerakoan, Jonek baloia botatzen die)

Pili

‘Ya está bien!’ Majadero batzuek zarete! Kokoteraino nago zuekin!

(Elenak baloia jasotzen du lurretik. Bitartean Jonek eta Anderrek harridura aurpegia ipintzen dute, Joxemielek burua bisera azpian sartzen du eta Aitorrek eta Mirenek ez dute jaramonik egiten)

- Ander** Gu ez gara izan!
- Elena** Baina zuk zer uste duzu, gu martzianoak garela edo? Ba, pentsatu ondo, nik ez zaituztet gehiago aguantatzen eta benetan, ‘mobida’ honetaz gogoratu behar duzue puska batean!
- Jon** *(Ahotsa finduz)* Ziur naiz zuzendariarengana joango dela!
- Pili** Bai zera, martzianoek arma sofistikatuen bidez kontrola dezakete mundua; egin demostrazio bat, Elena.
- (Pilik, hau esatean, gelan dagoen jendearen atentzioa batzen du. Ondoren Elenak makutotik jostorraz bat ateratzen du eta, baloia zulatzeraz doanean... Iker sartzen da)*
- Pili** Zula ezan, Elena!
- Iker** Ez!
- (Denek buelta eman eta Ikerri begiratzen diote)*
- Elena** Zu isil zaitez, kontua ez doa zurekin eta...
- Jon** Bale, baina baloia nirea da.
- Pili** Berdin zaigu, zulatu ondoren, ordaindu dezatela.
- Jon** Bai zera, falta zitzaiguna!
- Miren** Neskek arrazoia dute, eskarmentu txiki bat behar dute.
- Elena eta Pili** Hori, hori.
- Ander** Julieta, isil zaitez, ez da zure arazoa *(Ahotsa altxatuz)*

- Aitor** Isil hadi heu, eta berriro ez deitu Julieta Mireni, bestela muturra berotuko diat. *(Tonua gehiago altxatuz)*
- Joxemiel** Beno, beno, zoratuta zaudete!
- Jon** Hi buelta hadi hire musikara eta hi, Romeo, has hadi.
- Pili** Isil zaitetz, baloia orain ez da inorena.
(Bronka izugarria da, musika ipinita dago eta badirudi momentu batetik bestera gelak eztanda egin behar duela. Giroa honela, irakaslea sartzen da)
- Irakaslea** Egunon, neska-mutilok!
(Inork ez dio jaramonik egiten)
- Irakaslea** Egunon esan dut!
(Erantzunik ez. Hirugarrenerako, birikak ongi bete eta izugarrizko egunona botatzen du)
- Irakaslea** Egunon!!!
- Jon** ‘Ostia pedrin’, irakaslea!
(Denek irakaslea dagoen tokira bueltatzen dituzte begiak eta, haren haserre aurpegia ikusirik, bakoitza bere tokian jartzen da)
- Irakaslea** Beno, gaur gai berri batekin hasiko gara.
- Ikasleak** Huh... *(Bajutxo)*
- Irakaslea** Baina jakin dezaket gaur zer demontre gosaldu duzuen? Esan dudan bezala, gai berri batekin hasiko gara gaur.

- Ikasleak** Huh, huh ... (*Baju berriro ere*)
- Irakaslea** Oi, oi, oi! Beno, norbaitek esango dit zer demontre gertatzen den!
- Joxemiel** Ba, beno, trimestrea oso luzea izan dela eta, beno ba, atsedenaldira bat behar genukeela, ez da?

(*Besteei begiratzen die, laguntza eskatuz*)
- Ikasleak** Hori, hori.
- Irakaslea** Beno, egia da eta ez zaizue arrazoirik falta. Baina badakizue ordu hau zerbaitetarako erabili beharko dugula. Zuen eskuetan lagatzen dut zertan erabili. Pentsa ezazue zer egin eta, ados jartzen zaretenean, abisatu.

(*Ikasleek bata besteari begiratzen diote eta irakasleari bueltatzen diote aukera, berak proposa dezan zer egin*)
- Irakaslea** Benetan 'la letxe' zarete, baina egia da ados jartzeko egun guztia beharko zenuketela ere. (*Momentu batean pentsakor gelditzen da*) Pentsa ezazue ni jeinu bat naizela eta zuen desioak bete ditzakedala. Jon, adibidez, zuk zer eskatuko zenidake?

(*Momentu horretan irakasleak jeinuaren postura hartzen du eta ikasleak irrifarre batekin begiratzen diote*)
- Jon** Nik, e ... bai, lehen mailako atezainik onena izatea.
- Irakaslea** Horrela izan dadila. Eta zuk, Elena?
- Elena** Nik astronauta izan eta ilargiaren azala zapaldu. Hori da, ilargiaren azala zapaldu.
- Irakaslea** Horrela izan dadila. Eta zuk, Iker?

(Iker gorri-gorri ipintzen da eta ez du erantzunik ematen)

Iker Ba... zera... gustatuko litzaidake... neska bati musu ematea.

(Hori esan eta izugarrizko algara sortzen da gelan)

Ander Musu bat, hori lelokeria! Hainbeste aukera edukita, musu bat!

Joxemiel Merkatuan dauden radiokasetekin!

Aitor Hori berehala lor daiteke, ez da Miren?

(Mirenek irrifar batekin erantzuten dio).

Pili Hori ez zait burutik pasa ere egiten, ez eta...

Jon Baina, 'kareto' horrekin nork emango dizu musu!

(Algara pil-pilean dagoenean eta irakaslea giroa baretzera doanean, jolasaldira irteteko kanpaiak jotzen du. Ikasleek gauzak dauden tokian lagatzen dituzte eta txistuaren pare irteten dira, ia bata bestearen gainetik. Gelan Iker eta irakaslea bakarrik gelditzen dira. Irakaslea Ikerrengana hurbiltzen da)

Irakaslea Horrela izan dadila. *(Eta gelatik irteten da)*

(Iker bere tokian gelditzen da, burumakur. Bere bizitza osoan esan duen astakeriarik handiena esan duelakoan, noski, besteen harrera entzunda.

Eszenatokian, poliki-poliki, argiak indarra galtzen du. Urrunean zarata batzuk entzuten dira. Badirudi erritmo jakin bat dutela. Eszenatokian hainbat figura beltz azaltzen dira. Batzuk perkusio tresnekin eta beste batzuk farola bat eta

banku batekin. Figurek bertso batzuk kantatzen dituzte eta, bukatutakoan, eszenatokian kokatzen dituzte tresnak. Bi figura bertan gelditzen dira. Tunika beltzak kentzen dituzte. Bata farolaren ondoan jartzen da eta bestea bankuan. Mugimendu hau bukatzen denean, Iker bere tokitik altxatzen da eta alde batetik bestera bueltak ematen hasten da. Pertsonaiak, bata puta da eta bestea mozkorra)

BERTSOA

Hori duk jakin-nahia
hori duk kasua
ezpainak zabaltzea
lehenengo pausua
baina herorrek behar duk
herorren maisua
orduan jakingo duk
zer den barne-sua
gaztetako musua
nolako musua

- Katy** Zer egiten du zu bezelako mutiko batek horrelako toki batean eta gainera ordu hauetan?
- Iker** Utz nazazu bakean, ni ez naiz zurekin sartu eta.
- Katy** Ene bada, zer nolako umore txarra duen mutiko honek!
- Iker** Baaa...!!!
- Katy** Zure begiek esaten didate zerbaiten bila zabiltzala, usaimenak ez dit inoiz kale egiten.
- Iker** Zer zara, igerlea ala? (*Puta begira gelditzen da*). Beno, duzun itxurarekin, igerlea ez bazara, ez zara urrun ibiliko.

- Katy** Ji, ji... eta bola zuri bat erabili beharrean farola hau erabiltzen dut etorkizuna ikusteko, ji, ji, ji.
- Iker** Ez adarrik jo, mesedez, nahikoa dut gaurko egunarekin... Mekatxis, eta dena musu bat nahi izateagatik!
- Katy** Hori erraz konpon daiteke; nahi baduzu nik emango dizut eta zure arazoa, konponduta.
- Iker** Bai zera, zu emakume bat zara eta ez neska bat.
- Katy** Baina neska naiz ala ez?
- Iker** Bai... ez nauzu ulertzen!... Eta gainera nor zara zu musuak hain erraz eskaintzeko?
- Katy** Ba beno, ez da oso zaila asmatzen, puta bat.
- Iker** Puta bat, errekoño, ni puta batekin hitz egiten. Nire ama enteratuko balitz, (*Lepoa ebakitzen dioten keinua eginez*) lepoa moztuko lidake.
- Katy** Ji, ji. Egia esanda, ez gaude oso ongi ikusita.
- Iker** Beno, ni ere ez naute begi onez begiratzen. Nola iritsi zinen... ba... hori... farol honen azpira?
- Katy** Oso istorio luzea da eta denbora gehiegi eramango lidake kontatzea. Eta gainera, uste dut arazoekin dabilena zeu zarela eta ez ni.
- Iker** Ba ez dakit konponbiderik duen. Dena dela, eskerrik asko entzuteagatik.
- Katy** Ez joan hain arin, mutikoa! Zure arazoa konpon dezakeen bat ezagutzen dut.

- Iker** Beste... (*Puta seinalatuz*)
- Katy** Ez, gure ondoan dago. Nahiz eta gehiegi edan, oso gizon jatorra eta jakintsua da. Eta gainera batzuetan gauza harrigarriak egiten ditu. Jende asko etortzen zaio laguntza eske. Zoaz berarengana.
- (*Katy eta Iker mozkorrengana hurbiltzen dira*)
- Katy** Braulio! Braulio! Esna zaitez, zure laguntza behar dugu.
- (*Brauliok ez du jaramonik egiten eta zurrunka jarraitzen du*)
- Iker** (*Aurpegi arraroa ipiniaz*) Zuk uste duzu berak lagun diezadakeela?
- Katy** Ez zenuke sinestuko zenbat jende etortzen den hona laguntza bila. (*Pentsakor gelditzen da*) Orain dela bi bat aste, mendizale bat agertu zen hemen Braulioren bila, bere lagun bat ez dakit nongo mendi batean galduta zegoela eta inork ezin zuela topatu. Eta Brauliorekin egon eta bi astera, hemen ziren mendizaleak berarentzako opari batekin.
- Iker** Ez pentsa ez naizela zurekin fidatzen, baina hau guztia oso arraroa da, ezin daiteke egia izan.
- (*Hau esan eta Braulio esnatu egiten da eta erdi lo...*)
- Braulio** Nork esan du nirekin ez dela fidatzen?
- (*Iker, beldurturik, Katy-ren atzean ipintzen da*)
- Katy** Gabon, Braulio, bisitatxo bat duzu!
- Braulio** Zu zara, Katy? Ez duzu zerbeza tragotxo bat edukiko, ez da?

- Katy** Ez, badakizu nik ez dudala edaten.
- (Katy-k hau esaten duen bitartean, Brauliok lokartzeko postura hartzen du)*
- Katy** Ez dakit entzun didazun, baina bisitari bat duzu eta uste dut entzun beharko zeniokeela.
- Braulio** O, o! *(Begiak igurtziz eta bere aho handia zabalduz)* Non dago arkakuso hori?
- (Katy-k ostikadatxo bat ematen dio Ikerri hurbil dadin)*
- Iker** Ejem, ejem, hemen nago!
- Braulio** O ez! Gazte bat! Zuen arazoak ia konponezinak dira!
- (Katy-k aurpegi arraroarekin begiratzen dio Brauliori. Ikerrek, etsita, buelta ematen du eta badoa)*
- Braulio** Lasai, gazte, ez dut esan konponezinak, ia konponezinak baizik. Katy, ez duzu edukiko zerbeza apurtxo bat, ez da?
- Katy** Ez! Eta zoaz harira.
- Braulio** Beno Iker, lasai, oraindik erdi lo nago eta burua zikinkeriaz beteta dut. Jar zaitez nire ondoan eta kontaidazu zer gertatzen zaizun.
- Katy** Aurrera, horrelako aukerak gutxi edukiko dituzu eta!
- Iker** *(Gogo txarrez jartzen da)* Bai, hori bera esan zidaten orain dela gutxi eta gero nitaz barre egin zuten.
- Braulio** Animo, belarri hauek demaseko ipuinak entzun dituzte eta. *(Hori esan eta hatzamarra belarrian sartzen du; higuin keinu bat egiten du zikinkeriaz beteta ateratzen duenean)*

- Iker** Ba zera... nire gogorik handiena... e... ba zera... nire gogorik handiena...
- Braulio** Zer, zinta trabatu zaizu ala?
- Katy** Animo, Iker!
- Iker** (*Izugarrizko abiaduran*) Neska bati musu eman nahi diodala.
- Braulio** Zer?
- Iker** Ba hori.
- Katy** Neska bati musu eman nahi diola.
- Braulio** Jo, jo, jo, ba ez da ideia txarra! Jo, jo!
- Iker** (*Haserre*) Banekien zuk ere barre egingo zenuela. (*Bankutik altxa eta...*) Banoa!
- Braulio** (*Eskutik ebatzen dio*) Lasai motel, bizitza honetan umorea ere behar da. Beno, arazoa ez da grabea eta konponbidea, psssf! Nik esaten dizudana egiteko prest bazaude, uste dut konponduko dugula.
- Iker** Esaidazu zer den eta pentsatuko dut.
- Braulio** Hum, ba, horrela ez dago ezer egiterik. Nire antidotoak funtziona dezan, nik esaten dudana zalantzan ipini gabe bete behar duzu. Bestalde, neuk ere ez dakit nora bidaltzen zaitudan, ez eta han zer aurkituko duzun ere. Bakarrik, aukera bat duzula zure arazoa konpontzeko.
- Iker** Nola, norabait bialdu behar nauzula?
- Katy** Esan dizut Brauliok gauza arraroak egiten dituela.

- Iker** Baina, nola egingo dut bidaia bat inori ezer esan gabe? Ederra antolatuko nuke!
- Braulio** Baliteke. Bidaia gaur gauekoa izango da bakarrik; ziur zure inguruko jendea harrituko dela. Baina zerbait nahi baduzu, zerbait ordaindu beharko duzu.
- Katy** Ez zait txarto iruditzen berak esaten duena.
- Iker** Eta zuk zergatik ez dituzu konpondu zure arazoak Braulioren bidez?
- Katy** Nire aukera galdu nuen eta orain pozik nago besteek euren arazoak nola konpontzen dituzten ikusten.
- Braulio** Iker, denbora aurrera doa eta erabakia hartu behar duzu.
- Iker** *(Pentsakor gelditzen da instant batean)* Prest nago zuk esaten didazuna egiteko.
- Braulio** Ondo dago!
- (Biak bankutik altxatzen dira. Brauliok abrigoa kentzen du eta, zabal-zabalik ipiniaz)*
- Braulio** Agur! Zure aurrean mundu berri bat dago. Ez pentsa bertan aurkituko duzuna fantasia hutsa denik, ez eta errealitatea ere. Dena den, ez ezazu ahaztu bertara zertarako sartzen zaren!
- (Braulio hizketan ari zen bitartean Iker abrigoari begira egon da, aldaketa edo gauza bitxiren baten zain. Baina abrigoan ez da ezer berezirik ageri)*
- Braulio** ‘¡Ala, muchacho!’ Barrura!
- Iker** Hori da dena?

- Braulio** Ez, kontxo, bakarrik hasiera, sar hadi barrura!
(Ikerrek jaka gurutzatzen du eta, berehala, burua atera eta...)
- Iker** Mila esker, Braulio eta Katy.
- Braulio** Joan hadi, eta zorte ona izan.
(Katy-k musu bat botatzen dio eskuarekin. Iker desagertzen da eta Brauliok esku artean abrigoa duela jarraitzen du. Zaratak hurbiltzen ari dira)
- Katy** Badatoz!
- Braulio** Bai, hurbil daude, presta gaitzen!
(Braulio hori esaterakoan, lehengo figurak sartzen dira. Eszenatokia iluntzen doa. Braulio eta Katy, tunika beltzak jantzi eta talde barruan sartzen dira. Taldean datozen batzuk sukaldea eta eltze handi bat dakarte. Bertso bat kantatzen dute)

BERTSOA

Mihi gaiztoen kale kantoian
ez hadila berez ito
amestutako musuan bila
segi ezak tinko-tinko.
Baina edozeini ematen ere
ez diok bada utziko,
lehenengoa berezia duk
ondo aukeratu mutiko

(Ondoren, gauzak eszenatokian kokatzen dituzte. Hiru figura eszenatokian gelditzen dira. Bat sukalderantz abiatzen da

eta beste biak lurlean jarrita gelditzen dira. Berriro ere eszenatokia bere osotasunean ikusten da. Sukalde ondoan dagoena jana prestatzen ari da eta lurlean daudenak txinoetara jokatzen)

Langa Zazpi!

Korner Bi!

**Langa eta
Korner** Baaa!

(Berriro ere eskuak atzera eramaten dituzte jokoari hasiera emateko. Sukaldean sorbalda emanaz zegoenak buelta ematen du eta)

Lur Jolas egin dezaket?

**Langa eta
Korner** Ez!

Lur Baina, zergatik?

Langa Bat, neska zarelako eta hau ez delako nesken joko.

Korner Eta bi, zuk zure zereginak dituzulako eta guk gureak.

Lur *(Haserretuta)* Zopa nazkagarri hau orain dela bi ordu dago prest eta, gainera, ez da nire zeregina, agindu bat baizik.

Langa Beitu, Mona Lisa, guk aginduak betetzen ditugu, eta normalean oso ongi, eta nire jokoetan neskek ez dute parte hartzen.

Korner Bestalde, nik ez dut gogorik zurekin jolas egiteko, fale?

- Lur** Nazkagarriak zarete, beti mukiz beteak, baina ez sudurrean, buruan baizik. Eta benetan diotsuet egunen batean hemendik alde egingo dudala eta ziur egon, egun horretan ostikada pare bat edukiko duzue opari.
- Langa** O ez, mesedez, hori ez! (*Katxondeo aurpegia ipiniaz*)
- Korner** Jua, jua, jua! Goazen bueltatxo bat ematera, buruko min apur bat zeukaat eta.
- Langa** Agur, Mona Lisa, eta ongi zaindu gure zopa.
- Langa eta Korner** Jua, jua, jua! (*Elkarri lepotik ebaturik*).
- Lur** (*Amorru bizian*) Ezin ditut gehiago eraman. Ezin dut...! 'Pardillo' hauek bahitu nindutenetik gau eta egun jasan behar ditut. Nire itzal bikoitz bihurtu dira eta ez naute une batean ere bakean uzten. (*Lurrean jartzen da eta burua hanka artean sartzen du*) Ez dut ulertzen zergatik izan nintzen ni aukeratua sorgin zahar horren sui izateko. Eta hau ez da txarrena, bera bueltatu arte hemen egon beharko dut bahiturik.
- (*Hau guztia esaten duen bitartean, Ikerrek burua ateratzen du lapiko barrutik eta esaten duen guztia entzuten du. Lurrek sukaldean bueltaka jarraitzen du, Iker begira duela*)
- Lur** Bi urte daramat etxe honetan, egunero zopa prestatzen. Hau baita sorginaren semeari gehien gustatzen zaion janaria. Kaka zaharra! Eta hori gutxi izan nonbait eta, ez aspertzeko, bi laguntxo ipini dizkidate zaindari. Eskolan kontatzen zizkidaten ipuinetan beti azaltzen zen printzeren bat horrelako egoeran zegoen neska askatzera. Nik ez dut horrelako suerterik edukiko, ziur. Beno, printzerik geratzen ez bada, sikiera ehiztariren bat edo mutilen bat edo...
- Iker** Edo ni?

- Lur** E!
- (Tximistaren pare buelta eman eta bere atzean Iker ikusten du, eltze barruan)*
- Lur** Baina, zer egiten duzu zuk lapiko horren barruan?
- Iker** Ez ezazu galdera gehiegi egin, ez dakit erantzuten, eta laguniezadazu hemendik irteten, zopa honek usain nazkagarria du eta.
- Lur** Lagunduko dizut, printze!
- Iker** *(Kanpoan dagoenean)* Barkatu, Lur, baina ni ez naiz printzea, mutil arrunt bat baizik, eta nahiko zatarra, esaten didatenez.
- Lur** Egia da, *(Goitik behera begiratzuz)* ez duzu printze itxurarik.
- Iker** Dena den, ez dakit zer egiten dudan hemen. *(Ingurura begiratu eta, eskuak zabalduz, zalantzak adieraziz)*
- Lur** Kontxo! Ba ez da hain zaila, norbaitek bidali zaitu ni askatzeko, hori argi dago, gizona!
- Iker** Ba ez dute onena aukeratu. Nik ez dakit borroka egiten eta sorginek izugarrizko beldurra ematen didate.
- Lur** Lasai, asmatuko dugu zerbait. Dena dela, pasadizo ona aurkitu duzu hemen azaltzeko eta hori ez da hasiera txarra, ji, ji!
- Iker** Beno, nire lana zu hemendik ateratzea bada, goazen lehenbailehen.
- (Lur pentsakor gelditzen da)*

Lur Ez da hain erraza izango, bi zaindari ditut gau eta egun etxe barruan edo kanpoan eta ez ligukete utziko hain erraz hemendik irteten. Eta gainera, joan aurretik, promesatxo bat bete nahi nuke.

(Ikerrengana hurbiltzen da eta izugarritzko musua ematen dio. Iker zuri-zuri gelditzen da eta konortea galdu behar duela ematen du)

Iker Beno, gero arte!

Lur Nola gero arte? *(Besotik ebatuz)* Hemendik nola irten behar dugun pentsatu behar dugu!

Iker *(Burua astinduz)* Bai, arrazoia duzu, eta bide zuzenena aurkitu duzula uste dut.

Lur Zer bide zuzen eta zer zuzenbide! Pentsa dezagun nola irten hemendik!

(Biak hurbiltzen dira eta, isilean, planaz hitz egiten dute. Planarekin zeharo kontzentratuak daudenean, ahotsak entzuten dira)

Sorgina Goazen etxera, alferrok, afaltzeko ordua da eta!

Lur Sorgina da, mugi zaitetz azkar! Sar zaitetz eltze barruan eta, afaltzen hasten garenean, ekin gure planari.

Iker Bale!

(Sorgina eta laguntzaileak sukaldean sartzen dira. Lur bere zereginetara bueltatzen da)

Sorgina Gabon, Lur maitea, gaur sorpresatxo bat dut zuretzat.

Lur *(Buelta emanez)* Gorde itzazu sorpresak sonrero azpian.

- Langa** Lotsagabea halakoa! Nola ausartzen zara horrela hitz egiten!
- Korner** Emango al diogu ostikada pare bat?
- Lur** Ausar zaitez! (*Koilara gogor hartuz eta bekozko iluna ipiniaz*).
- Sorgina** Lasai zaitezte, ez dut ulertzen hainbeste ordu elkarrekin pasa ondoren nola ez zareten hobeto konpontzen.
- Lur** Benetan, atso zahar honek izugarrizko aurpegia du!
- Korner** Nola esan duzu?
- Lur** Ez, ez, ezertxo ere ez, oso tipo jatorrak zaretela.
- Langa** Oso ausarta zaude gaur gauean. (*Mesfidati*)
- Sorgina** Nahikoa da! Gaur benetan pozik nago eta ez nuke nahi haserreturik bukatu. Ziur naiz notizia hau jakitean ni bezain pozik jarriko zaretela.
- Lur** Bota ba! (*Aurpegi txarra ipiniaz*)
- Sorgina** Zu ere urduri zaude, ez da? Entzun. Bihar, bazkal ordurako, nire semea etorriko da eta hainbat urtetan itxaroten egon garen ezkontza egingo dugu. Ez al da notizia zoragarria?
- Lur** O, ez! (*Nazka aurpegiz*)
- Langa eta Korner** Fenomeno! Gogaikarri honengandik aske izango gara!
- Lur** Beno, afal dezagun, goseak nago eta. Lur, afaria!
- Langa** Mugi zaitez!

(Hirurak lurrean jartzen dira, Korner eta Langa elkarren ondoan eta sorgina albo batean. Lur sukalderrantz abiatzen da eta lapikoari kolpe bat ematen dio platerak eta koilarak hartzen dituen bitartean. Lurrek zopa zerbitzatzeko du eta afaltzen hasten dira, izugarrizko zarata ateraz. Kornerrek zopatan ile bat aurkitzen du)

Korner Zopa ilez beteta dago, zer nazka! Buafss!

(Besteak gose dira eta, jaramonik egin barik, afaltzen jarraitzen dute)

Iker *(Eltze barrutik)* Zeure ileak dira baina, txotxolo-ipurdi!

Korner *(Langari)* Nola esan duk? Ni txotxolo-ipurdi?

Langa Nik ez diat ezer esan! *(Harritu aurpegiz)*

Korner Ba, nik ondo entzun diat!

Sorgina Isil zaitezte, ez dut gogorik zuen zaratak entzuteko eta!

(Hirurak zopa jaten hasten dira berriro. Bitartean Lur izkina batean dago, begira, irri maltzurrez. Isiltasuna. Koilara eta xurrut hotsak soilik entzuten direnean, Lurrek kolpe bat ematen dio lapikoari eta barrutik)

Iker Korner, kaiku arraioa, koipe-kirtena!

Korner *(Langari)* Ni kaikua eta koipe-kirtena?

Langa Heuk hala badiok!

(Kornerrek, zeharo haserre, kolpe bat ematen dio kokotean. Langak platera albo batera laga eta Kornerri lepotik ebatzen dio)

- Sorgina** Ji, ji , ji, benetan barregarriak zarete!
(Korner eta Langa, bata besteari gogor ebaturik, lurrean bueltaka hasten dira borrokan. Lur, bitartean, atzean dago barreari eutsi ezinik)
- Sorgina** Irten kanpora borroka bukatzera, ji, ji, ji! Eta nekatzen zaretenean, lotara! Burugogor halakoak!
(Korner eta Langak ez entzunarena egin eta borrokan segitzen dute baina, azkenean, eszenatokitik alde egiten dute. Lur bakarrik gelditzen da. Sorginak afaria bukatzen du eta)
- Sorgina** Oso pozik ikusten zaitut gaur gauean, nire semea datorrelako ez da ba izango?
- Lur** Beno...
- Sorgina** *(Sorgina zeharo haserre)* Baina zer uste duzu, txotxolo halakoa? Ni engainatuko nauzula? Ja, ja, ja! Buru txepel horretatik ez zitzaizun ba pasako ez nintzela konturatzen nondik zetozen ahotsak?
- Lur** *(Harritu aurpegia jarriz)* Zer gertatzen da? Ez dut ezer ere ulertzen.
- Sorgina** *(Ozenago)* Hauek biak bai, baina neu, ji, ji, ji! Atzo jaioa naizela uste duzu, ala? *(Berarengana hurbilduz poliki-poliki)* Nor dago ezkutaturik lapiko horren barruan? Erantzun!
- Lur** Hor barruan? *(Txistua tragatzen du)* Ka, ka, ka... kaka zaharra!
- Sorgina** Ji, ji! Bai, eltzean!
- Lur** Hor barruan ez dago zopa besterik! *(Sorgina eltzera hurbiltzen da eta tapa jasotzen du)*

Sorgina *(Tapa eskuan duela)* Bai, larrosa maitagarria, hemen barruan.

(Hau esaten ari dela, barrutik esku bat irteten da eta izugarrizko kolpea ematen dio buruan. Sorginak aurpegikera aldatzen du eta konortea galdu baino lehen, isilka)

Sorgina Banekien, ji,ji,ji! *(Eta blausta!, lurrera jausten da)*

(Lur arineketan lapikora hurbiltzen da)

Lur Iker *(Izugarrizko musua emanaz)*, primeran egin duzu.

(Ikerrek kolore apur bat galtzen du eta espazio-untzi batean izarrak ikusten balego legez geratzen da)

Lur Zu, Indiana Jones, esna zaitez!

Iker Zer? A bai.

Lur Zeren bila zentozen pelikula honetan sartu zarenean? Galdera zailegia ez bada, noski.

Iker Musu baten bila.

Lur Zer? *(Txarto ulertu izan balu bezala)* Musu baten bila? Ji, ji, ji!

Iker Banekien ez nuela esan behar. Denek barre egiten didate.

Lur Lasai, motel, ez dut asmo txarrarekin egin! Bestalde, nire kontuak txarto ez badoaz, pare bat hartu dituzu, ala ez?

Iker Bai, egia da *(Aurpegia alaituz)*

(Bata besteari begira gelditzen dira, irribarrez. Iker, bere barneko indar guztiak bildurik, Lurrengana hurbiltzen da)

eta musu bat ematen dio. Orduan zarata ezagun batzuk entzuten dira eta figurak eszenatokian kokatzen dira. Pertsonaia guztiek batera bertsoa kantatzen dute)

BERTSOA

Ezpainak zabal mihi bat gora
bestea haren gerizan
zenbat denbora eta ardura
momentu honen peskisan
baina lortu dut filmeetako
Indiana Jones baten gisan
lehenengoa izan da baina
azkena ez dadila izan

(Bertsoa bukatzen denean, figurek apurka-apurka eszenatokitik alde egiten dute. Lurrek figuren bidea hartzen du eta Iker eszenatokian gelditzen da. Banatzerakoan, elkarri begira-begira egiten dute, gogoko ez duten banaketa oztopatu nahian. Biak bi mundu ezberdinetakoak dira, ordea, eta badakite euren harremana ezinezkoa dela)

(Iker, burumakur, eszenatokian gelditzen da; alde batetik triste dago, baina bestetik pozaren pozez, ezinezkoa zen gogo hura bete baitu. Bat-batean, erdi-rap musika entzuten da)

Joxemiel Errekoño! Iker hemen diagu, a zer nolako sorpresa! Eskola osoa hire bila ibili duk egun guztian eta hi hemen, gela barruan, hik dauzkak potroak!

Iker Litekeena!

Joxemiel Non ibili haizen kontaidak behintzat, makaleko sustoarekin egon gaituk eta!

- Iker** Ba ... hor zehar, musu baten bila!
- Joxemiel** Eta zer, lortu duk?
(Ikerrek irribarre batekin erantzuten du)
- Joxemiel** ‘Kareto’ horrekin, ez diat erantzunik behar.
(Jon eta Ander sartzen dira; haserre datoz, Jon aurretik eta Ander atzetik)
- Jon** Baina nola egin daiteke huts ate osoa libre edukita? Ez diat ulertzen!
- Ander** Laban egin nian!
- Jon** Laban...laban... gure aukera guztiak popatik hartzera!
(Hain sartuta daude euren kontuetan, ez dira konturatu Iker bertan dagoela)
- Joxemiel** E, Mitxel eta Butrageño, Iker hemen diagu!
- Jon** Mitxel eta... ene! Iker hemen zegok eta!
- Ander** Baina non ibili haiz! Lur jota egon nauk gau guztian, astakeriaren bat egin dualakoan.
- Jon** Non ibili haiz?
(Ikerrek keinuz eta irribarre batez erantzuten du)
- Joxemiel** Ez zaio igartzen ala?
- Ander** Ondo egin duk, txo! Ondo pentsatuta, neuk ere bazeukaat gogoia musutxoren bat emateko.

Jon Ander!

Ander Hik ez ala? (*Ozenago*)
(Momentu horretan Pili eta Elena sartzen dira)

Pili Hara, nor dugun hemen!

Elena Iker!

Pili Zu bai ausarta, horrelakoak gustatzen zaizkit mutilak.

Joxemiel Iker, benetan, gela goitik behera aldatu duk!
(Aitor eta Miren azaltzen dira, beti bezala inori begiratu barik eta euren tokietarantz abiatzen dira)

Aitor Otia! Iker! Baina non ibili haiz?

Miren Benetan kezkatuta geunden!

Jon Ba ez da asko igartzen!

Joxemiel (*Moztuz, lkerri*) Iker! Kontaiguk nola izan den mobida.

Iker Ez dakit, sinestezina da eta ziur naiz barre egingo didazuela.

Denak Ke ba!

Iker Ziur?

Denak Bai.
(Denak bere inguruan jartzen dira historia entzuteko. Poliki-poliki, eszenatokiko argiek indarra galtzen dute, iluntasuna antzokiaren jaun eta jabe egin arte)

NONTZEBERRI ENPARANTZA

Zuriñe Zorrozua
4. mailako ikasleek antzeztua
Komedia
Zipiriñe herri ikastetxea
Sopela
1991-92

GAIA

Gaur egun gure inguruan gertatzen diren zenbait fenomenoren kritika izan nahi du obra honek: euskararen egoera, adinekoen bizimodua, baserritarren arazoak... Guztia umeei egokitua eta abestiz eta umorez zipriztindua.

PERTSONAIAK

Errupina (dendaria)	Petra (atso zaharra)
Basilio (dendaria)	Martzelina (atso zaharra)
1. ama	Matxalen (umea)
2. ama	Peru (baserritarra)
Martintxo (umea)	Haritz (baserritarra)
Paul (umea)	Frantzisko (mutila)
Miren (umea)	Katalintxu (neska)

(Dendariek denda zabaldu eta HEMEN EUSKERAZ txartela jartzen dute atean)

Errupina Basilio, kartelxo hau ekarri ziguten baina, zorionez, gure herrian ez da beharrezkoa.

Basilio Ezetz? Egon zaitetz horretan! Berton ere denetarik dago. Ea, emaiogun aurpegi egun berriari. *(Eta abesten hasten da)*

Saltzen saltzen
txakur txiki baten karameluak
está muy bien
esaten du konfiteruak.

Cuando vamos a Otxandiano
Andra Mari egunean
comeremos chocolate
sonbreruan gainean.

(Lehenengo bezeroak agertzen dira)

- 1. ama** Ea, laztanak, ez urrundu, Basilioaren dendara joan behar dugu eta.
- 2. ama** Como te iba diciendo, me he comprado un vestido precioso y nada caro. Ea, Martintxo, esan egunon Basiliori.
- Martintxo** Egunon, Basilio. Egunon, Errupina.
- Dendariak** Bai, halan ekarri.
- 1. ama** Errupina, ponme cuatro botones blancos e hilo negro.
- Paul** Ama, quiero caramelos.
- 1. ama** Paul, egin euskeraz eta sasoi honetan ez dago gozokirik.
- Miren** Ama, Martintxok lazoa kendu dit.
- 1. ama** Martintxo, eman lazo hori Mireni, berea da eta. Si es que con éstos no hay quien aguante. Desde luego donde mejor están es en la escuela y así podemos hacer algo.
- Errupina** Honela ondo dago?
- 1. ama** Bai, bai, muy bien. Hartu eta cóbrame.
- 2. ama** Basilio, niri betikoa. La caja de Marías.
- Basilio** Ederto, tori! Hauxe da azkena.

- Paul** ;Déjame el tebeo!
- Miren** ;No quiero, es mío!
- Martintxo** Ba! A mí me van a comprar la colección de Asterix...
- 1. ama** Baina beno, hauek beti erderaz. Euskeraz egiteko ba!
- 2. ama** Gu beti euskeraz egiteko esaten eta zuek...
- Umeak** *(Abesten hasten dira)*

GUK EUSKARAZ
ZUK ZERGATIK EZ?

Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen (bis)
Eta zuek denok
ur gazi bat
atera zenuten
handik nekez.

GUK EUSKARAZ
ZUK ZERGATIK EZ?

Orain zuen birtutez
zuen indarrez (bis)
Euskara itsaso urdin
eta zabal
bat izanen da
eta guria da.

GUK EUSKARAZ...

- 1. ama** Ala, ala, abesti polita, baina orain joan egin behar dugu!
- 2. ama** Eskolarako berandu egiten zaigu eta...

Basilio Zer esaten nizun nik?

Errupina Holako lotsagarririk!

(Urrunetik atsotxo bi eta neskatxo bat datoz)

Petra Ene, Martzelina, aurten herrian bost joan zaizkigu beste mundura gero! Guri ere laster helduko zaigu txanda.

Martzelina Zaude isilik, Petra. Zuk esan ere edozer egiten duzu. Gu, oraintxe gazteen!

Petra Matxalentxo, egon geldi ba! Deskalabroren bat egingo duzu eta; gainera amonak buruko mina dauka eta ez egin zaratarik, laztana.

Matxalen Baina amona, soka dantzan egitea ez da arriskutsua eta zure buruko mina ez da gauza berria.

Martzelina Petra, umeak ume izan behar du eta ez hori bakarrik, ‘Gimnasia para la tercera edad’ eta, propaganda itzela egiten ez dabilta ba? Ba beno, geuk ere soka dantzan egingo dugu!

Petra Bai, baina ezin, gure asma eta erreuma eta... Jesus, Maria eta Jose, zuri bururatuko ez zaizunik!

Matxalen Hori, hori, amona, ama egun guztian dago kafetegian sartuta ‘señora’ itxurak egiten eta nik ezin dut harekin jolas egin, baina zuek biokin bai!

Martzelina Horixe baietz! Basilio! Errupina! Etorri hona sokari ematera! Oraintxe izango dira kontuak hemen! Ala morena!

(Otzarak eta makilak alde batera utzi eta soka dantzan hasten dira hirurak)

Salto-saltoka soka saltoan
neskatilen aspaldiko jokuan.
Jolas honek asko zoratzen nau,
bat, bi, hiru, lau,
sardina, bakalau.
Jiraka eta jiraka, jiraka Lorea,
jiraka eta jiraka, jiraka Lorea.
Salto-saltoka soka saltoan
neskatilen aspaldiko jokuan.
Jolas honek asko zoratzen nau,
bat, bi, hiru, lau,
sardina, bakalau.

- Martzelina** Ikusten duzu? Guk oraindik gerra handia eman behar dugu!
- Petra** Gure edadean holako zorakeriak egiten! Goazen, goazen, umea eskolara eraman behar dugu eta...
- (Handik gutxira baserritar bi agertzen dira)*
- Peru** Eta, zegan saldu duk behia ba?
- Haritz** Ez diat negozio onik egin, hoge mila hogerleko besterik ez.
- Peru** Txarra ere ez, hezur hutsezko behi zahar bategatik.
- Haritz** Bai, baina handia eta esnetsua izan duk gero!
- Peru** Isilik egon hadi, gizona, isilik egon hadi!
- Basilio** Egunon, gizonak! Gaur goiztar gero!
- Haritz** Bai, Mungiako azokara joan behar diat eta...
- Peru** Ekarridak soka on eta merke bat.
- Errupina** Onak bai, baina merkerik ez dago. Tori, bi mila pezeta da.

Peru Laster goseak ‘trageu’, esnea eta okela beherantz eta beste guztia gorantz.

Basilio Badakik ba, orain europarrak ere bagaituk eta...

Haritz Mugitu hadi gizona, bestela animaliarik onenak salduta egongo dituk!

Peru Ala pareja, aintzinako Arrietako itsuarena: ikusi arte!

(Handik lasterrera mutil gazte bat agertzen da)

Frantzisko Egunon, Basilio; egunon, Errupina.

Dendariak Baita zeuri ere, halan ekarri!

Frantzisko Hara! Katalintxoren urtebetetzea da eta oparitxo bat egin nahi nioke, baina ez dakit zer erosi.

Errupina Beno, zuk zer sentizen duzu beragatik ba?

Frantzisko Beno hori, ba, halako ‘impulso’ bat ba...

Errupina Zeuk esan duzu, gizona, *Impulso* desodorantea erosi! Tori, tori...

Basilio Emakumearentzat da eta paper politean bilduko dugu.

(Mutilak dendatik alde egiten du eta, bere maitearekin elkartzean, kantari hasten da)

Katalintxu lora ederra
zeu krabelina fina
aintzina egin jatan
zeuganako mina.

Katalintxu Ene, Frantzisko! Zein erromantiko zatozen!

Frantzisko Bai ba, eta oparia ekartzea ere ez zait ahaztu. Tori laztana, zeuretzat!

Katalintxu Oparia niretzat! Zer izango ote da? Urrezko eraztuna, zetazko zapia... A! Desodorantea da! Baina zer uste duzu zuk, ez naizela garbitzen eta hatsa dariola nagoela ala? Txerria zeu izango zara gero!

(Elkarri eskutik helduta, aktore guztiak iladan jarri eta Euskal Herrian Euskaraz abesten dute)

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz.
Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aideak
gure hizkuntzak har dezan arnas.
Bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

NUEVA ZARAGOZA-KO HERRITARRAK

Joxe Martin Urrutia
8. mailako ikasleek antzeztua
Drama
Kurutzia ikastola
Durango
1994-95

GAIA

Hiri handiko zabortege batean neska-mutil talde bat bizi da. Ez dute nora joan eta bera da euren unibertsoa. Zaborretan denetatik aurkitzen dute; besteentzat balio ez duena bizibide da beraiantzat. Behin, ekaitz baten ondoren, hondatuta dagoen garbigailu batetik *Denbora* irteten da...

PERTSONAIAK

Pako (katua)	Bi Heren
Wilmer (xagua)	Hiru Bosten
Manuel (zabortegiko langilea)	Txinako enperadorea
Feliziano (zabortegiko langilea)	Txu Lin
Matilde (herritarra)	Txu Leta
Josune (herritarra)	Txu Lango
Miren (herritarra)	Felipe II
Xabi (herritarra)	Juan Castillo
Antton (herritarra)	Pedro Almena
Prudentzio (herritarra)	Santiago del Pozo
Erramun (Denboraren semea)	Koldo Etxebarria
Julio Zesar	Agustin Eraikieta
Bat Laurden	

Aurkezlea

Hiri handiko zabortegi batera gaua iritsi da. Urrunean etxeen argi txikiak soma ditzakegu eta erdian, burdinazko egitura handi bat; baliteke Portugaleteko zubia izatea. Beraz, Bilbo Handian egon gaitezke. Argi txikiak urrunean pilatzen dira forma geometriko desberdinak sortaraziz. Baina utz ditzagun urrunean ikusten ditugun gauzak eta hurbil gaitezen zabortegira. Bertan, hiri moderno batek botatzen dituen gauzak

ikusiko edo hobeto azter ditzakegu. Harrigarria da benetan zenbat zabor bil daitekeen ikustea. Batzuentzat hiltegi den lekua, bizileku bilakatzen da besteentzat; eta begiak gehixeago zorrozten baditugu, inguru hauetako printzearenak ikusiko ditugu, ikusten dituzue.

- Pako** *(Zaborren artean salto eta brinkoka)* Buff! Gazte hauek hona bizitzera etorri zirenetik ez dut ezer aurkitzen. Lehen bai; eurak ez zeudenean, nire paradisia zen. Muturtxoa sartu apurtxo bat edonon eta zas! Arrain buztan bat, arrosesne ontzitxo bat, saltxitxa bokata erdi bat... Haiek garaiak, haiek!
- Wilmer** Alde hemendik! Erreinu gabeko printzea... lurralde hauetako erregea iritsi baita. Ji, ji, ji...
- Pako** O, ez! Gaua amesgaizto bihurtzeko falta zena! Buff!
- Wilmer** Ez nauzu beldurtuko, katu harro hori! Ez dago katurik Wilmer xagua beldurtuko duenik! Ji, ji, ji...
- Pako** Utz nazazu bakean, nahiko toki dugu hemen biontzat!
- Wilmer** Biontzat? Ez dut ongi ulertu, katutxo. Lehen entzun dudanez eta belarriak ondo garbitu baditut, umeak etorri zirenetik ez duzu janaririk topatzen eta orain diozu biontzako beste janari badagoela. Alde hemendik, bestela zure buztana zuritu eta ogi tartean sartuko dut! Ji, ji, ji...
- Pako** Ez nauzu beldurtzen, Wilmer! Buff!
- Wilmer** Zuk ere ez ni, Pako! Gainera ni naiz zabortegiko biztanlerik zaharrena eta neure eskubideak ditut. Ni bertan jaioa naiz; zuri, aldiz, etxeko sukalde beroan handitu zitzaizun ipurdia, bertatik bota arte...

Pako Hala da! Baina biontzako beste janari badagoela uste dut oraindik ere.

Wilmer Alde! Nire pazientziak gainezka egin baino lehen!

Pako Joango naiz, bai, baina egunen batean etorriko zara laguntza bila.

Wilmer Baliteke. Baina orain zoaz, egunsentia gainean dugu eta neure txanda da, ez da hala?

Pako Buff! Buff!

Wilmer Bake santua! Ji, ji, ji... Zabortegian dudan lagun bakarra da, baina gose esnatzen naizenean, gauetan, oso 'letxe txarra' dut. Nire odol beroak ez dit gauza onik ekarriko. Arrazoia du Pakok: gazteak etorri zirenetik zailagoa da zerbait aurkitzea; baina horrela da, eta gauzak datozen bezala onartu behar dira... batzuetan... Ji, ji, ji... Hau orain dela hiru urte gertatu zen. Apirilaren hamalauan, inork ez daki nondik, neska-mutil talde bat inguratu zen zabortegira eta bertan gelditu ziren. Ez da toki txukuna neska-mutilak egoteko, baina ez dute ezer hobeagorik aurkitu, antza; eta gauzak datozen bezala onartu behar dira... batzuetan... Ji, ji, ji... Banoa, egunsentia gainean da eta zabortegei honetako benetako printzeak laster izango dira hemen.

(Wilmer zaborren artean desagertzen da; kamioien zaratak nagusitzen dira irla txiki honetan. Kamioietatik bi langile jaitsi eta zaborra botatzen hasten dira)

Manuel Ándeale, Feliziano! Ez diagu egun guztia eta!

Feliziano Utzi adarra jotzeari eta lagunduidak!

Manuel Txist! Ni txoferra nauk eta nire kontratuan argi eta garbi azaltzen duk nire lana zein den!

Feliziano Bazekiat! Bazekiat! Baina noizbehinka eskutxo bat eskertzekoa duk.

Manuel Ánde! gauzak diren bezala onartu behar dira!

Feliziano Ez zekiat non entzun duan esalditxo hori, baina potrotaraino nagok beti gauza bera entzuten: Gauzak diren bezala onartu behar dira!

Manuel Adizak, Feliziano! Hik zerbait entzun duk?

Feliziano Zertaz baina?

Manuel Ba, hemen zaparro kuadrila bat bizi dela.

Feliziano Hori esan zidak emazteak, baina ez ditiat inoiz ikusi. Bada ez bada ere zaborrarik onenak aukeratzen ditiat hemen botatzeko.

Manuel Badakik, Feliziano?

Feliziano Zer?

Manuel Tipo jatorra haiz. Eta ziur nagok egunen batean Historiako liburuetan agertuko haizela. Jo, jo, jo!

Feliziano Niri ez gero adarrik jo, Manuel! Bestela balde hau erabiliko duk sonbrero moduan. Ánde!

Manuel Goazen, bai, nire tripa zorriak hasi zaizkidak kantuan eta.

Feliziano Bai, goazen hire tripatzarra asetzera, bestela bista galduko duk eta, badakik, txoferrak bista ona behar dik!

Manuel Ez ezak adarrik jo! Ez gero niri adarrik jo!

Feliziano Ánde! Aánde!

(Kamioia eta langileak desagertzean; sei neska-mutil agertzen dira saltoka, gazelak bailiran. Beren eskuak prezisio handiko makinak balira bezala, zaborra sailkatu eta behar dituzten gauzak hartzen dituzte. Badirudi gainean begi handi bat dutela mugimendu guztiak kontrolatzen. Begi honen beldur edo, ingurua miatzen dute. Borrokan egiten dute elkarren artean; gehiago, ordea, jolasean. Eskuetan gauza gehiago hartu ezin dutenean, elkarri begiratzen diote. Neska itxurako bat aurreratzen da eta esaten du)

Matilde

Gauean, iluntasuna jaun eta jabe denean eta bota gaituen hirian argitxoak pizten direnean, hemen elkartuko gara asteko batzarra egiteko.

(Guztiak baietz egiten dute buruaz eta agertu diren bezala desagertzen dira zabor artean. Ondotik, pertsonaia ezagun baten burutxoa agertzen zaigu).

Wilmer

Makaleko zarata ateratzen dute zaparro hauek. Ez dut ulertzen Felizianok eta Manuelek nola ez dituzten oraindik ikusi, edo entzun behintzat. Oraindik ikasteko asko dute xagu eta... beno, esango dut, katuengandik. Zaratatsuak badira, baina bai argiak ere; denborapasa egiteko astean behin elkarri erakusten diote topatu duten gauzarik preziatuena eta festatxo bat antolatzen dute, bikaina gainera. Pakori abisatzera noa, bestela moskeatu egingo da eta.

(Eszenatokia iluntzen hasten da eta, poliki-poliki, argitxoak ugaritzen doaz. Lasai-lasai, zabortegiko biztanleak borobilean jartzen dira. Goizeko urduritasuna lasaitasun eta adiskidetasun bilakatu da. Dena den, gora begiratzen dute, begi izkutua begira balego legez. Denak jezartzen direnean)

Matilde

Gabon, zabortegiko biztanleok. Ostiralero bezala, hemen elkartu gara ditugun altxorrik preziatuenak taldearen aurrean ipintzeko. Joan zen astean Mirenek 'Kontesa' baten mutxikinak aurkeztu zizkigun eta gero taldekideen artean banandu...

- Xabi** Bai, behartu zenuelako, bestela ‘Pamplona’!
- Miren** Isil zaitetz, mutur-beltza! Nire asmoa hori zen, bestela ez nuen denon aurrean ipiniko.
- Josune** Miren, Miren. Ez zaitetz gezurtia izan. Ez zenuen horrelako asmorik, baina guztiok kaxa ikusi genuenez, ez zenuen beste erremediorik izan.
- Antton** Nahikoa da. Joan zen astekoa joan zen eta ez du bueltarik. Jarrai dezagun batzarrarekin.
- Miren** Bale, bale! Einsteing! Hi nola piper-pote batekin konformatzen haizen!
- Matilde** Azken puntua! Aski da! Jarrai dezagun batzarrarekin. Nire kontuak txarto ez badoaz, gaur gauean Prudentzioren txanda da.
- Antton** Animo, Pruden!
- Xabi** Ez dituk ba boxeoko guante batzuk izango? Prest nagok aldatzeko!
- Josune** Orrazi edo gantxo batzuk?
- Miren** ‘Txikilin’ kaxa bat? ‘Donuts’ batzuk? ‘Toblerone’ bat?
- Antton** Ez zaitezte kakapirriak izan!
- Miren, Xabi eta Josune** Bale, Einsteing!
- Matilde** Zure txanda da, Pruden.

- Pruden** Nire altxor preziatua... Poema liburu bat da!
- Josune** Zeeer?
- Pruden** Poema liburu bat!
- Miren** Eta hori jatekoa da?
- Pruden** *(Liburua ezkutatus)* Eez!
- Xabi** Bertan borroka mota desberdinak agertzen dira.
- Pruden** Ez!
- Antton** Elektrizitatea nola lor dezakegun esplikatzeko du.
(Prudenek ahoa zabaldu behar duenean)
- Matilde** Ez!! Poemak emakume edo gizon baten sentimenduak hitzen bidez agertzen dizkigu.
- Miren, Xabi,
Antton eta
Josune** Aa!
- Matilde** Beno, orain denok badakigu zer den poema liburu bat. Eta liburu horretatik, zer eskaini behar diguzu, Pruden?
- Pruden** Ba... ez dut izan aukera handirik. Liburu guztian poema bakar bat dago eta hori bera irakurriko dizuet.
- Miren** Arin! Bestela gosetu egingo naiz.
- Pruden** Entzun:

Zazpi ateko Tebas hura nork eraiki zuen?
 Liburuetan errege izenik baizik ez da ageri.
 Erregeek garraiatu ote zituzten harritzar handiak?
 Eta hainbatetan porrokatu izan zen Babilonia,
 nork jaso zuen hainbestetan?
 Lima distirant hura eraiki zuten langileak,
 zer etxetan bizi ote ziren?
 Txinako harresia bukatu zen iluntzean,
 nora jo zuten harginek?
 Erroma bikain hura garaitza arkuz beterik.
 Nork altxatu zituen?
 Nortzuk menperatu zituzten Zesarrek?
 Hain ospetsua zen Bizantziok, jauregiz beterik,
 ez al zuen bat ere bertako jendearentzat?
 Alegiazko Atlantidan bere bat,
 itsasoak irentsi zituen gauean,
 biztanleak oihuka ari zitzaizkien beren esklabuei
 laguntza eske.
 Alejandro gazteak India bereganatu zuen.
 Berak bakarrik ote?
 Zesarrek galoak menderatu:
 ez ote zuen berarekin sukaldari bat bederen?
 Felipe espainiarrak negar egin zuen
 bere Armada urperatu zenean.
 Ez ote zuen beste inork negarrik egin?
 Federiko bigarrenak zazpi urteko gerra irabazi:
 nork bestek zuen irabazi?
 Garaitza bat orrialde bakoitzean,
 nortzuk atondu zituzten garaitza banketeak?
 Hamar urtez behin gizon handi bat,
 nork ordaintzen zituen haren gastuak?
 Zenbat Historia, hainbat galdera.
 Historiak bezainbat galdera.
 Zenbat Historia! Zenbat galdera!

*(Bukatzen denean, batak besteari begiratzen diote, harrituta.
 Matilde txaloka hasten da eta besteek gauza bera egiten
 dute)*

- Miren** Ez dakit ona ala txarra izan den, baina irakurtzen egon zaren bitartean ez dut goserik sentitu.
- Josune** Miren!
- Miren** Ongi da! Ez pentsa ez naizela ezertaz enteratu. Niretzat zirragarria zera izan da, Julio Zesarrek bere sukaldariaren izena ez jakitea. Lotsagarria benetan!
- Antton** Eta Txina Handiko enperadoreak ez jakitea non lo egin zuten bere harginek. Ziur naiz ez zekiela adreilu bat bestearen gainean ipintzen.
- Josune** Nik ez dakit konturatu zareten, baina badirudi emakumeok Historian ez dugula parterik hartu izan. Badirudi negar egiteko bakarrik jaiok garela. Felipe II.a nire eskuen artean banu, lepoa bihurtuko nioke!
- Antton** Beno, ez zaitezte leloak izan. Historiak garaileen izenak idatzi ditu beti. Horrek ez nau ni harritzen; indartsuenek idatzi dute Historia bere erara.
- Pruden** Arrazoi duzu, baina poemak galdetzen du ea non dauden beste protagonistak, gizon eta...
- Josune** Eta emakumeak!
- Pruden** Beren proiektu handiak aurrera eramateko behar izan dituztenak.
- Matilde** Adibidez, gu auzune pobre batetik bota gaituzte etxe dotoreak egiteko; gure auzuneko lurra baliagarria zen eta bertan azken modako etxe dotoreak eraikiko dituzte. Historiako liburuetan arkitektoen izenak agertuko dira, baina aurreko biztanleen izenak ez dira inon agertuko.
- Antton** Hori ez dago ondo; gu hiritarrak gara, besteak bezala eta lur hori gurea zen... beno, horrela sentitzen nuen nik.

Pruden Ba hori da poemak esan nahi diguna, ea non dagoen gu bezalako jendea Historiako liburuetan.

Josune Historia! Joan daitezela popatik hartzera!

Miren Hori! Kakatara!

(Bero-bero berbetan ari direla, laino beltzek estaltzen dute zerua eta trumoiaren hotsa, poliki-poliki, gertuago entzuten da)

Antton Nik gustura aldatuko nuke Historia... Julio Zesarren ordezkariak bere soldaduak zer pentsatzen zuten eta zer zuten gustukoaren ipiniko nuke.

Josune Nik Historia emakumez beteko nuke; ziur naiz emakume dotoreak egongo zirela eta... badirudi Historiak jan egin dituela.

(Une horretan tximista bortitz batek zabortegiko garbigailua bat jotzen du. Gure biztanleak, beldurturik, salto eta brinko arinez ezkutatu egiten dira. Garbigailutik oraindik kea darrionak, pertsonaia ezezagun bat agertzen da ke artean. Gazte itxura du eta eztulka ari da)

Erramun Kaguen punta-puntako teknologia! Kaguen zirkuito itxiak! Kaguen bidaia galaktikoak!

Erramun Hau da hau, demaseko untxi espaziala eta ekaitz arrunt batek txiki-txiki eginda lagatzen dit trastea. Eta emergentziako botoia sakatzerakoan, makina inozo horrek ea non nahi duan lurreratu galdetzen dit. Nik zer dakit ba? Oraindik ez ditut gauzak ezagutzen eta!

(Ingurura begiratzen du, jakinmin handiz, gauzak ukituz eta usainduz)

- Erramun** Benetan bitxia da toki hau!
(Makurtu eta Prudentziok utzi duen poema liburua esku artean hartzen du)
- Erramun** Zer ote da hau?
(Hau esaten duen bitartean, zabortegiko biztanleek inguratu egiten dute).
- Matilde** Nor zara zu?
- Erramun** E!
- Asier** Ea nor zaren galdetu dizu!
- Erramun** Nor, neu?
- Miren** Ez, zure atzean dagoena.
- Erramun** Nire atzean ez dago inor.
- Josune** Ene! Hau ez da normala!
- Pruden** Bueltatuidazu liburua, nirea da.
- Erramun** Zure zer?
- Matilde** Stop! Bost minutuko geldiunea. Goazen astiro, ea elkar ulertzen dugun. Gu hemen bizi gara eta zu ez dakit nondik etorri zaren; beraz, guk, hemengook, nor zaren jakin nahi dugu. OK?
- Erramun** Beno, ba, ni Denboraren semea naiz. Hiru anaietan gazteena naiz eta Geroa dut izena; baina handiputz itxurako izena denez, ez zait gustatzen eta Erramun izena erabiltzen dut.

- Xabier** Adarrik ez jo! Mesedez!
- Miren** Joan zaitetz koplak kantatzera hor zehar!
- Erramun** Egia da. Begira, nire anaia Iragana, beti ‘plastada’ ematen ari zait; bere garaian gizon ezin hobeak egon zirela, Julio Zesar, Felipe II...
- Antton** Bai, ezagutzen ditugu.
- Erramun** Eta zera dio, nire garaian horrelakorik, alerik ere ez dela izango. Gaur eguneko jendeak ez duela piperrik ere balio.
- Josune** Geldi hor! Esaiozu zure anaiari horrelako gizonik ez dugula behar eta gaur egunekoak nolakoak garen jakin nahi badu, jaitsi dadila, horretarako behar dena badu.
- Matilde** Lasai! Gauza batzuk ez ditut ongi ulertzen. Bat: nola agertu zara hemen?
- Erramun** Aurrekoa ez baduzue sinestu, orain kontatu behar dudana gutxiago. Esan dizuet Denboraren semea naizela, ez da? Ba berak espazio-untzi bat erregalatu zidan. Horrela aukera izango nuen Historian zehar aurrera eta atzera mugitzeko; Historia bera nola idatzi behar den ikasteko. Nire anaiak ‘kaparrada’ ematen zidan eta...
- Pruden** Hori badakigu!
- Matilde** Utziozu bukatzen!
- Erramun** ‘Kaparrada’ ematen zidan eta, bere apunteak ohostu ondoren, etxetik hanka egin dut espazio-untzian. Badakit zer ari zareten pentsatzen. Non dago zorioneko espazio-untzi hori? Ba, zuen muturren aurrean. Eta zergatik ez duzue ikusten? Ba ikustezina delako, inbisiblea. Honela, aurrera eta atzera mugi naiteke inor konturatu gabe. Hau da nire historia. Eta zuena? Zeren... hau ez da galdeketa bat izango, ez da?

- Matilde** Gu zabortegiko biztanleak gara. Toki guztietatik bota egin dituzten neska-mutilak. Inongo liburuetan agertzen ez diren pertsonaiak.
- Taldea** *(Txaloak)* Oso ondo, Matilde! Primeran! Horrela hitz egiten da!
- Erramun** Eta zertan ari zineten ni etorri aurretik?
- Pruden** Eskuan duzun liburua irakurtzen. Eta irakurri ondoren, Historiak jendea nola tratatzen duen komentatzen.
- Antton** Bai! Nola batzuen izenak letra handiz idazten diren...
- Xabi** Eta besteak idatzi ere ez!
- Josune** Eta hobe da emakumeen bila ez hastea!
- Miren** Ez eta agertu ere!
- Erramun** Oso interesgarria da. Anaia ekarriko dut zuek esaten duzuen entzuteko... Um, um, edo bestela... Eta garai haietako pertsonaiak bertara ekarri eta ea liburuetan egotea merezi duten erabakitzen badugu?
- Denak** Oso ondo, ideia ezin hobea, epaitu ditzagun...
- Erramun** Itxaron unetxo batean! Laster izango naiz hemen eta Historiak inoiz izan duen epaiketarik harrigarriena izango da.
- (Taldekoei agur egin eta azaldu den tokitik desagertzen da. Denak lelo aurpegiarekin begiratzen dute nondik joan ote den. Ez dakite ametsa ala egiazko egoera den. Erramunek, ordea, ez die denbora larregirik eman eta, uste baino arinago)*
- Erramun** Hemen naiz berriro ere.

- Pruden** Eta ekarri behar zenuen pertsonaia historikoa?
- Erramun** Hor kanpoan dago, itxaroten. Kosta zait konbentzitzea; baina beste aro bateko jendea bera ezagutzeko irrikitan zegoela entzutean, ezer esan gabe etorri da.
- Xabi** Eta nor da?
- Erramun** Aurkeztu aurretik, zera... salatzaile bat behar dugu galderak egiteko. Aukera ezazue bat.
- (Guztiak batu eta Antton aukeratzen dute)*
- Erramun** Ea ba... zuen aurrean, Erromatik etorri den Julio Zesar, bere segizioarekin: Bat Laurden, Bi Heren eta Hiru Bosten.
- (Aurkezpena bukatu eta Julio Zesar sartzen da bere segizioarekin)*
- Bat Laurden** Hemen duzue gure Inperioak izan duen Zesarrik handiena: Julio Zesar.
- Bi Heren** Bere sandaliek mundu osoa zapaldu dute eta bere aurrean denek burua makurtu izan dute.
- Hiru Bosten** Jainkoek aukeratu zuten gure Erroma maitea goraiatzeko. Beraz, ez da gizakia, Marteren semea baizik.
- Erramun** Beno, nahikoa da, has gaitezen galderak egiten.
- (Julio Zesar Bat Laurdenengana hurbiltzen da eta zerbait esaten dio belarrira).*
- Bat Laurden** Zesarrek nongo enbaxadoreak zareten galdetzen du.
- Matilde** Zabortegiko enbaxadoreak.

- Bi Heren** Ongi da.
- Antton** (*Salatzaile lanetan*) Aizu, Julio. Esango diguzu zure legioetako sukaldariren baten izena? Batekin nahikoa da.
- Julio Zesar** Zer galdera inozoa? Nik zer dakit? Galdetuiezu nire laguntzaileei, haiek jakingo dute eta!
- Antton** Eta zuek, badakizue?
- Hiru Bosten** (*Hirurak aparte bildu ondoren*)Argiñanocenturix eta Subijanacenturix.
- Antton** Ondo da. Julio, zenbat gizon eta emakume behar izan dituzu zure inperioa eraikitzeko?
- Julio Zesar** Baina zer da hau? Nik zer dakit? Behar izan ditudan gizon guztiak eman dizkit Erromak. Ez duzue entzun Marteren semea naizela? Jainko baten aurrean gizaki guztiak edozertan obeditzeko prest izan behar dute. Guztiak nire menpe daude, guztiak Erromaren zerbitzura.
- (*Bat Laurdenek eskua altxatzen du*)
- Antton** Bai!
- Bat Laurden** Nik baditut kalkulu batzuk eginda.
- Antton** Aurrera ba!
- Bat Laurden** Erroman soldaduzka, –gizaki arrunten artean, noski!– derrigorrezkoa da. Errenplazo bakoitzean 400.000 soldadu sartzen dira. Kontuan harturik Julio Zesarren ejerzitoa 600.000 soldaduk osatzen dutela, milioi bat, gutxi gora behera. Esklabuak kontuan hartu gabe, hauek ez baitaude zentsatuak.

- Julio Zesar** Oso ondo!
- (Josune altxatu, Anttonengana joan eta zerbait esaten dio belarrira)*
- Antton** Gure azkeneko galdera. Ba al dago emakume aipagarririk inperioan?
- Julio Zesar** Egongo ez da ba! Zer egingo luke ni bezalako soldadu batek, barkatu, Jainko batek, emakumerik gabe?
- Antton** Bale, bale, baina eman izenak eta zer egiten duten.
- Julio Zesar** Izenak? Hainbeste pasatu dira nire ondotik ezen ez ditudala ezagutzen, ez eta zer egiten duten ere. Zuk zer uste duzu, e?
- (Josune sutan jartzen da eta, Marteren semeari zerbait botatzeko keinua egitean, Bi Herenek eskua altxatzen du)*
- Bi Heren** Erromako gizartean emakumeak ez du balio handirik. Gizonen menpean dago, begi bistakoa denez. Dena den, badaude emakume ospetsuak, baina haien izenak ezkutuan daude, gizonek hala nahi dutelako.
- Antton** Ongi! Orain itxaron ezazue, geure artean hitz egin behar dugu eta.
- (Elkartzen dira eta, hizketan ari diren bitartean)*
- Julio Zesar** Hau jakin izan banu ez nintzen nire tokitik mugituko. Inork ez dit galdetu zenbat gudu irabazi ditudan, nola eraiki nuen nire Inperioa, ea Brutus-ek sartu zidan labanak min egin zidan...
- Matilde** Beno, hartu dugu erabakia eta, Erramunen baimenarekin, guk, zabortegiko hiritarrok, zera diogu: Julio Zesarrek Historiako liburuetatik desagertu egin behar du!

(Matildek eskuan dituen orri biak, aurretik Erramunek emandakoak, apurtu egiten ditu)

Julio Zesar Baina, baina... Ez zaude burutik sano ala? Nork beteko du nire hutsunea! Nigana legioak, txikitu itzazue enbaxadore memelo hauek!

Bat Laurden Arrazoi du! Nork beteko du bere hutsunea?

Matilde Zuek hirurok. Berak baino hobeto ezagutzen duzue Inperio famatua. Hurrengoak!

(Besotik heldu eta bertatik ateratzen dute. Taldea inoiz baino hobeto pasatzen ari da).

Erramun Orain zuekin, munduaren beste aldetik etorrita, Txinako enperadorea bere segizioarekin: Txu-Lin, Txu-Leta eta Txu-Lango.

(Herensuge batekin eta txinparta zaratarekin azaltzen da segizioa)

Txu-Lin Zuen aurrean... lurra eman duen gizakirik ederrena. Zeru azpian dagoen izakirik preziatu eta delikatuena.

Txu-Leta Herensugeek zerutik hegaz ekarri zuten; beraz, ez da lurrean jaioa, zeruan baizik, Jainkoak bizi diren lekuan.

Txu-Lango Inoiz ez da ateratzen bere hiri sekretutik. Ez da mundu honetan bizi; hemen dena gaizki egina dago eta berak ezin du hori jasan! Miresgarria da hona etorri izana, gutxitan egiten baititu honelakoak.

(Josunek, salaketa lanari ekiteko, taldetik irten eta bere saioari hasiera ematen dio)

Josune Kaixo, Enperadore Jauna! Galdera sorta bat dugu zuri egiteko eta, prest bazaude, hasi egingo naiz.

Txu-Lin Prest dago.

Josune Zure garaian eraiki zen munduan dagoen harresirik handiena. Hala da, ez da?

Antton Hala da! Eta, diotenez, ilargitik ere ikus daiteke.

Josune Beno, hala bada, sar dadila kalabazan!

**Enperadorea
eta segizioa** E!

Josune Lasai, lasai, txorrada bat zen. Galderekin jarraituko dugu. Zuk agindutako harresia hargin koadrila batek eraiki zuen. Ba al dakizu non lo egin zuten bukatu zutenean?

Enperadorea Neska polita benetan! Nire hiri debekatuan badago oraindik tokirik horrelako larrosa batentzat.

Josune Kontuz, Fu-man-txu!

Enperadorea Ji, ji, ji. Oso aho polita duzu. Galderari erantzuten saiatuko naiz. Egia da nik agindu nuela harresia eraikitzea, baina ez dut ideiarik ere non lo egin zuten hargin zikin haiek. Kontuan izan horrelako eraikuntza batean denak oso zikin gelditzen direla eta ene begi delikatuek ezin dutela zikinkeria ikusi.

(Txu-Linek eskua altxatzen du)

Matilde Zerbait esan nahi duzu?

Txu-Lin Beno, zuek egindako galderari erantzun nahi nioke. Harginek ez zuten inon lorik egin.

- Josune** Nola ba? Sonanbuloak izango ziren eta!
- Txu-Lin** Ez ba! Denei burua ebaki zieten, pasadizo ezkutuak non zeuden inork jakin ez zezan.
- Josune** Majadero ederra dugu gure aurrean. Beno, jarraitu dezagun galderekin, hiri debekatuko kakalardoa! Hainbeste harri eta harea, mendi batzuei pusketa ederrak kenduko zitzaizkien, ez da ala? Zein mendiri kendu zitzaizkien?
- Enperadorea** Laztana! Nik ez dakizkit izenak. Nik dakidan bakarra zera da, munduan egin den harresirik handiena eta ederrena dela, nire inperioa iparreko mongolengandik babesteko. Zer garrantzi dute mendiek horrelako gauza zoragarri bat egin ondoren!
- Txu-Leta** Barkatu, enperadore, nik erantzungo diet. Harresiaren inguruan milaka harrobi zabaldu ziren, baina inork ez daki zer menditako harria erabili zen.
- Josune** Ondo da. Orain azken galdera. Ea asmatzen duzun, potxolo, oraindano ez baituzu bat bera ere asmatu. Kontaiguzu nolakoa den zure lurraldea. E, potxolo? Hori erraza da.
- Enperadorea** Barkatuko didazu, larrosa maitea, baina nire hiri probatua ezagutzen dut bakarrik. Bertan Txinako gauzarik ederrenak daude gordeta eta horietaz berba egin dezaket. Begira, adibidez...
- Josune** Hau gehiegi da. Enperadorea da eta ez du bere herria ezagutzen, benetan sinestezina!
- Txu-Lango** Barkatu lagunak, saiatuko naiz Txina nolakoa den kontatzen. Gure herria oso handia da, egun asko behar dira alde batetik bestera joateko. Nahiz eta mendi handiak eduki, basamortuak eta lautadak, ia gehienok ibai ertzetan edo itsaso ondoan bizi gara...

- Josune** Nahikoa da! Matilde!
- (Elkartu egiten dira erabakia hartzeko)*
- Txu-Lin** Banekien ridikuloan utziko gintuela, hiri debekatuan ez da asko enteratzen, baina kanpoan are gutxiago!
- Enperadorea** Isil zaitez. Jainko batekin hitz egiten ari zara eta!
- Txu-Leta** Bai, eta badirudi jainko hau erdi lelotuta dagoela.
- Enperadorea** Txu-Leta!
- Matilde** Lasai, lagunak! Taldeak hartu du erabakia. Enperadore, zure izena Historiako liburuetatik desagertu egingo da.
- Enperadorea** Ezinezkoa da, nire izenean gizakiek egin duten obrarik miresgarriena eraiki da, hau gehiegikeria bat da!
- Txu-Lin** Eta nork beteko du bere hutsunea?
- Matilde** Zuek. Zuen izenak agertuko dira. Denon aurrean erakutsi duzue berak baino gehiago dakizuela eta hobeto ezagutzen duzuela zuen herria.
- Enperadorea** Ezinezkoa da, nola agertuko dira inozo hauek Historia liburuetan? Ez dute zer ikusirik herensugeekin...
- Matilde** Eraman ezazue hemendik!
- (Segizioak besotik heldu eta zabortegitik ateratzen du. Taldearentzat gaua izugarritzko festa bihurtzen da)*
- Matilde** Beno, Erramun, zein da hurrengoa?
- (Erramun erantzutera doanean, hiru gizon sartzen dira, ziztu bizian eta ezpata eskuan)*

- Juan Castillo** Denok zuen lekuetara, burua bere tokian nahi baduzue!
- Pedro
Almena** Guk, Felipe II.aren armadako soldaduok, lurralde hau hartzen dugu bere izenean eta izena emango diogu... Zer izen emango diogu?
- Santiago del
Pozo** Nueva Zaragoza!
- P. Almena** Hori da, Nueva Zaragoza! Hemendik aurrera denok burua makurtu beharko duzue gurutzearen eta gure erregeren aurrean.
- Erramun** Baina zer gertatzen da hemen? Galdera batzuei erantzutera etorriko zinela geratu ginen eta, zertara dator zirko hau?
- S. del Pozo** Isil zaitetz, lepoa bere tokian mantendu nahi baduzu. Gure errege ez da toki ezezagunetara joaten. Lehenengo bere soldaduak bidaltzen ditu lurraldeak bereganatzera eta gero errege gisa bisitatzen ditu, ulertzen?
- Erramun** Ulertzen dut! Ulertzen dut! Eta non dago ba bera?
- Juan Castillo** Badator, ez zaitetz urduri ipini. Zuekin, Nueva Zaragozako erregea, Felipe II!
- (Denak harrituta Felipe II agertzean)*
- Felipe II** Gabon, Nueva Zaragozako herritar maiteak. Hemen nauzue zuen galderei erantzuteko prest eta, mesedez, makur zaitetzte; bestela nire soldaduen eskuak dardarka hasiko dira eta lelokeriaren bat egin dezakete.
- (Gogoz kontra, baina denak makurtu egiten dira)*

- Erramun** Doazela orain zure ondora, ala gau guztian gure atzetik ibili behar dute?
- Felipe II** Soldaduok! Etor zaitezte nire ondora.
- (Xabi eta Miren euren tokietatik irten eta galderak egiten hasten dira)*
- Xabi** Felipe II, egia da Britainia Handia eskuratzeko 'Armada Garaitezina' antolatu zenuela?
- Felipe II** Hala da, mutil! Hala da!
- Xabi** Zenbat gizon hil ziren ontziak hondoratu zirenean?
- Felipe II** Soldadu itxura duzu. Ez duzu ba nire tertzioetan parte hartu nahi izango?
- Xabi** Momentuz ez! Erantzun ezazu, mesedez.
- Felipe II** Egia garbi esatekotan, ez dakit. Baina, hori bai, min izugarria eman zidan inoiz gizonak antolatu duen armadarik handiena ekaitz petral bat dela medio pikutara joateak. Oraindik ere malkoak irteten zaizkit!
- Juan Castillo** Berak ez du jakingo, baina nik lau anaia gazteenak galdu nituen. Ez zekiten igerian eta itsaso beltz horrek irentsi egin zituen.
- Felipe II** Nola ausartzen zara hitz egiten niri baimenik eskatu gabe? Bihartik aurrera bi hilabete pasako dituzu ziegetan! Barkatu, lagunak, jarrai dezagun.
- Miren** Beno, Borrero II...
- Felipe II** Zer?

- Miren** Ezertxo ere ez, Felipe II. Horrelako armada egiteko egun mordo beharko zenuten, ez da?
- Felipe II** Hala da.
- Miren** Gogoratzen duzu zer baso bota ziren?
- Felipe II** A zer nolako lelokeria! Espainia guztia basoa da. Batzuk hemen, beste batzuk han eta inor ez da konturatzen. Dena den, garrantzitsuena Britainia Handia eskuratu eta erregina burusoil horri eskarmentu bat ematea zen. Horregatik idatzi nuen ediktu bat behar beste zuhaitz ebakitzeko baimena emanaz.
- P. Almena** Ni Soriako herri txiki batekoa naiz eta han bai igartzen dela. Inguruan genituen pinu basoak bota zituzten untzien mastak egiteko eta lehen errekatxoz josirik zegoen tokiak, orain, lur azal zauritua ematen du.
- Felipe II** Zuk ere bai! Beno, hau gehiegizkoa da! Zuk hiru hilabete pasako dituzu ziegetan! Jarrai dezagun.
- Xabi** Beno, azken galdera. Diotenez, ‘Armada Garaitezina’ galdu zen gauean negar oihartzunak Espainia guztian entzuten ziren. Zer egin zenuen zuk gau hartan?
- Felipe II** Zer egingo nuen ba! Lo! Hilabete asko pasa nituen armada hura antolatzen eta, benetan, urduritasuna eta nerbioak zirela medio, dena prestatzen oso nekatuta nengoen.
- S. del Pozo** Nik armada hondoratu zenean ez nuen galdu ez anaiarik, ez seniderik, baina bai lagun minak. Eurekin Europa guztian ibili nintzen Erregeren Inperioa defendatzen. Hondamendiaren berri izan nuenean, haien aurpegiak burutik kendu arterainoko mozkorra harrapatu nuen.
- Felipe II** Hirurok oraintxe bertan ziegetara!

Matilde Lasai, Borrero II, oraindik ez duzu entzun guk esan behar duguna!

Felipe II Nola ausartzen zarete! Soldaduok, espetxera itzazue Nueva Zaragozako biztanleak!

(Soldaduak ez dira mugitzen.)

Matilde Ufff! Borrero II, a zer nolako zaratak ateratzen dituzun! Gure erabakia hauxe da: zure izena Historia liburuetatik desagertaraziko da eta, zurearen ordeztu, zure soldaduenak agertuko dira.

Felipe II Ezinezkoa da! Ezinezkoa da! Ebaki iezaiezue zintzurra lotsabako hauei! Oraintxe bertan!

(Soldaduek Felipe II.ari besoetatik heldu eta bertatik ateratzen dute. Nueva Zaragozako biztanleek oihu eta barre artean agurtzen dute)

Erramun Nire ustez Historiak eduki duen epaiketarik jatorrena izan da gaurkoa. Errege edo Enperadoreen izenen ordeztu, soldadu, sukaldari edo harginenak jarri ditugu. Nire anaiak jakiten badu, lepoa bihurrituko dit.

Josune Beti izango zara ongi etorria zabortegian.

Miren Edota Nueva Zaragozaan.

Erramun Beno, joan egin behar dut; gauza gehiago ikusi nahi ditut Historia berri bat idazteko. Gizon handien izenak letra txikietan eta gizon-emakume arrunten gauzak letra handietan idatziko diren Historia.

Matilde Guk ere alde egin behar dugu, egunsentia gainean da eta Manuel eta Feliziano laster izango dira hemen.

(Erramunek garbigailutik burua ateratzen du)

- Erramun** Zer gertatzen da?
- Antton** Ez zaitez ahaztu Manuel eta Felizianoren izenak gure Historiako liburuetan ipintzen, eurak beti ‘enroilatu’ dira zaborrarik txukunenak bertara ekarriz eta.
- Erramun** Lasai, agertuko dira.
- (Erramun desagertzen denean, poliki-poliki bakoitza bere txokora joaten da, gaua izugarria izan dela eta horrelako kontuekin. Goizero bezala Manuel eta Feliziano agertu beharrean, trajedun bi azaltzen dira: Koldo Etxebarria eta Agustin Eraikieta)*
- Koldo Etxebarria** Begiratu, Agustin! Toki hau erakutsi nahi nizun. Aukera izugarriak ditu gure moduluak eraikitzeko. Begira, alde honetan etxeak, bi modulutakoak, erdian plaza eta bere inguruan zerbitzuak. Hor beherago portua, bere erranplekin.
- Agustin Eraikieta** Bai, ideia oso ona da. Baina nork emango digu dirua?
- K. Etxebarria** Lortu dut! Lortu dut! Euskadiko Kutxa prest dago proiektu honetan bete-betean sartzeko. Pentsa, bukatuta dagoenean, euren publizitate txarteletan erabiliko dute: ‘Honelakoak dira Euskadiko hiriak!’ Eta gure izenak Historian sartuko dira.
- A. Eraikieta** Ziur zaude ez dagoela arazorik hemen eraikitzeko? Edo kaltea izango duen jenderik? Ziur lurra ez dela inorena?
- K. Etxebarria** Ez esan lelokeriarik! Nork izango du ba kaltea zabortege hau desagertzen bada? Guk, Koldo Etxebarriak eta Agustin Eraikietak, espazio berri bat eskainiko diogu hiri honi, kalitatezko espazio bat.
- (Une horretan Manuel eta Feliziano agertzen dira, eguneroko lanera)*

- Manuel** Zertan ote zebiltzak tipo hauek hemen?
- Feliziano** Proiektu berri horren atzetik dabiltzanak izango dituk!
- Manuel** Zein proiektu?
- Feliziano** Manuel, benetan, ez haiz ezertaz enteratzen.
(Agustin eta Koldo zabortegiko langileengana hurbiltzen dira)
- K. Etxebarria** Egunon!
- Manuel eta Feliziano** Egunon!
- K. Etxebarria** Koldo Etxebarria eta Agustin Eraikieta gara. Zabortege hau bihar, edo asko jota etzi, desagertu egingo da eta, bere ordeztan, eredu izango den hiria eraikiko dugu. Agustin kezkatuta dago ea operazio hauetan inork kalterik izango ote duen.
- Manuel** Ez dut uste. Baina honetaz inork ezer jakitekotan, honek jakingo du!
- Feliziano** *(Kezkaturik)* Bihar edo etzi zabortegea desagertu egingo dela? Eta zeren izenean?
- K. Etxebarria** Beno, nik esango nuke, progresoaren ba..., aurrerakuntzaren zera..., Historiaren izenean.
(Une horretan Felizianok txistu luze bat jotzen du eta zabortegiko biztanleak agertzen dira)
- A. Eraikieta** Baina, zer da hau!
- K. Etxebarria** Nortzuk dira horiek?

- Manuel** Jode! Feliziano, hik zerbait entzuna huen, e! Hi haiz tipoa, hi!
- Feliziano** Hemen ditugu zabortegiko biztanleak eta uste dut inork ez diela baimenik eskatu ezer eraikitzeke.
- K. Etxebarria** Nola eskatuko diegu baimena horrelako neska-mutil... beno, horrelako neska-mutilei?
- Matilde** Zergatik ez? Gu gara bertako biztanleak, hau gure lurra eta gure etxea da.
- A. Eraikieta** Barkatu, udalarena, neska! Ala mutila? Zer zara?
- Pruden** Guk udalekoak inoiz ez ditugu hemen ikusi; hemen beti gu egon gara, Feliziano eta Manuelekin.
- K. Etxebarria** Utz ditzagun lelokeriak. Hau udalarena da eta bihar desagertuko da, u-ler-tzen?
- Xabi** Inork ez gaitu hemendik botako, kon-pre-ni-tzen?
- A. Eraikieta** A zer nolakoak, ume lotsagabeak! Polizien aurrean otso aurpegia bildotsarena bihurtuko zaie. Agur! Goazen, Koldo!
- K. Etxebarria** Bihar hemen izango gara, goizeko bederatzietan.
- (Koldok eta Agustinek laino beltzez inguraturik alde egiten dute)*
- Feliziano** Nik banuen zerbait entzuna, baina ez nuen uste egia izango zenik.
- Josune** Lasai, Feliziano, ez da zure errua. Ohituta gaude tokietatik alde egiten. Oraingo honetan ez gara, ordea, zaratarik egin gabe joango!

- Manuel** Baina zer egingo duzue. Poliziari zerbait agintzen diotenean, bete egiten du; eta nola gainera!
- Miren** Ez zaitezte larritu; oraingoan arma sekretua dugu eta, horren aurrean hanka egingo dute, ez da, lagunak?
- Denak** Noski, leloturik geratuko dira eta arineketan joango dira koarteleraino. Agustinek eta Koldo horrek amesgaiztoak edukiko dituzte gau askotan.
- Feliziano** Beno, oso ziur ikusten zaituztet eta horrek poztu egiten nau. Ánde! Manolo, beharrea jarraitu behar diagu eta!
- Manuel** Pues sí, mano! Goazen.
(Denek alde egiten dute)
- Aurkezlea** Gudua hastera doa. Nahi al duzue jakin zer gertatu zen?... Hara! Hor datoz bi lagun zahar!
(Pako eta Wilmer sartzen dira)
- Pako** Miau!
- Wilmer** Hemen nago, katu inuzentea!
- Pako** Ezin al didazu neure izenez deitu?
- Wilmer** Fale, Pako! Zer nahi duzu orain?
- Pako** Itxaroten daude!
- Wilmer** A! Zer gertatu zen jakin nahi dute. Ba, hurrengo goizean arkitekto biak agertu ziren polizi talde handi batekin.
- Pako** Baina, a zer nolako ezustea! Ez zituzten zabortegiko biztanleak bakarrik aurkitu.

Wilmer Hori da! Ez zeuden bakarrik, euren atzean armada oso bat zuten: soldadu erromatarrak, txinoak, Felipe II.arenak, denak nahasturik. Horiek ikustean alde egin zuten eta, ikusten duzuen legez, zabortegeiak bere tokian darrai, baina aldaketa txiki batekin.

Wilmer Biztanleak joan egin dira, beste toki lasai bat topatzera.

Pako Eta hemen gaude orain biok!

Wilmer Bai, aspertuta eta nahi dugun beste jaten, izugarrizko tripatzarra hazten!

Pako Badakizue, ez pentsa zabortegeietan ez dela inor bizi, bestela sorpresaren bat hartuko duzue. Eta sinesten ez baduzue, begiratu Historia liburuetan.

Wilmer Aizu, Pako!

Pako Zer?

Wilmer Erramun hori berriz hona agertzen bada, zera esan behar diot, ea zer gertatzen den animaliekin Historia liburuetan, eta agertzen ez bagara, beste Historiaren bat idatzi beharko genukeela.

Pako Badakit, Wilmer, oso tipo azkarra zarela eta ziur naiz liburuetan agertuko zarena, ji, ji, ji!

Wilmer Ez adarrik jo, bestela zure belarriak ozpinetan jango ditut eta!

(Pakok salto bat ematen du eta Wilmerrek, bere atzetik, eszenatokia lagatzen du. Teloia itxi egiten da)

RUTINAREN ITZALA

Edurne Alberdi

BBBko 3. mailako ikasleek antzeztua

Drama

Batxilergo institutua

Azpeitia

1991-92

GAIA

Istori honetan neska arrunt baten bizitza azaltzen da, bi zatitan. Lehenengoan bere eguneroko mundua, gorabehera arruntenak; bigarreanean mundu horren ikuspegia zabaldu egiten da. Kanpo bizitza agertzen da, gizonaren lege inposatuak, markaturiko mugak, gezurrak... eta guzti honetatik *ihes* egiteko bide bat: droga, hain zuzen ere. Azken finean, lehen zatiko elementuak bezain kaltegarria dela adierazi nahi da.

PERTSONAIAK

Irati	Osaba
Ama	1. laguna
Naiara	2. laguna
Maisua	Arlatz
Izeba	Mikel

1. EKITALDIA Logelan

(Irati ohean etzanda. Iratzargailuak jotzen du)

Irati Hau haizea! *(Aho zabalka. Haizearen zarata entzuten da. Berriro ohean kulukatzen da)* Bihar larunbata. Irten dadila Naiara! *(Xurrumurruka gora begira)* Arlatzena kontatu behar diot behingoz.

Ama *(Kanpotik deiadarka)* Irati! Irati! Jaiki hadi, neska! Gosaria hozten ari zain!

(Beranduxeago)

Ama Irati! Hemendik aurrera, ez telebistarik ez istoriorik, hamarretarako ohera. Ezingo gaitun horrela ibili urte guztian. Esan niri gaur gauean pelikula...

Irati Baaaaai!!

(Jaiki egiten da Irati. Jazten den bitartean, ahopeka)

Irati Puff! Mate, Natur, Soinketa... Ez ba!!! Loiolara! Filo... A!!! Filoko ariketak egin gabe!

(Leiho aldera hurbilduko balitz bezala. Euri eta haize zarata entzuten da)

Irati Ea, Jauna, ekin gogor lanari, ea Loiolarako pare bat bueltatxo aurreratzen dizkidazun.

(Ama logelara etortzen zaio sukaldetik, hizketan)

Ama Tori esnea, autobusak alde egingo din! Edan ezan. Hauek jango ditun jolas denboran. *(Opilak emanaz)*

Irati Egunon, ama. *(Muxu bat ematen dio)*

Ama Aterkina hartu, bestela...

Irati Ikusi al duzu nire txamarra? *(Esnea edaten duen bitartean, presaka)*

Ama Hor dun, irteerako armairuan.

Irati Agur, ama. Bazkari ona ipini.

Ama Ez haiz aldatuko.

(Iratik presaka irteten du etxetik, opilak ohe gainean utzirik)

Ama *(Deiadarka)* Irati, Irati, opilak! *(Isilka)* Ez haiz alferrik galduko!

2. EKITALDIA

Eskolan

(Irati lagun talde batekin elkartzen da eskola barruan. Aulkiak, mahaiak... buila handia)

Irati Epa! *(Naiararen ondoan esertzen den bitartean)*

Naiara Kaixo! Zer esan behar hidan?

Irati Ezer ez *(Barre txiki bat egiten du)*, gero kontatuko dinat. Egin al dun Filokoa? Lehenengo kopiatu egin behar dinat.

Naiara Bai, tori. *(Orri batzuk ematen dizkio)*

Irati Beno ez, zer arraio! Lehenengo kontatu egingo dinat.

(Aurrez aurre esertzen dira. Klasean xurrumurrua entzuten da)

Irati Atzo Mikelek deitu zidan, badakin, Opel Corsa gorria duenak, kalpardunak.

Naiara Bai. Zineko hura, ez?

Irati Bai, badakin, Arlatzen kontuan. Bihar gauean trago bat hartzera gonbidatu nain.

Naiara Zeer! *(Deiadarka. Klaseko jendea begira gelditzen zaio. Ahoa eskuaz estali eta isilago jarraitzen du)* Zoragarria dun. Hik bai zortea! Arlatz eta hi! Gustatzen zaidan, benetan.

(Barre urduri bat egiten du Iratik. Jendea isiltzen hasten da eta maisua sartzen da)

Naiara *(Xurrunmurruka)* Kazetaritza ikasten ari dun, ez? U! Oso bikote polita!

(Maisuak isilarazten ditu eta azalpen batzuekin hasten da)

Maisua Mesedez, andereñook, ez nazazue behartu goizean goizetik eztarria urratzera!

Irati O, gaixoa! *(Marmarrean)*

3. EKITALDIA

Logelan

(Orain ere ohean sartuta dago Irati eta ama, eszenatokitik kanpora, sukaldetik arituko balitz bezala, deiadarka. Logela nahiko nahastuta dago)

Ama Egunon, Irati! Irati! Jaiki, nik lanera joan behar dinat, larunbata dun, neska! Izeba Mertxek deitu din gaur bazkalondoan bere etxera joateko esanaz; atunak iritsi zaizkion oso modu onean eta merezi din aprobetxatzea. Esaion ahaztu egin zaidala, baina bihar aitonaren meza dagoela. Arin ibili, amonari esan zionat pasiatzen lagunduko dionala. Jaiki, Irati, hemen lagatzen dizkinat txanponak mahai gainean. Izeba Mertxeri atunak ordaindu eta beheko dendan laga ogiarena. *(Gelara sartzen da)* Aizan! Arratsaldean hire gela txukundu gero! Ijitoen txabola zirudin! *(Muxu bat ematen dio oraindik erdi lotan dagoen Iratiri)*

(Irati gora begira jartzen da)

Irati Monotonia! (*Nagiak ateratzen hasten da*) Larunbat goizean jaiki behar madarikatua, euri leloa,... Arlatz maitea. (*Barre egiten du*)

(*Salto bizkor bat eginez jaikitzen da*)

Irati Zorte oneko izan dadila nire gaua, nire gaur gaueko mundua.

4. EKITALDIA

Izebaren etxean

(*Izeba agertzen da eszenatokian etxeko lan arrunten bat egiten. Txirrina jotzen dute. Irati sartzen da alde batetik*)

Irati Kaixo!

Izeba Kaixo, maitea! Ene! (*Bi muxu zaratatsu ematen dizkio besarkada gogor batean estutuz*) Baina nola aldatzen diren gazte hauek. Jexux! Jexux! Atoz hona! Ikus ezazu gure neskatoa! Pasa, maitea. Atunak prestatuko dizkizut. Zer nahi duzu jan bitartean? Tori neuk egindako tarta zati bat. Edateko? Koka-kola? Kas bat? Agian nahiagoko duzu kafea, hotz dago giroa eta...

Irati Ez naiz gose, kafe bat hartuko dut; lasai, neuk berotuko dut. Kaixo, osaba! (*Osaba sartzen da eszenatokiaren beste aldetik*) Nahi duzu zeuretzat ere berotzea?

(*Izebak alde egiten du. Isilune laburra*)

Osaba Ongi. (*Nagiak ateratzen mahaian esertzen da*) Zer, zer kontatzen dugu ba? Atzo ikusi zintudan korrika Loiola aldean lantokira nindoala.

Irati A bai, Soinketako orduan.

(Mahaian esertzen da Irati ere, kafeak ateraz. Isilune laburra)

Osaba Gaur ez duzu irtengo eguraldi honekin, ez da?

Irati Ba, agian bai, buelta bat ematera, larunbata da eta...

Osaba *(Barrez)* Ai, ai! Sasoiak orain ere ez duela barkatzen. Gainera, enteratuta nago mutilen batekin zerbait badarabilzula e?
(Barre eginez)

(Izeba sartzen da eskuak mantalean garbitzen.)

Izeba *(Iratiari)* Eziozu kasurik egin. *(Senarrari)* Benetan gaiztoa zara.

(Osaba barrez eta Irati irribarrez. Izeba ere mahaian esertzen da)

Izeba Beno, normalak dira kontu horiek.

Osaba Bai, normalak eta politak; guk ere pasatu genituen, e Mertxe?

Izeba Beno, gizona. *(Mahaitik jaikitzen da kafeak jasoaz)* Zu honez gero ez zara behintzat formalduko. *(Osabak barre egiten du)* Gainera entzun diot Xabierri zerbait. A bai! Ba dakizu nor den, Jexux? Ez al diozu entzun Xabierri?

Osaba Xabierri? Ikusi ere egiten al dugu ba semea?

Izeba Tira, gizona. Ilarreko barberoa ba zen ba, goiko botikako alabarekin ezkondu zena; haretxena da, erdikoa, mutil ederra benetan.

Osaba A bai! Ezagutzen dut. Futbolean ere trebea zen. *(Isilunea)* U! *(Ozenki)* Gainera hura izango da belarritakoa jarri duena... *(Barrez)* Garai bateko aiton-amonek horrelakorik ikusiko balute.... Nora iritsi garen!

(Tertuliak piska batean jarraitzen du eta, azkenean, elkar agurtzen dute)

Irati Tori, amak zuri emateko esan dit; atunena da.

Izeba Beno! Ezta pentsatu ere! Esaiozu gordetzeko. Eman berari.
(Osabak atzetik)

Osaba Gorde heuret zat, gauean trago goxo bat hartzeko nobioarekin.
(Barrez)

Izeba Beno, Jexux, nahikoa da. Eman diezaiola Inesi eta berak jakingo du zer egin. Agur, maitea.

5. EKITALDIA

Kalean

(Irati, Naiara eta jende gehiago atzean. Eszenatokiko alde batetik bestera doaz eta biek lagun batzuekin egiten dute topo)

Lagunak Epa! Epa! *(Agurtuz)*

Naiara *(Lagunetako bati zuzenduaz)* Ikusi al dun nirea? Jakes oraintxe joan dun goraka, uste dinat 'Denbora-pasa'ra sartu dela.

1. laguna Bai, ikusi dinat, lagunengana joaten dun, han elkartzen ditun. Hirea ere ikusi dinat. Nola dun? Iker? A ez! Arkaitz. Neska batekin zegonan.

Naiara Madarikatua! Ba berak galtzen din! Gaur oso umore oneko bainagon! *(Barrez)*

(Irati ingurura begira, urduri balego bezala)

- 1. laguna** Zer dun, Irati?
- Naiara** O! Ez dakizue? Mutiltxo bat aurkitu din!
- 2. laguna** A! Hara hemen mutilak denbora pasa polita besterik ez zirela pentsatzen zuena!
- Irati** Bai, denbora pasa polita, oso polita.
- 1. laguna** Nor dun?
- Naiara** Arlatz Bengoetxea. Kale Nagusikoa, farmaziakoaren semea. Opel Kadett txuria erosi duena.
- 2. laguna** Aukeratzen hasita, bai aukeratu ere! Gustatzen zaidan neuri ere. Aspertutakoan, badakin.
- Naiara** Ez, ez, oraingoan serioagoa ematen din! (*Barrez*)

(*Arlatz eta Mikel agertzen dira*)
- 1. laguna** Ez begiratu, baina heure atzean zegon, uste dinat hona datozela. Ixxxxxo!
- 2. laguna** Ez dun makala, alajaina. Beno gu joan egingo gaitun, 'diximuloz'; ondo pasa, hi!

(*Agurtu orduko Arlatz eta Mikel hurbiltzen dira. Elkar agurtzen dute. Mikel goibel samar dago*)
- Mikel** Beno, ni etxe aldera noak; bihar Jakes-ekin elkartzekotan gelditu nauk. Astelehen arte, beraz.
- Arlatz** Hator motel; trago bat hartu eta gero joango haiz, giro ona zegok etxera joateko.

Naiara Zer, Mikel? Hator lasai, buelta bat emango diagu, ondo egongo gaituk.

Mikel Ezetz!!! (*Haserre alde egiten du*)

(Irati, Arlatz eta Naiara harriturik gelditzen dira)

Irati Zer dik?

Arlatz Ezer ez, ezer ez. (*Isilunea*)

6. EKITALDIA

Tabernan

Arlatz Beno, goazen esertzera. Giro mundiala zegon, e?

Naiara Bai, ederra, astea pasatu eta gero ondo etortzen duk larunbat gaua.

Irati Mirariak egiten dizkin! Gau majikoa. (*Ironiaz*)

(Barre egiten dute. Irati barrara joaten da. Hiru basorekin itzultzen da. Hirurak eseri eta edaten dute)

Naiara Ona zegon. Begira, etxera joan behar dinat. Bihar neuk gonbidatzen dinat, bai?

Irati Ongi, ongi! Neure kontura edan eta alde e? Ondo zegon, katalana dirudin.

(Barre egiten dute. Arlatz eta Irati bakarrik gelditzen dira. Arlatz behera begira, pentsakor)

Irati Nazkatuta?

Arlatz Ez, ez. Oso gustura nagon. Benetan.

(Isilunea. Irati Arlatzi begira, Arlatzek begiratzen dion bakoitzean.)

Irati Ez al duk ezer kontatzeko gogorik?

(Isilunea. Arlatz behera begira)

Arlatz Mikel dun. Ez zebilen ondo! Ez zaidan gustatzen Jakes-ekin elkartzea. Tipo naturala dun, baina kezkatuta nagon; bolada txarra pasatzen ari dun. Beldurra ematen zidan hain gaizki dabilela Jakes-ekin elkartzea. Erraza dun irteerarik gabeko zuloan hanka ipintzea begiak itsutzen direnean.

Irati Zer ari haiz?

Arlatz Benetan, ez dinat uste oso aurrera joanda dagoenik, ez, baina arrisku handietan sartzen ari dun.

Irati Hitz egin al duk berarekin?

Arlatz Beste trago bat?

Irati Bai, Koka-kola bat!

Arlatz Erdi bana ongi? Ez nabilen ondo diruz.

Irati Bikote ederra gu!

(Barre egiten dute. Biak eserita daudela, Mikel agertzen da.)

Arlatz Zer habil?

Mikel Zera... barkatu etetea.

(Barre egiten dute)

Irati Lasai, motel, zer duk?

- Mikel** Giltzak hik dauzkak ala?
- Arlatz** A bai! Koño, ahaztuta nengoan! (*Giltzak ematen dizkio*)
- Irati** Mikel, hago piska batean.
- Mikel** Zer?
- Irati** Trago bat hartzera gonbidatzen haut; ez didak poterik emango, ez da?
- (*Mikel eseri egiten da. Arlatz komunera joaten da*)
- Irati** Zer duk?
- Mikel** Ezer ere ez; ez hadi hasi hi ere, ongi? Zertan ari zarete denok, ama babeslearena egiten, ala?
- Irati** Zerbait duk. Ez nauk ari itxurak egiten; oso txorakeria handia irudituko zaik agian, baina estimatzen haut eta jakin nahi diat.
- (*Mikel behera begira gelditzen da*)
- Mikel** Aspertuta nagon, nazka ematen zidan.
- (*Isilunea. Biak eserita daude, behera begira*)
- Irati** Zerk?
- Mikel** Zerk? Zerk nazkatzen nauen? Denak. Begira, aste guztia eskolan pasatzen dinat. Zertarako? Lehendabizi, lo egin besterik ez eta jaiki egin behar. Zertarako? Egunen batean langabeziako zerrendan sartzeko. Zertarako? Jan ahal izateko. Aste guztian nazkatuta egoten naun axola ez zaizkidan esplikazioak jasaten, monotoniak itotzen nain. Nazkatuta goizero jaikitzearekin, goizeko hotzarekin... Arrunkeariaren musika astunegia, jasanezinegia dun niretzat.

- Irati** Eta horretarako hartzen dituk ‘arrastoak’? (*Ulertu balu bezala mugitzen du burua*)
- Mikel** Eta zergatik ez? Bizitza laburra dun, bakarra dun, nahiago dinañ bizi naizen apurra gustura bizi.
- Irati** Gustura. (*Oso lasai hitz egiten dio, dena ontzat emango balio bezala. Isiltasuna*) Gustura?
- Mikel** Ba!!! (*Eskuan darabilen zerbait lurrera botatzen du, amorruz*)
- Irati** Neu ere nekatuta nagok, haserretu egiten nauk iratzargailuak jotzen duenean, maisuek kalera bidaltzen nautenean, orain mila urte gertatutako lelokeriak buruan sartu behar dizkiatenean. Itsusia duk!
- Mikel** Nazkagarria!
- Irati** (*Isilka*) Nazkagarria! (*Isilunea*) Gorroto diat Loiolara korrika joatea edo Espainiko mapa margotzea; aspergarria duk.
- Mikel** Nazkagarria.
- Irati** (*Isilka*) Aspergarria! (*Isilunea*) Gorroto diat ‘Gaur egun’ ikustea. Gorroto dizkiat politikoak eta gorbatak, gorroto dizkiat boteredunak, gorroto dizkiat mugak eta nire karne-tean agertzen diren zenbakia eta nazionalitatea. Eta bandera, eta armak. Lelokeria astuna duk. Eta geuk jasan behar.
- Mikel** Kaka.
- Irati** Bai. Kaka. (*Isilunea*) Ezin ditiat korridak jasan.
- Mikel** Niri gustatzen zaizkidan.
- (*Iratik kasurik egin gabe jarraitzen du*)

Irati Ez eta haurrak erasotzen dituzten bezala erasotzea ere. Beldurgarria duk.

Mikel Krudelderiak.

Irati Krudelkeriak! (*Isilago errepikatzen du, ontzat emanaz bezala. Isilunea*) Gorroto diat soldaduzka, eta gudua.

Mikel Esan niri, hau ezina!

Irati Bai, ezina! (*Isilunea*) Eta hala ere, gustura nagok egun batean, ez zekiat zergatik baina, jaiio nintzelako; Izarraitz ezagutu diadalako eta Kontxako kresala usainak ere berpiztu nauelako. Bizitzea tokatu zaidalako. Ez zekiat, neure mundua ez zegok gaizki. Orain gustura nagok hirekin. Hi?

Mikel Bai, beno, bai.

Irati Ni oraindik gogorra nauk, hil artean jasango ditiat aurrean jartzen dizkidaten traba guztiak.

Mikel Bai.

Irati Ez zekiat biharko egunkarian neure eskela agertuko den ala ez. Hik ere ez, ez da?

Mikel Ez, neuk ere ez.

Irati Baina orain bizirik nagok eta, gauza guztien gaintetik, gustura. Ordu bietarako etxera joan behar dudala kontuan hartu gabe.

Mikel Ordu bietarako etxera?

(Elkarri begiratu eta barre egiten dute. Gero isildu eta elkarri begira jartzen dira. Serio daude eta Iratik besoa bizkarrean jartzen dio)

- Irati** Gorrotatzen diat droga, hi gugandik urruntzen saiatzen delako.
- Mikel** Nik ere bai.
- Irati** Gorrotatzen diat hi itsututa ikustea, irtenbidea aurkitzen dualakoan menpekotasunean sartzen ikustea. Gorrotatzen diat Jakes-en ezina, Jakes-en beharra. Madarikazioa! (*Ia negarrez*) Gorrotatzen diat gudua, politikoak, soldaduzka bezainbeste. Beraien pare dagoelako. Suntsitzen gaituelako, azpijokoa darabilelako, hire askatasuna lapurtzen ari delako.
- Mikel** Droga ez dun ondo pasatzea bakarrik, oso gaizki pasatzea ere bai. Lehengo astean Jakes oso gaizki zegonan. Uste dinat nahiko sartuta dagoela eta diru gehiegi behar. Gehiegi.
- Irati** Orduan?
- Mikel** Nahastuta nagon. Ez zekinat.... Nahastuta...
(Irati Mikelengandik urruntzen da eta jaiki egiten da, barrari begira)
- Irati** Gorroto diat. (*Alde egiten du*)

6. EKITALDIA

Kalean

(Goiza da. Irati bankuan dago Arlatzen zain eta Mikel etortzen da. Egunkari bat dauka eskuetan eta Iratiri mantalera botazen dio. Bere ondoan jarri eta eskuak belaun gainetan jartzen ditu. Burua behera begira du eta, muki hotsa atereaz, eskumuturrarekin sudurra igurzten du. Irati, bitartean, egunkaria irakurtzen ari da. Irakurtzen duen planta egiten du eta, bitartean, bere ahotsa duen zinta bat entzuten da, berria kontatzen)

“Azkoitia.

Joven de 23 años que responde al nombre de Jakes A.Z. ha sido hallado muerto a las 3 de la madrugada de ayer, cuando la policía iba a detenerlo a su domicilio con una denuncia por robo en una joyería. Al parecer, la muerte ha sido causada por una sobredosis. Con ésta son ya 19 las muertes por sobredosis ocurridas en la comunidad vasca en lo que va de año.”

*(Arlatz iristen da negar itxuran, egunkaria eskuan duela.
Iratik Mikeli begiratzten dio eta elkar besarkatzen dute)*

Irati Nahi baduk egin borrokan sinisten duanagatik, nahi baduk pasatu gauza guztiez, bizitzak merezi ez duela uste baduk, bota ezak heure burua leihotik behera; baina bizi haizen bitartean, ez ezak heure askatasuna suntsitu, ez heure burua lotu hirekin akabatuko duen infernu batera, horrela bukatzeko.

Mikel Madarikatua!!! Droga marikatua!!!

Irati Heure esku zegok.

Mikel Madarikatua!!!

SOR-GIN HAUEK!

Bittor Arrondo
8. mailako ikasleek antzeztua
Komedia
Axular lizeoa
Donostia
1992-93

GAIA

Iturgina eta bizilagun bat bi moja bisitatzera joaten dira eta mojetako bati deabruaren mezulariak direla iruditzen zaio.

PERTSONAIAK

Sor Salustiana
Sor Junipera
Toñito
Koxme

S. Salustiana Jaiki zaitez, Sor Junipera! Egunsentia da eta Jainkoari eskerrak eman behar dizkiogu.

S. Junipera Utzidazu piska bat gehiago. Lo gutxi egin dut eta!

S. Salustiana Hori da, hori da! Atzo zer?

S. Junipera Zer, zer?

S. Salustiana Atzo zer ordutan etorri zinen? Zaborra jaistera joan zinen bitartean ni misterioak errezatzen hasi nintzen. Handik ordubetera oraindik iritsi gabe zinen.

S. Junipera Nire asmoa berehala etortzea zen, baina igongailuan sartu eta Roki Drogilarekin egin nuen topo.

S. Salustiana Norekin?

- S. Junipera** Roki Drogilarekin, Sor Salustiana. Goiko pisuko rokeroko gazteetako bat.
- S. Salustiana** Gazte? Rokero? Bai zera! Ni engainatuko nauzu! Zerri nazkagarri hutsak dira hori eta bere lagun guztiak! Ez dakit poliziak zer egiten duen, nola ez dituen atxilotzen! Zerri itxura dute!
- S. Junipera** Keba, Sor Salustiana! Oso dotore daude bere txuparekin!
- S. Salustiana** Txupa zer? Zer txupatzen dute?
- S. Junipera** Txupa, Sor Salustiana! Txupa kazadora da!
- S. Salustiana** Ene Jesus! Zer egin dizute, Andra Mari Birjina, gau batean? Zer hiztegi da hori?
- S. Junipera** Lasai, Salus!
- S. Salustiana** Zer diozu?
- S. Junipera** Sor Salustiana esan nahi nuen! Gazte horiek oso jatorrak dira eta batzuk oso politak, gainera!
- S. Salustiana** Jesus, Jesus, Jesus! Satanas etxean daukagu! Zer aditu behar dute nire belarri garbi eta puruek! Baina, Sor Junipera, nola izango dira politak duten itxurarekin? Zuk nola deitu diozu? ‘Txupo’ edo ‘Txupa’ delako horrekin labezomorroak ematen dute eta! Dena beltzez jantzita!
- S. Junipera** Horixe bera deitzen digute guri, labezomorroak!
- S. Salustiana** ‘Habrase visto!’ ‘Niñato’ mukizu horiek! Zer edukazio eta zer hizkera dute? Debekatu egiten dizut horiekin ibiltzea! Oraintxe noa poliziari deitzera hemendik bota ditzan eta gure artean pakea izan dezagun.

- S. Junipera** Baina...
- S. Salustiana** Ez baina eta ez ezer! Eta zuk, penitentzia gisa, 538 'Aitagure' errezatuko dituzu!
- S. Junipera** Sor...
- S. Salustiana** Ixo eta hasi errezatzen! (*Telefonoa hartzen duenean, ateko txirrinak jotzen du*)
- S. Salustiana** Nor ote da orain? Ez da ba 'kukaratxa' horietakoren bat izango! Akabatu egingo dut!
- S. Junipera** Lasai zaitetz, Sor Salustiana! Ireki egingo dut atea.
- S. Salustiana** Zuk ez, pekatari gajoa! Belaunika zaitetz izkina hartan eta has zaitetz otoitz egiten!
- (*Atea irekitzen du*)
- S. Salustiana** Nor zara zu? Deabruaren mezularia akaso? Edo Satanasen borreroa? Alde hemendik, pekatuaren seme orogaizkilea!
- Toñito** Aizu! Faltatu gabe, e! Ni Toñito Hodiberri naiz. Atzo tailerrean dei bat jaso nuen, iturriren bat gaizki zenutela eta... hementxe nauzue!
- S. Salustiana** Seguru al zaude? Egia al diozu?
- S. Junipera** Baina, Sor Salustiana, zertan ari zara?
- S. Salustiana** Zu ixo eta txokora, errezatzera! Erantzun, nor zara?
- Toñito** Esan dizut, ba! Aizu, ez badidazu sartzen uzten, alde egingo dut!
- S. Salustiana** Mehatxuekin etorri al zara, gizontxo hori?

- Toñito** Beno, ni banoa!
- S. Salustiana** Bale. Beno... baina lehenbizi iturria konpondu!
- Toñito** Noski, nik hemen denbora gutxi pasa nahi dut, bestela erotuko naiz. Zein da hondatutako iturria?
- S. Salustiana** Hauxe, hementxe duzu! Beno, konpon ezazu eta kitto! Bitartean ni errosarioa hartzera noa, hirurok otoitz egiteko.
- Toñito** Zer?
- S. Salustiana** Errosario bila noala hirurok erreztatzeko!
- Toñito** Errosario zein da, beste mojaren bat?
- S. Salustiana** Keba! Bolatxodun soka bat, otoitz egiteko erabiltzen duguna.
- Toñito** Zein hirurok errezatu behar duzue?
- S. Salustiana** Guk geuk! Guk biok eta zuk.
- Toñito** Nik?
- S. Salustiana** Bai, zuk! Ez al duzu otoitz egiten, ala?
- Toñito** Ez!
- S. Salustiana** Ezetz?
- Toñito** Beno... batzuetan.
- S. Salustiana** Ba, orain arte errezatu ez duzuna, gaur egingo duzu. Oraintxe nator.
- Toñito** Zer da hau? Konpondu eta berehala banoa ni hemendik! (*Sor Juniperari*) Aizu, zer egiten ari zara hor?

- S. Junipera** Penitentzia.
- Toñito** Penitentzia? Zergatik?
- S. Junipera** Gazte batzuekin egoteagatik.
- Toñito** Ai ‘pillina’! Zuri ere martxa gustatzen zaizu, ez da? Poxpolina, niri ere bai!
- S. Junipera** Ezetz ba! Atzo gazte batzuekin hizketan aritu nintzen eta horregatik nauzu hemen, penitentzia egiten.
- Toñito** Berak aginduta?
- S. Junipera** Bai. Sor Salustianak aginduta.
- Toñito** Banengoen ba ni. Hori Sor Salustiana baino gehiago Sor-Gina da.
- S. Junipera** Gaiztoa zara, Toñito!
- Toñito** Ni gaiztoa? Mesedez! Ez dakit nola ez zaren erotzen atso honekin. Ambrosiok Santa Agedan bulegoak besterik ez dagoela eta ero guztiak kalean dabilzala dioenean... hark badaki zer esaten duen!
- S. Salustiana** Zer, konpondu al duzu? Has gaitzen errezatzen! ‘Misterios gloriosos...’
- Toñito** Ai, ni banoa, agur! (*Joan egiten da*)
- S. Salustiana** Nora doa?
- S. Junipera** Izutu egin da.
- S. Salustiana** Bai zera, nik nioena. Hau Satanasen semea da. ‘Otoitz’ hitza aditzerakoan, hanka egin du. Banekien nik, bai!

- S. Junipera** Ez zen gaiztoa!
- S. Salustiana** Ixo, pekataria halakoa! Ez zenuen berarekin hitz egingo, ez da? Uste nuen baino gehiago ari zara okertzen.
(Ding-dong, txirrina)
- S. Junipera** Nor ote da?
- S. Salustiana** Ez al da berriro bera izango! Gurutzeak zer esan nahi duen erakutsiko diot!
(Ding-dong)
- S. Salustiana** Nor da?
- Koxme** Koxme.
- S. Junipera** Ez da Toñito!
- S. Salustiana** Ahotsa aldatuko zuen. Esan ezazu berriro! Ez dizut aditu eta!
- Koxme** Koxme, Koxme naizela!
- S. Salustiana** Nor?
- Koxme** Koxme, zortzigarren pisuko Eustakiren semea.
- S. Salustiana** Sartu. Zer nahi duzu?
- Koxme** Lagun batekin etxean jolasean ari nintzen eta jostailua leihotik behera erori zaigu. Arropa txintxilikatzeke soka gelditu da. Emango al didazu, mesedez?
- S. Salustiana** Ez dakit ba!

S. Junipera Emaiozu, Sor Salustiana. Ume bat besterik ez da. Mutiko honek ezin du gaiztakeriarik egin.

S. Salustiana Beno ba, oraintxe noa bila. Baino hurrengoan kontu handiagoz ibili, e?

Koxme Konforme!

(Bila joaten da)

S. Salustiana Baina, baina, zer da hau? *(Titizorro bat eskuan dakarrela)*

S. Junipera Sujetadore bat, Sor Salustiana.

S. Salustiana Lotsagabe hori, zer egiten duzu horrekin?

Koxme Esan dizut. Lagunarekin jolasean ari nintzen eta erori egin zait.

S. Salustiana Eta amatxok uzten al dizu bere arroparekin jolasean egiten?

Koxme Ez da amarena, lagunarena da. Mirentxurena.

S. Salustiana Ene ba! Eta zertan ari zineten, dendetara jolasten, ez da?

Koxme Keba, guk txorrada horietara ez dugu jolas egiten.

S. Salustiana Kontuz, mutiko! Neurtu hitzok!

Koxme Jolas horiek ume txikientzat dira. Medikutara ari ginen jolasean.

S. Salustiana Ai ama, zer edo zer gertatu behar zait! Bihotzekoak emango dit!... Nolakoa da jolas hori?

Koxme Nolakoa izango da, ba? Bata gaixoa da eta bestea sendagilea. Orduan, sendagileak gaixoari azterketa sakona...

- S. Salustiana** Sakona?
- Koxme** Sakona, noski! Hasiz gero, gauzak ondo egin behar dira. Oso joko polita da. Jolas egin beharko zenuke.
- S. Salustiana** Ixo!
- Koxme** Sakondu eta gero tratamendu bereziak jartzen ditugu, guztiz praktikoak.
- S. Salustiana** Ai, ai, ezin dut gehiago! Zorabiatu egingo naiz! Mesedez, isildu!
- S. Junipera** Sor Salustiana, zer gertatzen zaizu? Lasaitu zaituz! Jolas bat da. Ez kezkatu horregatik.
- S. Salustiana** Zu ere bai? (*Zorabiatzen hasi eta lurrera erortzen da*)
- S. Junipera** Sor Salustiana, esnatu, esnatu!
- Koxme** Beno, ni banoa, jolasa onenean utzi dugu eta. Agur!

TANGALA DANBA

Arantxa Goiburu

3. mailako ikasleek antzeztua

Komedia

Aita Iparragirre herri ikastetxea

Idiazabal

1992-93

GAIA

Amona Joxepa eta bere bi ilobak Afrikara doaz bertan bizi den osaba bisitatzera. Ohitura desberdinak direla eta, zenbait arazo izaten dituzte egokitze baina, piskanaka, gustua hartzen diote hango bizimoduari. Itzultzeko ordua iristen zaienean, eztabaidak izan ondoren, amona bakarrik itzultzen da.

PERTSONAIAK

Amona Joxepa

Patxi

Karmelo

Luluba

Tatai

Danba

Mogutu

Bimbo

Xanti

1. AGERRALDIA

(Amona Joxepa eta bere bi ilobak Afrikara iritsi berriak dira hegazkinez. Amona oraindik sustoa pasa ezinik dago).

Amona

Jesus, Maria ta Jose! Hau da biajea! Burnizko txori haundi baten barrun hegakan etorri geala pentsatzekin bakarrik, kakalarrie sartzen zat.

Patxi

Ba... ez egin! Bestela...

- Xanti** Ja! Usain txarra jarriko da!
- Amona** Ez dauket bromatako gogoik e! Heldu, heldu! Hau da beroa!
Mareatzea noa!
- Patxi** Komunera zoazela?
- Amona** Mareau ein naizela! Ai, ai!
(Lurrera erortzen da)
- Xanti** Aibala! Zer egin behar dugu orain?
- Patxi** Trankil! Telebistako pelikula batean horrelako zerbait gertatu zitzaien bati. Haize piska bat eta bi belarrondokorekin berehala pasatzen da. Atera ezak maletatik amonaren abanikoa!
- Xanti** *(Poltsan begiratuaz)* Hemen zegok! *(Haizea ematen hasten zaio)*
- Patxi** Emaiok zaplazteko bat! Baina xuabe, e...
(Zaplaztekoa ematen dio)
- Amona** Ai! Nun nao? Ze pasatzen da?
- Patxi** Lasai amona! Mareatu egin zara. Afrikan gaude. Ez al zara gogoratzen? Osaba Karmelo bisitatzera etorri gara.
- Amona** Egie izan e! Ene ba! Nahigo non bai amets bat izan balitz!
Eta nun dao ba bera? Zai eongo zala esan tzon. Nun arraio sartu ote da! Zer ein behar deu oain?
- Patxi** Han, han! Badator! Osaba Karmelo! *(Urrutira agurtzen hasten da)*
(Osaba Karmelo beste lagun batekin gerturatzen da)

- Karmelo** Kaixo! Eguerdion! Zer, ondo iritsi zarete?
- Xanti** Baaaai!
- Amona** Baaaaai! Zea! Ni behintzet ez!
- Karmelo** Lasai! Orain herrira joango gara eta han atsedean hartzeko aukera izango duzue. Begira, hau Bimbo da, herriko lagun bat.
- Patxi** Kaixo! (*Eskua ematen dio*)
- Xanti** Epa Bimbo! Zer izen polita zurea!
- Bimbo** Kaixo! Zer moduz!
- Amona** (*Eskua ematen dio eta begira geratzen da ea zikindu ote den edo. Gero, osabari*) Ikazkiñe al da ala? Ez al da garbitzen o...
- Karmelo** (*Barrez*) Ez da hori. Berez da horrelakoa. Azal beltza daukate hemen denek.
- Patxi** Zortea da! Dutzatu beharrik ez!
- Karmelo** (*Ilobei*) Zuek beti brometan! Garbitzen dira, amona, baina ez zaie kolorerik aldatzen.
- Amona** Horri etzikok koloreik asko aldauko ez! Aze musajea dauken!
- Bimbo** Amona ere beltza, ni bezala!
- (*Amona ez beste denak barrez hasten dira*)
- Amona** Bai! Ze grazioso! (*Keinuka*)

- Karmelo** Beno, abiatu egingo gara! Ni bizi naizen herria hemendik berrogei bat kilometrora dago.
- Amona** Berriz hegazkine hartu ala? Amona Joxepa ez dijo.
- Karmelo** Ez, oinez joango gara! Mendi tontor batean dago eta ez dute oraindik bide tajuzkorik egin kotxez joan ahal izateko, beraz...
- Amona** Berrogei kilometro oinez? La txota!
- Bimbo** Lasai! Nik zu eraman bizkarrean!
- Amona** Zer? (*Lotsatuta*) Bueno, bueno...
- Karmelo** Bai! Bimbo oso indartsua da!
- Patxi** Zuk ez baduzu nahi, ni joango naiz.
- Xanti** Nik ere nahi dut. 'No te fastidia!'
- Amona** Inor ez! Benga! Danok oinez!
- Bimbo** ANGAUA!
- Amona** Han, gaua? Gaua al da han daonekoz? 40 km. baino gehio eongo die ordun! Esan nizuen nik ez gendula etorri behar.
- Karmelo** Bertako hizkuntzan, ANGAUAk GOAZEN esan nahi du. Nik badaramatzat sei urte ia beraiekin bizitzen eta gehienek ikasi dute euskaraz, zuek erdaraz ikasi duzuen bezalaxe; baina, beraien artean beste hizkuntza bat erabiltzen dute. Swahili deitzen da.
- Patxi** Zer guai!
- Bimbo** Euskara oso polita! Guri asko gustatzen! ANGAUA!

Patxi ANGAUA! Iruditzen zait 'tope' pasatuko dugula.

Xanti Bai horixe!

(Denak oinez urrutiratzen dira)

II. AGERRALDIA

(Eszenatokian Luluba eta Tatai agertzen dira txabola aurrean eserita. Agerraldi osoan zehar, Mogutu hetxizeroa jende artean eta eszenatoki izkinetan izkutuka arituko da, ikusmiran)

Amona Demontre! Etzeon ez aman atzaparren!

Patxi Zer etxe politak!

Karmelo Hemen denak horrelakoak dira.

Patxi Eta euria egiten duenean?

Karmelo Euri gutxi egiten du oso. Paraje lehorrak dira hauek guztiz.

Amona Ta... noiz deskantsau behar deu ba? Benga, benga! Kontu gutxigo! Nun dao nere koartoa?

Karmelo Hemengo etxeak gela bakarrekoak dira; sukaldea eta logela toki berbera da. Lurrean egiten dute lo denak batera, lasto gainean.

Amona Ja! Enteinttu det! Akabo nere deskantsue. Eta nere bizkarrezurre 're bai!

Karmelo Patxi eta Xantik Luluba eta Tatairen etxean lo egingo dute. Zu berriz nirekin etorriko zara.

(Luluba eta Tatairi) GANGALA KUTUTU IRA

Urrutitik etorri dira gu ikustera.

Amona Joxepa, Patxi eta Xanti.

(Besteei) Luluba eta Tatai.

- Luluba** Ongi etorri!
- Tatai** Zuek pozik gurekin?
- Amona** Hori gero ikusi beharko deude ze, oaindiokon...
- Karmelo** *(Moztuz)* Bai, bai. Oso pozik. Orain nekatuta daude. Eta gu ere bai, ez da, Bimbo?
- Bimbo** Neke-neke! Jo ta poto, bai!
- Karmelo** Hartu zuen trasteak. Bihar ikusiko dugu elkar.
- (Osabak, Bimbok eta amonak alde egiten dute)*
- Amona** *(Urrutitik)* Hortzak garbitu geode!
- Luluba** Guk eraman trasteak.
- (Lulubak eta Tataiak alde egiten dute eta bi haurrak geratzen dira)*
- Patxi** Jo, hau da gosea! Jango nituzke orain... bi arrautza frijitu patata mordo batekin eta... txorixo mutur... bi txorixo mutur! edo hiru!
- Xanti** Arrazoi zuen osaba Karmelok. Ez du batere hotzik egiten.
- (Beste herritar bat inguratzen zaie)*
- Danba** Kaixo! Lagun Karmelo?

Patxi Zer?

Danba Zuek Karmelo lagun. Ni Danba.

Xanti Danba... Jo egin behar gaitu! Osabarekin gaizki konpontzen denen bat izango da.

Patxi Gu osaba Karmeloren ilobak gara.

Danba Ez lagunak!

Xanti Bueno, bai! Baina ilobak ere bai!

Danba Ez lagunak!

Patxi Ui, ui, ui... a ze foiloia!

Danba Zer izan foiloia? Nik ez konprenditzen!

Xanti Berdin da! Nola duzu izena?

Danba Izena ipurdi gizona. Txantxa da! Ni Danba! Eta zuek?

Patxi Ni Patxi naiz eta hau berriz, Xanti.

Danba Zuek eseri. Ni Danba!

Xanti Eeeee? (*Harriturik begiratzen dio*) A, bai. Zu Danba!

Danba Karmelo esan jana eman. Jan ta lo ta potolo! Karmelo laguna, beti broman gurekin. Bera mediku ona baita ere.

(*Hirurak lurrean esertzen dira borobilean. Danbak ontzi bat ateratzen du eta, eskukada bana eskaini ondoren, jaten hasten dira*)

Danba Dena dena jan! Dena dena jan!

- Patxi** Zer da nazkagarrikeria hau?
- Xanti** Txingurriak dirudite hanka eta guzti.
- Danba** Txingurri oso ona!
- Xanti** *(Hitza entzun orduko ahoan zuena botatzen du)* Uaj! Uste dut bat jan egin dudala. Hilko naiz! Ai, ai, ai! Zer tripako mina!
- Patxi** Batengatik ez zaizu ezer gertatuko. Egia esan, ez daude hain txarrak!
- Xanti** Nocilla ez al duzue jaten? Edo txokolatea? *(Anaiari begira)* Agian janaria ere beltza gustatuko zaie bakarrik. Horregatik esaten nuen.
- Danba** Gero kokodrilo mingaina! Mmmmmmmmmmm!
- Xanti** Ez, ez. Eskerrik asko, Asko jan dugu. Oso ona. Dena oso ona!
- Patxi** Bai. Primerakoa!
- Xanti** Gu nekatuta. Orain lo.
(Argiak itzali eta lotan geratzen dira)

III. AGERRALDIA

(Oihaneko soinuak entzuten dira lehenik eta, ondoren, isilune bat)

- Xanti** E, Patxi! Esnatu hadi! Non zegok hemen komuna?

- Patxi** *(Ahozabalka) Zer behar duk?*
- Xanti** Pixagureak egon ezinda nagok. Komuna urruti ote zegok?
- Patxi** Lo al hago ala? Ez gaudek etxean e! Kanpoan egin beharko duk.
- Xanti** Brrrrr! Ez al duk lehoirik edo ibiliko! Banoa! Berdin da! Nik ez daukat beldurrik! Xanti ausarta naiz! Ejem! Zerbait arraroa somatzen badiat karraxi egingo diat. Bale? *(Besteak lo zurrunkaz erantzuten du)* Lo dago eta! Jo!
- (Kanpora ateratzen da pixa egitera. Oihaneko hotsak entzuten dira berriro)*
- Xanti** Ui, ui, ui... *(Eztarria garbitu eta txistuka hasten da)* Bertantxe egingo dut. Ez da asko nabarmenduko. Horko sasi horiei agian! *(Pixa egiten hasten da)* Patxi, etorri hadi azkar! Txilibitua kateatu zaidak! Ai, ai! Amona! Amona! Lagundu!
- (Linterna batez edo argiturik, Mogutu aztia agertzen da arantzadun sortatxo bat eskuetan duela)*
- Mogutu** TANGALA DANBA! MOGUTU!
UKELE BOLOBA TUMBA TUMBA
- (Xanti erabat izuturik dago, galtzei ondo helduz)*
- Xanti** Ola! Ni Xanti! Eta hau... nire pitilina! Kontuz ibili ze ia-ia...
- Mogutu** TANGALA DANBA! MOGUTU! *(Haserre)*
UKELE BOLOBA TUMBA TUMBA
- (Soka batekin lotzen hasten da. Bitartean, amona agertzen da kamisoi hutsean).*

Amona Zer dezue oain? Ai amatxo maitea! Ooooooooo... Oooooooo, ze gauza itsusie! Ooooooooo... Oooooooooola que tal? Bueno, ze esaten ai naiz? Erderaz ez do jakingo! Nahastu naiz oaintxe! Ze eitten dezu zuk (*Xantiri begira*) Ooooooooooooo... Oi ama! Oooooooooooooolako.... Zer da hori baino!

(Mogutuk haurra lotzen bukatu orduko, gauza berbera egiten du amonarekin)

Mogutu TANGALA DANBA! MOGUTU!
UKELE BOLOBA TUMBA TUMBA!

Amona Ja, ja...! (*Xantiri*) Ezta maitu 're e... baezpare! Ez diogu ulertzen eta... auskalo! Astapistola itxura osoa dauke gizajok!

Mogutu Zajo, zajo! MOGUTU! TANGALA DANBA!

IV. AGERRALDIA

(Argiak pizten dira. Eguna argitu du eta Patxi konturatu berria da bere anaia desagertu egin dela)

Patxi Amona! Osaba Karmelo! Etorri azkar! Xanti falta da! Xanti falta dela!

Karmelo Zer gertatu da?

(Pixkanaka Luluba, Tatai, Bimbo eta Danba ere gerturatzen dira)

Bimbo Amona ere falta! Nik begiratu!

Karmelo Seguru aski...

Luluba Arrasto hauek...

- Tatai** Begira, Mogutu! Bere loreak! Arantzadunak!
- Karmelo** Mogutu zaharra! Pentsatzen nuen, bai! Ez zaio gustatzen bere herrian kanpotarrik sartzea. Are gutxiago txuriak baldin badira!
- Patxi** Zer gertatuko zaie, osaba?
- Bimbo** Guk ekarri! Ez larritu!
- (Danbak eta Tataik danborra ekartzen dute)*
- Karmelo** Hau da gure telefonoa. Mogutu zaharrari deituko diogu. Ea, Bimbo! Prest?
- Bimbo** Bai, hasi!
- Karmelo** Mogutu jaun agurgarri horri.
- Bimbo** *(Danborrean kolpeka)*
- Karmelo** Bi puntu.
- Bimbo** *(Bi kolpe)*
- Karmelo** Eraman dituzun haurra eta amona...
- Bimbo** *(Kolpeak)*
- Karmelo** ...gure lagunak dira...
- Bimbo** *(Kolpeak)*
- Karmelo** ...Karmeloren herrikoak.
- Bimbo** *(Kolpeak)*

- Karmelo** Puntua.
- Bimbo** *(Kolpe handi bat)*
- Karmelo** Zuriak dira, bai, eta itsusi samarrak, denak bezala. *(Patxiri begira)* Berarentzat zuri guztiak oso itsusiak dira, baina ez dira gaiztoak. Jatorrak dira oso. Bimbo, Tatai, Danba eta beste guztiak bezala. Beraz...
- Bimbo** *(Arrapaladan kolpeka hasten da eta denborarik emango ez balio bezala azken kolpea jotzen du)* Puntua eta beste lerrora edo? Ez hain azkar!
- Karmelo** Erantzun mesedez!
- Bimbo** *(Kolpeka)*
- Karmelo** Zer esan diozu gero?
- Bimbo** Mugitzeko! *(Besteei begira barrez)*
- Patxi** Aibala! Zer ondo! Eta berak zuen eskutitz hori ulertuko du?
- Karmelo** Noski! Berehala entzungo dugu erantzuna
- Bimbo** TANGALA DANBA MOGUTU.
KANPOTARRAK, ALDE!
Erre eta jan egingo dituela dio.
- Patxi** Ez, mesedez! *(Negarrez hasten da)*
- Karmelo** Esaiozu mesedez ez horrelakorik egiteko! Berarekin hitz egin nahi dudala!
- Bimbo** *(Kolpeka)*

V. AGERRALDIA

(Amona eta Xanti lotuta daude. Mogutuk egundoko oihuak eta imintzioak eginez dihardu inguruan biraka)

Xanti Amona! Ez al daukazu beldurrik?

Amona Bai, baina... disimulatu ein behar da Xanti! Ez dezala berak holakoik pentsau! Begira e... zu isil-isilik eon! Ni saiauko naiz... TANGALA DANBA!

Mogutu TANGALA DANBA!
UKELE ZULULU!

Amona *(Kantari)* DRINGILIN DRON GAUR GABON
DRINGILIN DRON GAUR GABON

Mogutu DRINGILIN DRON GAUR GABON
DRINGILIN DRON GAUR GABON

(Barrez hasten da)

Amona Ni entretenitzen saiatzen naizen bitarten zuk sokea askau, baino bera konturau be, noski! Bestela... akabo! Honek jenio txarra dauke geo!

ZIZAREON ZIZAREA
TA-TA-TA-TA-TA-TA-TA-TA
ZIZI-PAZA IZARPEAN
TA-TA-TA-TA-TA-TA-TA-TA
ZI-PA-ZIZI-PA-ZIZI-PAZA-PAZO
ZI-PA-ZIZI-PA-ZIZI-PAZA-PAZO

Mogutu *(Barrez lehertzen)* ZIZI PAZA PAZO
DRINGILIN DRON GAUR GABON

(Bitartean Xantik amonaren soka askatzen du. Hau geldigeldi geratzen da eta Mogutu atzera begira dagoen tarte bat aprobetxatuz, zango trabatu eta karate kolpe batez lurrera botatzen du)

- Mogutu** ALA, ALALA, ALA! U BA!
- Amona** Ala, bai! Ze geo! Ala! Eon oain hor!
- Mogutu** TANGA!
- Amona** Ala! TANGA bai! TANGA! Etzan lurrean!
MOGUTU! Eta ez mugitu!
- Xanti** Ni ere askatu beharko nauzu ba, ala?
- Amona** Bai, bai. Nola ez!
- (Une berean besteak gerturatzen dira)*
- Karmelo** Amona, Xanti, ondo al zaudete?
- Patxi** *(Biak besarkatuz)* Eskerrak!
- Mogutu** TANGALA DANBA
- Tatai** Horrek berearekin segi!
- Danba** Kaskagorra da eta!
- Luluba** Konbentzituko dugu! Askatu egin behar dut!
- Karmelo** Agian bai! Eseri gaitzen denok!
- Amona** Bai, eta? Seguro al gare? *(Moguturi)* '¡Qué genio!'
- Luluba** *(Moguturi)* KOKOLO UNGA UNGA
TANTAKA BUZUTU KIA

Gure lagunak zaretela esan diot. Zuen herriko gauzak erakutsiko dizkiguzuela.

Xanti

Txingurriak asko gustatzen zaizkigula ere esaiozu.

Patxi

Futbolean jokatzen erakutsiko diogula.

Amona

Epa! Epa! Ez gea betiko etorri e! Ikusi deu osaba Karmelo oso ondo daola eta... lehenbailehen etxea bueltatzea izango deu onana. Gizon hau gehiegi hasarrau baino lehen.

Xanti

Jo, amona, denbora gutxi pasa dugu!

Amona

Nahikoa!

Patxi

Lagun egin da ia! Hemendik aurrera ez dugu arazorik izango! Gauza berri asko ikasiko dugu hemen!

Amona

Susto galantak! Hoixe besteik ez!

Karmelo

Ez da ba ezer gertatu!

Amona

Gutxi iruittuko zatzu oain artekoa! Ni kamixoi hutsen hemen.... Ene ba! Goazen hemendik etxea!

Karmelo

Ez al zaude gustura?

Amona

Nere oilok e... han eongo die bakar-bakarrik kooooo-koooooo kokokokooooooneez!

Mogutu

MOGUTU KATANGA JAJAJA AIBA

Tatai

Oso gaizki kantatzen duzula dio. Baina... atsegina zarela

Amona

Ja-ja-ja POTONGO!

(Mogutu barrez eta keinuak eginez)

- Patxi** Bere hizkuntza ikasi duzu ala? Badirudi ulertzen dizula!
- Karmelo** Ez, baina grazia egiten dio.
- Amona** Nei e bai. Jenio txar samarra dauke baino! Honi tanborra jotzea gustatzen zaio asko!
- Patxi** Ez da danborra. Telefonoa da!
- Amona** Bai ta zea 're...
- Bimbo** Egia da!
- Amona** Ia ba! Utzi piska bat! Ein behar det nik e dei bat eta!
(*Danborradako martxa jotzen hasten da*)

(*Berehalaxe, beste denak bere inguruan saltoka eta dantzan*)
- Bertakoak** (*Kantari hasten dira*) GERATU GUREKIN... (*Danborrada doinuan*)
- Amona** Ni ez behintzet!
- Mogutu** (*Amonari*) GERATU GUREKIN!
MOGUTU! TANGALA DANBA EZ !
- Amona** POTONGO!
ZOKOR MAZOA... Ai,ai,ai!
SEGA POTOA! ALA!
- Mogutu** DRINGILIN DRON
GAUR GABON
- Amona** 'Guapo, más que guapo!'
- Mogutu** ZIZI PAZA PAZO

Amona

Bai, ala! Patxi eta Xanti geauko die zuekin! Ni banoa oilok zaintzea.

Mogutu

TANGALA DANBA EZ!
TANGALA DANBA EZ !

(Musika tartekatuz, amona Joxepa ateratzen da antzezleen aurkezpena egitera)

URKULETAKO BAINUETXEA

Joxe Martin Urrutia
8. mailako ikasleek antzeztua
Komedia
Kurutziaga ikastola
Durango
1993-94

GAIA

Neskato batek etxetik ihes egiten du eta bainuetxe batean *botones* edo mandatari gisa lanean hasten da. Bertako gertakizunak dira antzezlanaren muina.

PERTSONAIAK

Idazlea	Eustaki (ama)
Iru (irudimena)	Musika irakaslea
Johnny	Entrenatzailea
Missisipi Willy	Don Tomas
Tito	Sir Valenty Kondekoreixon (jenerala)
Nati (ama)	Pitita Burugogorzky (artxidukesa)
Juliantxo (umea)	Joakin Txintxurreta Gibelustel
Pepe Klinex	Billy Colt
Pako	Txomin Palanka
Matxalen	Martinikorena sarjentua
Timoteo	Mitxelena kaboa
Felix (aita)	

(Eszenatokia ilun dago eta ez da ezertxo ere ikusten. Bat-batean, flexo argi bat pizten da. Idazlea azaltzen da, folioak aurrean eta boligrafoa eskuan. Pentsakor dago; paperak begiratzen ditu, ingurua miatzen du eta berriro ere pentsakor gelditzen da. Mahaitik altxatu eta bueltak ematen hasten da)

Idazlea Betiko leloa, enkargu bat dut eta nire burua paper horiek baino zuriago dago.

(Albo batera joan eta pentsatzen jarraitzen du. Keinu bat egiten du, zerbait bururatu balitzaio bezala)

Tate! Hori duk!

(Mahaira hurbildu eta bertan jartzen da idazten, baina handik gutxira...)

Ez! Ez da egokia!

(Papera esku artean zimurtu eta bota egiten du, baina botatzerakoan)

Beste era batean planteatzen badut?... Bai, hori da, beste era batean.

(Beste orri bat hartu eta idazten jarraitzen du. Mahaira igotzen da, barku baten kapitaina dela imajinatuz)

Marinel trebeak! *(Erantzuten diotelakoa eginez)* Bai, kapitaina? *(Agintari)* Atera ezpatak eta egon adi nire aginduetara!

(Poz-pozik, mahaitik jaitsi eta idazteari ekiten dio, baina berehala...)

Kaka zaharra! Hori orain dela bi urte idatzi nuen.

(Eserlekitik altxatu, papera esku artean estutu eta ostikada bat ematen dio)

Mahai azpikoa Gol-gol-gol-goooooooooooo!

Idazlea Hori orain dela lau urte idatzi nuen. *(Mahaira hurbiltzen da)* Nire buruak iturri agortua ematen du, iturria zabaldu eta bertatik uraren oihartzuna besterik ez dut entzuten...

(Paperak hartu eta apurtzen hasten da. Zerbait topatu nahi du orri zurietan...)

Baina... lehen entzun dudan ahotsa ez zen nirea, mahai azpitik irten da. *(Mahai azpira begiratzeko du eta bertan norbait lo dagoela ikusten du)*. Nor zara zu? Eta... gainera, zertan zaude nire mahaiaren azpian?

Mahai azpikoa Ua, ua, ua! Utzi pakean, logura handia dut eta!

Idazlea Irten zaitetz berehala hortik poliziei deitzea nahi ez baduzu!

Mahai azpikoa Banoa, kakalarri! Batzuetan urteak ematen ditut lo eta nirekin ez da inor gogoratzen. Eta zasta! Beharrezkoa naizenean, oihuka altxarazten naute; eta gainera mehatxuekin: 'Irten zaitetz berehala, bestela poliziei deituko diet'. Kakalarria halakoa! *(Hau esan ahala, mahai azpitik irten eta altxatu egiten da)*

Idazlea Baina nor zara zu niri horrela hitz egiteko? E???

Mahai azpikoa E, mutikoa, jaitsi zaitetz motorretik, bestela banoa eta.

Idazlea Ez, ez; ez zaitetz joan, egun txarra dut eta zuk ez duzu errurik. Baina esango didazu nor zaren, mesedez?

Mahai azpikoa Beno, aldaketa nabaria da. Ni naiz... eske, lotsa ematen dit zure aurrean esatea.

Idazlea Animo, motel!

Mahai azpikoa Beno ba, ni zure irudimena naiz, baina lagunek Iru deitzen didate.

Idazlea Lagunek?

Iru Bai! Asko ditut, Oro, oroimena, lodia eta jatorra; Adi, adimena, argala eta kakapirria...

- Idazlea** Nahikoa, nahikoa da! Sinisten dizut; eta orain, mesedez, joan zaitez, lana dut eta.
- Iru** Joateko? Zeuk deitu nauzu eta!
- Idazlea** *(Pentsakor)* Neuk?
- Iru** Bai, oker ez banabil ez duzu ideiarik paperak letraz betetzeko, ez da?
- Idazlea** Egia da!
- Iru** Poltsikoan dut zuk behar duzuna; ikusi besterik ez duzu, nahi baduzu, noski.
- Idazlea** Bai horixe, nahiko ez dut ba! Dena den, gustatzen ez bazait beste gauzaren bat aukera dezaket?
- Iru** Jakina! Poltsikoak bete-bete eginda dauzkat. Begiratu! *(Eskua poltsikoan sartu eta bertan duena erakusten dio)*
- Idazlea** Gustatzen zait, oso polita da... Eta zer izen du?
- Iru** ‘Urkuletako Bainuetxea’! Hurrengo eszena beste poltsikoan dut; ikusi nahi al duzu?
- Idazlea** *(Publikoari begira)* Ez, ez! Erakutsiko didazu beste toki batean, bestela hauek dena jakingo dute.
- Iru** De dio! Nondik irten dira? *(Eskua berehala poltsikoan sartuz)*
- Idazlea** Goazen beste toki batera eta han jarraituko dugu hizketan.
- Iru** Ez dut uste hauek sekretuak gordetzen dakitenik!

(Publikoari sorbalda eman ez aldentzen dira, Iruk poltsikotik atera duen hurrengo eszenari begira. Eszenatokia ilunpean gelditzen da berriro ere. Alboetatik bi pertsonaia agertzen dira: batek titiritero edo saltinbanki itxura du; besteak kutxa handi bat garraiatzen du. Kaxa dakarrena amerikanoa da eta Johnny du izena. Bestea Tito da, Arrasatekoa)

Tito Gaur egun dotorea dugu, 'Txoni', kapelak hegaleraino beteko ditugu diruz.

Johnny Egunero gauza berbera esaten duzu eta gero ipurdia justu-justu. Txanponak zorroan pegatuta dituzte, ondo pegatuta ere!

Tito Egia esan, ez dira garai onak eta hori igarri egiten zaio jendeari. Baina gaurkoa ezberdina izango da... hala esaten dit sudur punta honek!

Johnny Gure urdailek eskertuko lukete, bai horixe! Bokatak jaten asper-asper eginda nago.

Tito Animo, 'Txoni'! Gaur izugarrizko banketea egingo dugu.

Johnny Presta gaitzen! Laister irtengo da jendea lanetik eta umeak eskolatik.

(Bakoitza eszenatokiaren alde banatan jartzen da eta euren trasteak prestatzen dituzte. Johnny-k txotxongilo handi bat eta radiokasetea ateratzen ditu kutxatik eta Titok hiru pelota eta diaboloa. Prest daudenean...)

Johnny Prest zaude, Tito?

Tito Okey, 'Txoni'.

Johnny Arratsaldeon hiritarrok! Gure ikuskizuna hastera doa. Alde batetik Missisipi Willy-k benetako bluesa ekarriko digu zuzen-zuzenean bere armonikarekin eta hor, beste aldean, Titok grabitateari keinuak egingo dizkio bere gauzekin.

(Johnny-k radiokasetaren play-ari sakatzen dio eta ikuskizuna hasten da. Poliki-poliki jendea hurbiltzen doa. Lehenengo ama bat bere umearekin. Arineketan pasatzen dira euren aurretik)

Nati Arin, arin, bokadiloa jan eta musikako klaseetara joan behar duzu!

Juliantxo Nazkatuta nabil, pizza banatzaile bat ematen dut.

Nati Segi aurrera, lanbide hori besterik ez duzu aurkituko eta.

Juliantxo Ama! Jo! Gelditu gaitezen hemen bokata jaten eta horrela zer egiten duten ikusiko dugu.

Nati Aide, aide, ez dut denborarik eta! Pelukerak ordua eman dit eta ezin dut galdu.

(Ama aurretik eta umea atzetik, alde egiten dute. Umeak irten aurretik, klinex saltzaile bat sartzen da. Keinu bat egiten die Johnny eta Titori baina, lanean ari direnez, ezin dute erosi... Ama eta umea desagertzen direnean...)

Pepe Klinex Eraman ezazu beti klinex pakete bat poltsikoan; horrela ez diezu doministikuei beldurrik izango, komun publikoetan eta tabernetan ez duzu begiratu behar izango ea non dagoen papera eta beti eramango duzu agenda aldean. Orain erosi nahi ez baduzu, 'Pepe Klinex!' oihu egin eta txistuaren pare agertuko naiz.

(Ama eta umea berriro sartzen dira)

- Nati** Ondo da! Baina gaur bakarrik e! Eta nahikoa dugu petralkeriaz, hartu bokadiloa eta ikusi.
- Juliantxo** Eta artistei botatzeko dirua?
- Nati** Dirua! 'Lo que faltaba!' Jan bokadiloa eta txintik ere ez!
- Juliantxo** Ba deskontatu pagatik!
- Nati** Lotsagabea halakoa, hartu eta utzi pakean, bestela berotuko zaitut!
- (Kanpotik oihu bat entzuten da doministiku batekin batera)*
- Pako** Pepe Klinex! Arkuxun!
- (Kamarero bat sartzen da bandeja eta guzti ekilibrioak egiten, bandejan daramatzanak jausi ez dakizkion)*
- Pepe Klinex** Lasai, Pakoo! *(Toreroarena eginez)*
- Pako** Emaidak paketetxo bat, izugarrizko tranka harrapatu baitiat.
- Pepe Klinex** Har ezak!
- (Une horretan Johnny-k eta Titok lehen numeroa bukatzen dute eta bigarrena hastera doaz)*
- Tito** Eskerrik asko, publiko maitea. *(Johnny-k txotxongiloa laga eta kapela pasatzen du publikoaren artean)* Bigarren ekitaldiari hasiera emango diogu.
- Johnny** Prest. Tito?
- Tito** Okey, 'Txoni'.

(Tito eta Johnny bigarren ekitaldiarekin hasten dira. Lehena azkarra eta martxosoa izan da; bigarrena, ostera, lasaia. Guztiak Tito eta Johnny-ren ikuzkizunari begira daude. Bitartean, albo batetik Matxalen, neskato bat, agertzen da izugarritzko maletarekin)

Pako Kaixo, neska, nora zoaz maleta handi horrekin?

Pepe Klinex Ziur klinexak behar dituzula.

(Neskatoak ez die jaramonik egiten. Mutikoarengana hurbildu eta bere ondoan jartzen da, Missisipi Willy-ren emanaldia ikusten. Bitartean, Pepe Klinex-ek bokadilo bat ohosten dio Pakori)

Pako Badirudi mutua dela!

Pepe Klinex Ejem! Bai... eta ez duela dirurik klinexak erosteko. Banoa alboko semaforora, hemen ez dut piperrik ere saltzen eta.

Pako Eta ni ondoko piszinetara, bestela Benito moskeatu egingo da.

Juliantxo Kaixo, neska! Zu ez zara hemengoa, ez da?

Matxalen Igartzen zait ala?

Juliantxo Beno... Ez duzu maleta guztia liburuz beteta edukiko?

Matxalen 'Qué va!' Erropak eta beste gauza batzuk...

Juliantxo Hortik zehar zoaz gurasoekin bidaia bat egitera.

Matxalen Beno, joan-joan ez, etorri nator, eta guraso barik nago.

Juliantxo Guraso barik! Bakarrik!

- Matxalen** Hori da, etxetik ihes egin dut.
- Juliantxo** Zer? Hanka egin duzula? Demasa! Zu bai ausarta!
- Nati** Goazen! Ordua da eta!
- Juliantxo** Lasai ama, berbetan nago, ez duzu ikusten ala?
- Nati** Mugitu zaitez nire aurretik, ez daukat brometarako gogorik eta!
- (Ama eta umea joaten dira eta Matxalen, Johnny eta Tito gelditzen dira bakarrik. Numeroa bukatzerakoan, Matxalenek gozoki bat botatzen du Johnny-ren sonbreroan, ez baitu dirurik)*
- Tito** Mila esker, publiko maitea!
- Johnny** Txapela txanponaz hegaleraino bete behar genuela, e? Sudurra mukiz beteta duzu!
- Tito** Baliteke, bihar egun hobea izango dugu, ez larritu.
- Johnny** Eta zuk? Ez duzu nora joan ala?
- Matxalen** Ez!
- Tito** Kontxo, neska iheslari bat, benetan ausarta!
- Johnny** Utzi berriketak eta goazen beste toki batera, bestela ez dugu izango bokatak jateko dirurik ere.
- Tito** Beno, neska, ikusten duzu, gu ez gara aproposenak zuri laguntzeko. Bihar hemen bazabiltza eta guk zorte handiagoa badugu...

- Johnny** Bihar izan beharko du. Dena den, Missisipi Willy-k ez du ahaztuko eman diozun gozokia.
- Tito** Agur, neska.
- Matxalen** Agur.
- (Neskak nekatua dirudi eta parkeko izkina batean jartzen da. Betazalak beruna legez sentitzen ditu eta loaren besoetan kulunkatzen da. Albo batetik figura handi bat sartzen da: ametsa da. Bertan, neskatoaren aita, Felix eta ama, Eustaki, agertzen zaizkio; gero musika irakaslea eta entrenatzailea)*
- Felix** Hemen dago! Topatu dugu!
- Eustaki** E, zuek! Topatu dugu, zatozte!
- Felix** Esna zaitez, lotsagabea, etxetik ihes egitea ez da hain erraza.
- Eustaki** Hemen duzue etxeko ardi galdua, lurrean, ijito bat bezala.
- Matxalen** Utz nazazue bakean!
- Musika irakaslea** Etzanda ikasiko dituzu arpegioak. Arraioa, nola da posible?
- Matxalen** Zertarako? Alde batetik bestera zoroen pare ibiltzeko! Berdin zait.
- Entrenatzailea** Lasai gaitzen, honela ez dugu ezer lortuko. Begira Matxalen, egoera larria da eta denok urduri gaude. Badakit txarto pasatzen ari zarela eta egiten duzun hainbat gauza ez duzula gustuko. Baina beste ekintza batzuetan, adibidez baloi...
- Matxalen** Kontxo, nola hitz egiten duen baloiaren erreginak... bote, bote, bote, partidua, partidua... e! Alde hemendik!

- M. irakaslea** Baina neska, nola utziko zaitugu hemen, bakarrik?
- Matxalen** Bazenekite etxetik alde egin dudanean zer nolako pisua kendu dudan gainetik...
- Eustaki** Guk ere sentitu dugu!
- Felix** Eustaki!!!
- Matxalen** Banekien, antzerkirik ez egin eta utzi bakean, mesedez.
- (Denek Matxalen inguratzen dute eta bere inguruan bueltaka hasten dira)*
- Denak** Bakarrik, Matxalen!!! Matxalen, bakarrik!!!
- (Matxalen amesgaiztotik esnatzen da)*
- Matxalen** Ez!!!
- (Matxalen esnatzen deneantxe, gizon bat bere paretik pasatzen ari da)*
- Timoteo** Ez!!! Makaleko sustoa. Ondo zaude?
- Matxalen** Bai, uste dut baietz. Amesgaizto bat izan dut.
- Timoteo** Amesgaizto bat e? Baina... hor egin duzu lo gaur gauean?
- Matxalen** Bai, uste dut baietz. Hemen jarri nintzen atsedean hartzeko asmoz eta gau guztia bertan egingo nuen.
- Timoteo** Eta...
- Matxalen** Zer egiten duen ni bezelako neska batek, bakar-bakarrik, parkean lo egiten? Ba... etxetik ihes egin dut.

- Timoteo** Neska ausarta!!! Eta nora joango zara orain, galdera gaiztoa ez bada?
- Matxalen** Horrela, bat-batean, ez dakit; baina dudarik gabe, lana topatzera.
- Timoteo** Ongi pentsatuta dituzu gauzak eta hori oso garrantzitsua da kasu hauetan.
- Matxalen** Ez pentsa, burua txoriz beteta dut; alde batetik bestera doaz, batzuetan irla txiki batera, besteetan kale ilunetara.
- Timoteo** Ez ezazu horrela hitz egin, beldurtu egiten nauzu eta.
- Matxalen** Neuk ere askotan beldurra dut, baina aske sentitzen naiz eta inoiz ez dut eduki horrelako sentsaziorik. Badirudi hanketatik burdin zati batzuk kendu dizkidatela.
- Timoteo** Beno, askatasunaren lehenengo usainak horrelakoak dira, baina beste baldintza gogor batzuk ere baditu. Dena dela, ez dezagun usain fresko hori hondatu.
- Matxalen** Hori, sakon arnas dezagun!!!
- Timoteo** Ez dakit zergatik, baina behar zenuela uste dut.
- (Timoteo pentsakor gelditzen da)*
- Matxalen** Zerbait gertatzen zaizu?
- Timoteo** Begiratu, ni bainuetxeko garbitzailea eta atezaina naiz; gaur hasten da denboraldia eta zuzendiariak mandatari bat behar du. Nire loba zarela esango diogu eta baliteke lanpostua eskuratu ahal izatea.
- Matxalen** Brometan ari zara.

Timoteo E! Timoteo garbitzaile arrunt bat besterik ez da izango, baina bere hitza beti betetzen du.

Matxalen Demasa, Timoteo!

Timoteo Honela askatasunaren usain desberdinak probatuko dituzu. A! Eta beste gauza bat. Zure gurasoak agertzen badira, eurekin joan beharko duzu.

Matxalen Mesedez, Timoteo, jarrai dezagun usain freskoarekin.

Timoteo Bale. Hartu maleta eta zoaz bainuetxerantz.

(Matxalenek maleta hartzen du eta alde egitera doaz)

Timoteo Beno, zuzendariari zera esango diogu... beste gauza bat, nola da zure izena?

Matxalen Matxalen.

(Irtetera doazenean, Don Tomas sartzen da. Urduri dagoela dirudi)

D. Tomas Gaur bertan zabalduko dugu bainuetxea eta dena hankaz gora dago, eta are okerrago, oraindik ez dugu mandataririk. Zer pentsatuko ote dute gure bezeroek. Urkuletako Bainuetxeak betidanik zerbitzu paregabea izan du. Gure etxearen izena Europako bainuetxe ospetsuenekin batera ibili da ahoz aho: Alzola, Urberuaga, Baden-Baden... Eta orain mandatarik barik. Timoteo gazteagoa balitz, berak bete zezakeen hutsunea, baina zahartuta dago eta ez du egoki ematen. Garai batean ataria jendez beteta egoten zen lanpostu hau hartzeko prest eta orain...

(Timoteo eta Matxalen sartzen dira)

Timoteo Egunon, nagusi!

- D. Tomas** Egunon, Timoteo. Zein da zure atzeko hori? Bezeroa bada, esaiozu horrelakoak ez ditugula onartzen! Hau etxe dotorea da, ez ostatu kaxkar bat.
- Timoteo** Nagusi!
- D. Tomas** Ez eta ez; Timoteo, ez zara konturatzen gure etxeak prestijioa duela? Bertan goi mailako jendea bakarrik egoten da. Eta gainera, neure senetik aterata nago. Bainuetxea zabaldu behar eta oraindik ez dugu mandataririk; zoaz zeure egin-kizunetara eta bidali bezeroa.
- Timoteo** Baina nagusi, horretaz hitz egin nahi nizun.
- D. Tomas** Zertaz?
- Timoteo** Mandatariaren kontuaz!
- (Don Tomasi bonbilak pizten zaizkio)*
- D. Tomas** Zure atzeko hori ez zen ba mandatari lanera etorriko?
- Timoteo** Ba... horrelaxe da, nagusi, nire loba da eta...
- D. Tomas** Kendu paretik! Gazte itxura... beno, uniformearekin... primeran. Zure izena?
- Matxalen** Matxalen.
- D. Tomas** Matxalen. Ondo da.
- Timoteo** Baina, nagusi...
- D. Tomas** Ez bainarik eta ez lekarik! Zoazte aldageletara, bainuetxea zabaltzeko dena prest ipini behar dugu eta, arin! Hemen nahi zaituztet bost minutu barru, arin!

(Timoteo eta Matxalen aldageletarantz joaten dira)

- D. Tomas** Makaleko pisua kendu dit gainetik Timoteok. Badirudi pieza guztiak bere tokian daudela. Beraz, has gaitzke dena antolatzen. Urtetik urtera zailagoa da negozio hau zutik mantentzea, baina Don Tomas –'o sea', neu– buru den bitartean negozio honek tente jarraituko du.
- Matxalen** Nagusi, prest gaude!
- Timoteo** Prest, nagusi!
- D. Tomas** Timoteo eta Matxalen! Presta ezazue dena. Dena garbi eta txukun gura dut, gauza guztiak bere tokian.
- Matxalen eta Timoteo** Bai, nagusi!!!
- (Hirurak alde batetik bestera dabiltza, gauzak txukuntzen. Dena bere tokian dagoenean, Don Tomasek kotxe baten zarata somatzen du eta atera hurbiltzen da)*
- D. Tomas** Jenerala da! Jenerala! Bakoitza bere tokira.
- Timoteo** Sir Valenty Kondekoreixon jenerala!
- D. Tomas** Arratsaldeon, Kondekoreixon jenerala!
- Jenerala** Arratsaldeon, Tomas jauna. Begibistan dago mandatari berria kontratatu duzula, eta itxura onekoa gainera.
- D. Tomas** Zure gustukoa izatea espero dut, jauna.
- Jenerala** Bere aurpegiak Jartuneko bataila gogorazten dit. Inoiz kontatu dizuet...
- Timoteo** Bai!!!

- D. Tomas** Ez! Xxx!!!
- Jenerala** Jartuneko harresien aurrean geunden. Gure armadak mila soldadu zeuzkan, denak zalduneriakoak eta eurak, aldiz, hoge mila, denak beltz-beltzak. Atzean basamortua genuen; beraz, ezin genuen atzera egin, gure irtenbide bakarra hiria hartzea zen. Zorrotz begiratu nion tronpeta gazteari eta oihukatu: Aurrera!!! Aurrera!!! A! A!
- D. Tomas** Betiko unean atakeak eman dio. Matxalen! Eraman ezazu bere gelara, berehala pasatuko zaio eta.
- Timoteo** Barkatu, nagusi! Baina beti istorio bera kontatzen du.
- D. Tomas** Badakit, baina etxe santu honetan bezeroa da garrantzitsuena. Eta gainera honek duen diru guztiarekin...
- Timoteo** Errepertorioa aldatuko balu badarik ere!
- Matxalen** Poliki-poliki pasatzen ari zaio.
- D. Tomas** Beste kotxe bat iritsi da. Seguraski artxidukesa izango da. Bakoitza bere tokira. Arin, Matxalen.
- Timoteo** Pitita Burugogorzky, Bielorrusia eta Tartariako artxidukesa!
- Pitita** Aaaa! Don Tomas, irrikitan nengoen zure bainuetxean egoteko.
- D. Tomas** Zure esanetara, madame!
- Pitita** Aaaa, betiko jendea, betiko lekua, gauza guztiak bere tokian, benetan hunkigarria. Munduan dena aldatzen doa, Urkuletako bainuetxea izan ezik, benetan hunkigarria. Aaa!
- D. Tomas** Hala da, madame, hala da.

- Pitita** Ez pentsa konturatu ez naizenik, ikusi dut mandatari berria dugula, baina aldaketa txiki hau onerakoa iruditzen zait. Aaa ‘pillin, pillin’, aaa!
- D. Tomas** Etxe honetan dena zure gustura egon dadin saiatzen gara, madame.
- Pitita** Bidaia luzea izan dut eta nekatuta nago. Dena den beti...
- Timoteo** Ba uste dut...
- D. Tomas** Bai, lehena zara, beti bezala.
- Pitita** Ohiturak, ohiturak gorde behar dira. Ohitura barik gizakiok zer gara? Aaaa!
- D. Tomas** Horrela da, madame! Matxalen, lagundu iezaiozu artxidukesari bere logelara.
- (Matxalenek eta artxidukesak alde egiten dute)*
- Timoteo** Zergatik eman behar diogu arrazoia atso zahar horri?
- D. Tomas** Isil zaitez eta konfidantza gutxiago! Badakizu norbaitek kontra egiten badio konortea galtzen duela; beraz, isil zaitez. Nahikoa dugu jenerala eta bera eztabaidan hasten direnean.
- Timoteo** Isilduko naiz, nagusi, baina egunen batean...
- Matxalen** Artxidukesa bere logelan utzi dut eta nire lehenengo propina jaso dut, urrezko txanpon bat.
- Timoteo** Begiratu ezazu ongi, ziur txokolatzkoa dela.
- Matxalen** Egia, joe atso zahar horrekin!!!

- D. Tomas** Zu ere bai? Ez dut horrelakorik entzun nahi. Etxe santu honetan bezeroa da garrantzitsuena.
- Timoteo** Bezeroek portzelanazko lore-ontziak ematen dute.
- D. Tomas** Oso ondo, Timoteo. 'Por fin!' Harrapatu duzu ideia.
- Timoteo** Bai, nagusi, zuk hala badiozu...
- Matxalen** Beste kotxe bat iritsi da atera.
- Timoteo** Hirugarren pelmazoa izango da.
- D. Tomas** Aspertzen ari naiz, Timoteo. Nire pazientzia ez da agortezina! Hitz egingo dugu geroxeago. Orain bakoitza bere tokira.
- Timoteo** Joakin Txintxurreta Gibelustel jauna!
- Joakin** Arkuxun!!! Don Tomas, Don Tomas, ekarri nauen taxista denuntziatu egin behar dugu. Hiltzaile bat da, larri-larri nago hemen bizirik, psikopata hutsa da. Oso tipo arriskutsua.
- D. Tomas** Lasai, gizona, hartu arnasa eta kontatu!
- Timoteo** Ziur naiz...
- D. Tomas** Zer???
- Timoteo** (*Ahopeka, Matxaleni*) Txorrada bat izango dela.
- Joakin** Arkuxun!!! Begira, Don Tomas, bidaia guztian taxiseko leihoa zabalik ekarri du eta mesedez isteko eskatu diodanean, badakizu zer egin duen?
- D. Tomas** Ez.
- Joakin** Purua piztu! Puru bat! Oso larri nago, Don Tomas, ia ezin dut arnasarik hartu.

D. Tomas Lasai Joakin, orain igo gelara eta utzi dena nire kontura. Matxalen, lagundu iezaiozu!

(Matxalen eta Joakin desagertzen direnean)

Timoteo Zuhaitzetik orria burura jaustea nahikoa Joakini zauria egiteko. Atentatua izan dela esango luke, gainera, eta zuhaitzak ebaki egin behar direla. Memeloa halakoa!

D. Tomas Timoteo!

Timoteo Bai, nagusi, etxe santu honetan bezeroak dira garrantsitsuena, eta ez hori bakarrik, portzelanazko lore-ontziak baino delikatuagoak dira.

D. Tomas Mugi zaitez nire aurretik, urteroko festa antolatu behar dugu eta; arin, eta txintik ere ez!

Timoteo Bai, nagusi!!!

Matxalen Joakin Txintxurreta jauna bere gelan dago arnasa hartzeko ariketak egiten eta badirudi primeran dagoela. Baina... Non sartu dira hauek?

(Ingurura begiratzen du eta inor ez. Lore-ontzi baten aurrean)

Matxalen Kaixo, loreak. Zuek ni bezala, preso zaudete. Baina ez pentsa askatasuna txantxetako gauza denik. Arrazoia zuen Timoteok gauza onak zein txarrak dituela esatean. Begira, nik neska-mutikoek aginduak bete besterik ez zutela egin behar uste nuen. Nagusi izanik dena erraza zela eta, are errazagoa lana izanez gero. Baina 'tururu de la guri-guri!' Timoteo, nortasun handikoa izanagatik, beti dabil atzera eta aurrera bai-nagusi bai-nagusika. Eta Don Tomasek, nagusia izan arren, bezeroen kapritxo guztiei men egin behar die: 'Bai, jauna! Nola ez,

madame!’ Benetan kezkatzekoa askatasunaren kontua. Nik bakoitzak bere buruaren jabe izan behar duela uste dut baina, dirudienez, txanpon asko dutenek bakarrik dute aukera hori.

(Matxalen loreekin berbetan ari den bitartean Timoteo, sartu da eszenatokian eta, poliki-poliki, Matxalenengana hurbiltzen da)

Timoteo Damututa al zaude?

Matxalen Makaleko sustoa eman didazuna! Ez, ez... damututa ez, esperientzia hau momentuz gustukoa dut, baina sorpresak hartzen ari naiz.

Timoteo Eta hau hasiera besterik ez da. Baina ez zaitez beldurtu, bakoitzak bere asmoak eta gogoak ikertu behar ditu.

D. Tomas Zer asmo eta zer asto!!! Mugi, festa prestatu behar dugu. Hemendik bost minutura aurkezpena egingo dugu. Matxalen, prestatu tea eta kafea, bezeroak laister ditugu bertan eta!

(Hirurek alde egiten dute eta Sir Valenty Kondekoreixon jenerala sartzen da)

Jenerala Benetan lasaia da toki hau, mundutik aparte gelditzen den irlatxoa. Gorputza eta arima bere senera etortzen diren tokia.

Pitita Arratsaldeon, Sir Valenty!

Jenerala E! Arratsaldeon, Pitita andrea, beti bezain ederra ikusten zaitut!

Pitita O, Valenty, lotsaraziko nauzu! Zer moduz zaude?

Jenerala Ongi, ongi. Noizbehinka ataketxo bat izaten dut, baina gerra handia eman behar dut oraindik. Eta zeu?

- Pitita** E... ba, ikusten nauzu. Dena den, nire odol beroak noizbehinka disgustutxoren bat ematen dit.
- (Joakin sartzen da bertan)*
- Joakin** Arratsaldeon, lagun maiteok!
- Jenerala eta Pitita** Arratsaldeon, Joakin jauna!
- Joakin** Hemen gaude berriro, betikoak, mundutik ihesi, babes bila bainuetxe honetan.
- Jenerala** Hala da, laguna, hala da.
- (Matxalen sartzen da erretilu batekin)*
- Matxalen** Tea, jaun-andreok!
- (Denak hurbiltzen dira eta jikara bana hartzen dute)*
- Matxalen** Laster etorriko zaizue Tomas jauna aurtengo festaren programa aurkeztera. Zerbait behar baduzue, deitu.
- Jenerala** Nahiz eta batzuk kafea landare amerikanoa dela uste duten, ez da horrela. Jartunen egon nintzenean, bertako jendeak ehundaka urte zeramatzan infusio hau hartzen.
- Pitita** Barkatu, Sir Valenty, baina hau ez da kafea, tea baizik.
- Jenerala** Badakit, Pitita, komentario bat besterik ez zen. Bainuetxean nagoenean Jartun etortzen zait burura, hango jauregiak, festak...
- Joakin** Hortaz jabetu gara, beti gauza bera kontatzen ari zara. Arkuxun!

- Pitita** Buruan ez duzu beste ezer? Jartun gora, Jartun behera...
- Jenerala** Kontxo, Joakin, ba zureak ere denok ezagutzen ditugu: zure gaixotasun guztiak eta gau eta egun atzetik dabilatzazun hiltzaileen historiak... eta Pitita andreari ere, inoiz ezin zaio ezezkorik eman, bestela konortea galtzen du...
- Joakin** Arkuxun! Urrutiegia joan zara, jenerala eta hitz horietan atzera egiten ez baduzu, banoa hotel honetatik. Arkuxun!
- Pitita** Neu ere bai!
- (Don Tomas adi egon da eztabaida guztian zehar eta, egoera gehiago berotu baino lehen, bertan sartzen da.)*
- D. Tomas** Lasai, jaun-andreok, gogora ezazue atsedean bila etorri zaretela. Urtero gauza bera gertatzen da; beraz, lasai zaitezte.
- (Don Tomasen aurrean ez dute itxura txarrik eman nahi eta egoerari buelta ematen saiatzen dira)*
- Jenerala** Ez da ezer izan, ez da Joakin?
- Joakin** Lagun handiak gara eta lagunaren artean dena konpondu daiteke. Ez da, Pitita?
- Pitita** Noski, noski!
- Timoteo** Hipokrita koadrila ederra!
- D. Tomas** Timoteo! Beno, eseri zaitezte. Urtero denboraldiari hasiera emateko jaialdi bat antolatzen dugu. Aurtengoa ezberdina izango da eta bertan nazio askotako jendeak hartuko du parte. Jaialdiari hasiera emateko...
- (Don Tomas hau esaten ari dela, bi gizon sartzen dira hall-ean. Batek pistola du eskuan eta besteak palanka)*

- Billy Colt** Gora beso horiek! Bestela txoritxo hau akabatu egingo dut.
- Txomin Palanka** Bete Billy-ren esanak, bestela ipurdia berotuko dizuet.
- Jenerala** ‘Bravo! Bravo!’ (*Txaloka*)
- Pitita** ‘Chapeau! Chapeau!’ Benetan bitxia festaren aurkezpena.
- Joakin** A zer nolako sorpresa! Oso ondo, Don Tomas, oso ondo.
- Billy Colt** (*Oso urduri*) Hau ez da txarlotada, benetako bahiketa baizik.
- Txomin P.** Hori duk, hau ez da txokolatada!
- Billy Colt** ‘Txarlotada’, Txomin, txarlotada.
- Joakin** Oso ona txistea!
- Pitita** Aktoreak primerakoak dira: jazkera, mugimenduak... ‘Chapeau!’
- Jenerala** Eta pistolak benetakoa dirudi. Oso ona figurazioa. ‘Bravo! Bravo!’ (*Txalo joka*)
- Billy Colt** (*Don Tomasi lepotik helduta*) Beno, beno, baina zer da hau? Zoroetxea?
- Txomin P.** Hori, hau zer da, zoota?
- Billy Colt** Isildu hadi, zoroetxea esan diat eta.

(*Txalok*)
- Txomin P.** Aaaaaa...!!!
- Billy Colt** Aizu! Bai, zu, hasiera-hasieratik eskuak altxatuta dituen.

- Timoteo** Neu?
- Billy Colt** Bai, zeu. Zer etxe mota da hau?
- Timoteo** Ba... ez zara urrun ibili, zoroetxea...
- D. Tomas** Timoteo!!!
- Timoteo** Lasai, Don Tomas. Hau bainuetxea da, Urkuletakoa hain zuzen, eta etxe santu honetan garrantzitsuena bezeroa da; beraz, atera kontuak.
- Jenerala** ‘Bravo! Bravo!’ Ezin hobea!!!
- Joakin** Benetan hunkigarria!!!
- Pitita** Merezi du hainbeste kilometro egitea honelako gauzak entzuteko; benetan emozionaturik nago!
- Billy Colt** Hau ez al da zoro-etxea?
- Txomin P.** Berotuko ditut, Billy, eta horrela txokolatadak egiteari utziko diote.
- Timoteo** Txarlotadak!!!
- (Polizien sirenak entzuten dira)*
- Txomin P.** Polizia, polizia, Billy!!!
- Billy Colt** Entzuten ditiat! Ez nauk gorra.
- Joakin** Badatoz falta zirenak, ‘fenómeno’!!!
- (Txomin Palanka hurbiltzen zaio eta kolpe bat ematen dio buruan. Pitita hurbiltzen da zer egin dion begiratzera)*

- Pitita** Benetako kolpea eman dio. Hau ez da komedia, egia da. Aaaaa! (*Konortea galtzen du*)
- (*Polizia bi hurbiltzen dira eszenatokira publikoaren artetik, indar handiko argi batekin, pistola eta megafonoa eskuan*)
- Sarjentua** Martinikorena sarjentua eta Mitxelena kaboa gaituzue. Inguraturik zaudete. Aska itzazue bahituak eta utzi armak lurrean.
- Billy Colt** Ez egin mugimendu faltsurik, bestela Don Tomasek asko sentituko luke.
- Kaboa** Billy Colt, ez zaitetz harrotu, ez baituzue ihesbiderik.
- Billy Colt** Geuk dugu hogeita hamaika eskutik; beraz, entzun ondo esatera goazena.
- Txomin P.** Oso ondo, Billy.
- Billy Colt** Bihar goizerako kotxe bat nahi dugu ate aurrean eta hegazkin bat prest aireportuan.
- Sarjentua** Dena korapilatzen ari zarete. Bahituak libre uzten badituzue, Eroskin egin duzuen lapurreta bakarrik edukiko dugu kontuan.
- Billy Colt** Guk esan dugu azken hitza.
- Kaboa** Zer egingo dugu, nagusi?
- Sarjentua** Ongi da, pentsatuko dugu! Bainuetxera hurbilduko gara, egoera gertuagotik aztertze.
- Billy Colt** Bihar goizeko zazpiak arte duzue epea.
- (*Martinikorenak eta Mitxelenak bainuetxe ingurutik alde egiten dute*)

- Billy Colt** Txomin, lotu itzak denak soka honekin.
- Jenerala** Ni ez nau inork lotuko. Jartunen bezala, Aurrera!!! Aaaa!!!
- Timoteo** O ez!!!
- (Txominek soka luze batekin denak lotzen ditu)*
- Billy Colt** Timoteo, altxatu eta lotu konortea galdu duten guztia ; Don Tomas, lagunduiozu. Txomin, hirurak lotzen dituztenean, lotu eurak ere.
- Txomin P.** Okey, Billy.
- (Denak lotzen dituztenean, Billy pentsakor gelditzen da)*
- Billy Colt** Ez da inor egongo bainuetxeko logeletan, ez da?
- D. Tomas** Ba...
- Timoteo** Ez, ez dago inor!
- Billy Colt** Horrela izan dadila, bestela Txominek errepasso bat emango dizue.
- Txomin P.** Emango diet apurtxo bat eta ez dute ez gezurrik esango!
- Billy Colt** Lasai, Txomin! Gaua luzea izango duk; beraz, har ditzagun astiro gauzak. Hik egingo duk lehenengo zainketa eta nik, bitartean, lokuluxka bat egingo diat.
- Txomin P.** Eta bi horiekin zer egingo diagu?
- Billy Colt** Egia! Emaiek kolpetxo bat, xuabe-xuabe, pare bat ordu lo egiteko adinakoa.
- Timoteo** Hori da, xuabe-xuabe, nire buruak lehendik ere nahiko kolpe hartu ditu eta.

- D. Tomas** Une hauetan ere zerbait esan behar duk?
- Timoteo** Holakoa naiz, nagusi.
(Txomin eurengana hurbiltzen da eta kolpe bana ematen die)
- Billy Colt** Aitortu beharra diat, artista haiz gauza batzuetan.
- Txomin P.** Eskerrik asko.
- Billy Colt** Beno, Txomin, adi! Zerbait arraroa ikusten baduk, abisatu.
(Dena isilean gelditzen da eta Txomin aurrera eta atzera dabil bainuetxeko hall-ean. Bahiketa izan denetik Matxalen mostradore atzean ezkutaturik egon da. Badirudi orain aukera ezin hobea duela bertatik ihes egiteko, baina bere helburua lortzera doaneantxe)
- Txomin P.** Nor zara zu, zertan zabilta hemen?
- Matxalen** Badirudi bainuetxeko mandataria naizela! Ejem!
- Txomin P.** Bainuetxeko mandataria! ‘Qué guay!’ Nola gustatuko litzaidakeen zure lana edukitzea. Txapela eta horrelako txamarra ipini eta jende dotore eta famatua ezagutu.
- Matxalen** Bai, beno... lana horrelakoa da.
- Txomin P.** Eta nola lortu zenuen lan hau? Ze... ez da bat ere erraza izango?
- Matxalen** Ez pentsa. Nik suerte handia eduki nuen.
- Txomin P.** Bai, baina nola?
- Matxalen** Pelikula korapilatsua da.

- Txomin P.** Berdin zait, pelikulak pila bat gustatzen zaizkit. Bota, bota...
- Matxalen** Beno, nire etxean txarto nengoen, ikasketak txarto neramatzan, gurasoekin beti bronketan, eta gezurretan errita gehiago ez entzuteko. Egunero ordu pila bat ematen nuen toki batetik bestera gustuko ez nituen gauzak egiten. Preso sentitzen nintzen, lore-ontziko lore horiek bezala. Nituen indarrak batu, maletak egin, txanpon batzuk hartu eta hiri honetara etorri nintzen.
- Txomin P.** Ausarta benetan! Jarraitu.
- Matxalen** Hiriak txundituta utzi ninduen eta bueltaka hasi nintzen norabide barik. Timoteorekin egin nuen topo eta berak eskaini zidan lanpostu hau.
- Txomin P.** Zer nolako zortea! Nire pelikula antzerakoa da, baina ilunagoa. Nik untxi hiltegi batean lan egiten nuen, zortzi ordu egunean untxiak akabatzen. Zu bezala, preso sentitzen nintzen eta bertatik hanka egin nuen, untxiak hiltze hori gorroto bainuen. Nigana Billy, beste inor ez zen hurbildu eta supermerkatuetan lapurretan egiten, beste ezertan ez zekien berak. Beraz, horretan aritu naiz azkenengo urte hauetan. Atzo Eroskin 'Bollikao' kaxa bat lapurtu genuen eta...
- Matxalen** Beno, berandu da eta alde egin behar dut.
- Txomin P.** Agur ba, beste egunen batean jarraituko dugu. Nik adi egon behar dut bainuetxean inor sartu ez dadin.
- Matxalen** Agur!!!
- Txomin P.** E, baina zer egiten duzu hemen? Besteekin lotuta egon behar zenuen.

(Matxalenek txistuaren pare alde egiten du hall-etik)

- Txomin P.** Billy Colt, Billy Colt, bainuetxean bazegok beste norbait!
- Billy Colt** Nola? Zer? Bainuetxean badagoela beste norbait?
- Txomin P.** Hori duk!
- Billy Colt** Eta nola dakik?
- Txomin P.** Ba... berarekin berbetan egon naizelako. Bainuetxeko mandataria duk.
- Billy Colt** Baina, baina... burmuina untxi batena baino txikiagoa duk. Hirekin hitz egin dik eta hanka egiten utzi diok, mozolo horrek halako horrek! Timoteo! Timoteo! Ez zegoela inor bainuetxean, e?
- Timoteo** Nik etxera joana zela uste nuen, bere ordutegia bukatu baitzuen.
- Billy Colt** Ez adarrrik jo! Ez gero adarrrik jo! Txomin, nondik joan duk?
- Txomin P.** Eskilaretatik gora!
- Billy Colt** Ziur hago?
- Txomin P.** Neure begiekin ikusi diat.
- Billy Colt** Lasaitu gaitezen. Hoa hi eskilaretatik eta ni igongailuan joango nauk. Arin egin behar diagu mobida, polizia ohartu aurretik; beraz, martxa... Eta bada-ezpada kolpe pare bat bi hauei, isil-isilik hobeto egongo dituk eta.

(Billy Colt-ek Txomini hau esaten dion bitartean, Matxalen igongailuan jaitsi da hall-era eta kontu handiz mostradore atzean sartu da. Haiek alde egindakoan, Matxalen ezkutalekutik irteten da)

Matxalen Don Tomas! Timoteo! Esnatu, alde egin behar dugu hemendik!

**Timoteo eta
D. Tomas**

Askatu lokarri hauek!

Matxalen

Goazen eskilara hauetatik.

D. Tomas

Eta hiru horiek?

Timoteo

Zama handiegia dira iheska ibiltzeko, lo askoz ere hobeto daude.

(Hirurak hall-etik alde egiten dute. Berehala, albo banatako eskilaretatik eta batak besteari sorbalda emanaz, Billy Colt eta Txomin Palanka agertzen dira. Poliki-poliki, dena ongi miatuz, elkarrekin topo egin arte)

Txomin P.

(Besteari lepotik helduz) Harrapatu zaitut, mandatari, niri inork ez dit farre egiten aurpegira!

Billy Colt

Neu nauk, astakiloa!!!

Txomin P.

Egia! Barkatu, Billy! Billy, beste biek ere ospa egin dute!

Billy Colt

Kaka zaharra! Hau korapilatzen ari da. Zerbait pentsatu beharko dugu.

(Biak pentsakor gelditzen dira. Billy geldi eta gora begira eta Txomin Billy-ren inguruan bueltaka)

Txomin P.

Pentsatu! Pentsatu! Pentsatu! Pentsatu!...

Billy Colt

Isil hadi. Badiat ideia bat. Txorakeria bat duk euren atzetik ibiltzea. Tranpa bat antolatuko zieagu bainuetxe osoan zehar. Esna ezak atso zahar hori.

- Txomin P.** Mademoiselle, esna zaitez!
- Pitita** Zer? Ikuskizunean parte hartu behar dudala? Bai horixe, betidanik izan ditut gustuko antzerkiak.
- Txomin P.** Hemen duk, prest hire esanak betetzeko.
- Pitita** Jakin ezazu nire gazte denboran antzerkia egiten nuela.
- Billy Colt** Ongi da, ongi da. Gu hor atzean sartuko gara, mostradore atzean eta zuk, ongi ezkutatuta gaudenean, zera esango duzu: 'Joan dira! Bakarrik gaude! Etor zaitezte beldur barik!' Ulertu didazu?
- Pitita** Bai. Entsaio bat egingo dugu, bada-ezpada.
- Billy Colt** Bai, baina isilka.
- Pitita** Joan dira, bakarrik gaude, etor zaitezte beldur barik.
- Txomin P.** Oso ondo, mademoiselle!
- Billy Colt** Beno, arin, bakoitza bere tokira. Nik esaten dizudanean, hasi.
- Pitita** Bale, baina oso urduri nago, inoiz ez dut ahaztuko bainuetxeko aurtengo egonaldia.
- Billy Colt** Orain!
- Pitita** Joan dira! Bakarrik gaude! Etor zaitezte beldur barik!
- (Hau esan eta Martinikorena sarjentua eta Mitxelena kaboa sartzen dira)*
- Sarjentua eta Kaboa** Mitxelena eta Martinikorena. Aaaa!!!

- Pitita** Aaaa!!! (*Eta konortea galtzen du*)
- Kaboa** Nagusi! Konortea galdu du.
- Sarjentua** Hemen ez daude txerri horiek!
- Kaboa** Zer egingo dugu bere gorputzarekin, nagusi?
- Sarjentua** Eraman dezagun siloira.
- (Biak Pitita hartzera makurtzen direnean, Billy Colt eta Txomin Palanka atzetik etorri eta kolpe bana ematen diete buruan)*
- Billy Colt** Txerriak gu?
- Txomin P.** Ba eurek ez dute guk baino usain hoberik!
- Billy Colt** Lotu itzazu denak. Tranpak funtzionatu du; beraz, jarrai dezagun aproba egiten, txoritxo horiek harrapatzeko irrikitan bainago. Askatu jenerala.
- Txomin P.** Jenerala, esna zaitez!
- Jenerala** E, ikuskizuna ez da amaitu! Ongi da. Ni bezalako soldadu bat beti dago prest edozer gauza egiteko.
- Billy Colt** Ongi da, ongi da; beraz, gu ezkututzen garen bitartean...
- Jenerala** O! Guerrilla-gerra egin behar dugu, honek gogorazten dit...
- Txomin P.** Zer, jenerala?
- Billy Colt** Utzi kontuak geroko! Gu ezkututzen garen bitartean, zuk zera esango duzu: 'Hall-a gurea da eta gaizkileak gure eskuetan daude!'

- Jenerala** Ongi da.
- Billy Colt** Orain!
- Jenerala** Hall-a gurea da eta gaizkileak gure eskuetan daude!
- (Hau esaten duenean, alboko ateetatik Matxalen eta Timoteo agertzen dira)*
- Billy Colt** Harrapa ditzagun! Eta honekin?
- (Txomin Palankak kolpe bat ematen dio buruan eta bakoitzak ate banatatik alde egiten du Timoteo eta Matxalenen atzetik. Igongailua zabaltzen da eta Don Tomas sartzen da hall-ean. Bahituak askatu eta berriro irteten dira igongailuan. Ezkerreko atetik Billy Colt eta Txomin Palanka sartzen dira)*
- Txomin P.** Billy Colt, denek hanka egin diate!!!
- Billy Colt** Kaguen la letxe! Harrapatzen ditugunean ez gaitiztek inoiz ahaztuko.
- Txomin P.** Eta orain nondik jarraituko diagu?
- Billy Colt** Lagaidak une batean pentsatzen.
- Txomin P.** Billy Colt!
- Billy Colt** Zer gertatzen duk orain!!!
- Txomin P.** Mitxelena eta Martinikorena!
- Billy Colt** Goazen hemendik azkar!!!
- (Mitxelena eta Martinikorena txistuaren pare agertzen dira hall-ean, euren sasoia eta prestakuntza fisikoa erakusten)*

Kaboa Geldi hor!!!

Sarjentua Zuenak egin du! Arin, gure esku dira eta.

Kaboa Bai, nagusi!!!

(Hall-etik alde egiten dute txistuaren pare Billy eta Txominen atzetik. Igongailuko ateak zabaltzen dira eta bertatik, Matxalen, Timoteo, Don Tomas eta hiru bezeroak agertzen dira)

Matxalen Hall-a hutsik dago!

Timoteo Beste norbait sartu da joko honetan.

Bezeroak Aurtengo festibala, ezin hobea! Txalogarria, mundiala!

D. Tomas Zuek isilik, eta adi egon ea norbait agertzen den.

Matxalen Hor datoz!

Timoteo Goazen denok hemendik!

(Denak tropelean ezkerreko atetik desagertzen dira)

Txomin P. Mugi, Billy, gainean ditugu eta.

Billy Colt Ezin dut gehiago.

Sarjentua Hurrengo bueltan geure esku dira!

Kaboa Gora Marti eta Mitxelena!!!

(Ezkerreko eskilaretatik Matxalen, Timoteo, Don Tomas eta bezeroak agertzen dira. Poliki, tentuz. Denak hall-aren barruan daudenean)

- Sarjentua** Martinikorena eta Mitxelena!!!
- D. Tomas** Goazen!!! Beste lapur batzuk!!!
- Kaboa** Lasai, ez gara gaizkileak, poliziak gara!!!
- Sarjentua** Geldi hor, zuek askatzera etorri baikara.
- (Igongailutik Billy Colt eta Txomin Palanka agertzen dira)*
- Billy Colt** Nik ezin dut gehiago, nekatuta nago eta, horretaz aparte, hau ez da bainuetxea, zoroetxea baizik.
- Txomin P.** Esaten nizun neuk zoo bat zela!
- Billy Colt** Zoroetxea! Zoroetxea! Ua!!! Ua!!! *(Negarrez. Biak siloian jartzen dira desesperaturik, egoerak gainezka egin die)*
- (Matxalen eta koadrila patxadaz, emeki, mantso-mantso...)*
- Matxalen** Zer gertatzen da? Nor ari da negarrez?
- Pitita** Zerbait txarto irten da, ala?
- Txomin P.** Errenditu egiten gara, ez gaude ohituta txokolatada eta zooetan lan egiten.
- D. Tomas** Bukatu da, bukatu da!
- Jenerala** Zer nolako pena, urteak ziren ez nuela hain ongi pasatzen.
- Joakin** Nik hona etorri aurretik eskilara bat geratu barik igotzen banuen, ito egiten nintzen eta gaur gorputza sasoi onean aurkitu dut.
- Timoteo** Zer egingo dugu bi hauekin?

- Kaboa** Marti eta Mitxelena aurrera!!!
- Sarjentua** Geldi denok zeuon tokietan!
- Pitita** Oraindik ez da amaitu! ‘Fenómeno’!
- Billy Colt** O, ez, mesedez, ez! (*Belaunikaturik*) Buka dezagun komedia hau!
- Sarjentua** Utzi negar egiteari eta goazen komisaldegira, han lasai asko egongo zarete eta.
- Matxalen** Itxoin, sarjentu! Bollikao kaxa bategatik ez dituzu espetxeratuko, ez da?
- Sarjentua** Bollikao kaxa bat? Eta bahiketa zer? Bizitza guztia pasatuko dute espetxeratuta.
- Matxalen** Begira, sarjentu. Bezeroek bere bizitza osoan ez dute hain ondo pasa; beraz, bainuetxeari ez dio inongo kalterik egin. Bestalde, zuentzako entrenamentu bat besterik ez da izan.
- Kaboa** Eta?
- Matxalen** Ba...
- D. Tomas** Ez dakit, ez dakit...
- Bezeroak** Ea, Don Tomas, bihotz zabaleko gizona zara; noizbehinka errepika dezakegu gaurkoa, edota berri bat antolatu...
- D. Tomas** Ongi da, ongi da. Dena den, sarjentuaren eskuetan gelditzen da erabakia.

(Martinikorena eta Mitxelena elkartzen dira unetxo batean erabakia hartzeko)

- Sarjentua** Mitxelena!
- Kaboa** Beno, ados gaude, baina astean behin bertatik pasatuko gara dena nola doan ikustera.
- Denak** ‘Fenómeno!’ Alaitu aurpegi hori, Billy, demaseko historiak montatuko ditugu.
- D. Tomas** Bakoitza bere tokira, lanpostura edo gelara, egunsentia gainean dugu eta dena prestatu behar dugu, bihar bezero gehiago iritsiko dira eta.
- (Poliki, emeki, mantso-mantso, bakoitza bere logelara edo lantokira doa)*
- Kaboa eta Sarjentua** Agur eta gau ona pasa.
- Billy Colt** Eta geu nora joango gara?
- D. Tomas** Timoteok lagunduko dizue. Matxalen, utzi txukun sarrera eta joan zaitez lotara.
- (Denak joaten dira eta Matxalen gelditzen da, bakarrik, hall-ean)*
- Matxalen** Makaleko mobida, loretxook! Billy Colt eta Txomin Palanka ez dira tipo txarrak, bihurri samarrak, hori bai! Baina nork erabakitzen du batzuk onak direla eta beste batzuk txarrak, e? Lore batzuk ontzietan bizi behar dutela eta beste batzuk mendian edo basoan? Pentsatze kontu hori nahaste-borraste bat da, milaka galdera etortzen zaizkizu burura, eta milaka galdera horiei gutxitan topatzen diezu erantzuna, neuk behintzat. Eta zuek? Baina beno, zuek ez duzue pentsatzen? Ala bai? Uaaa! Eguna luzea izan da eta askatasunaz disfrutatzen jarraitu behar dut.

(Siloira hurbiltzen da eta, pizina zoragarri bat dela imajinatuz, bertara botatzen du bere burua)

Eustaki Matxalen! Matxalen! Hemen zaude?

Felix Eustaki, ez bota horrelako oihuak, hau ez da gure etxea.

Eustaki Baina gure alaba hemen dagoela esan digute.

Felix Aizu! Ez duzu jakingo hemen Matxalenen bat dagoen?

Matxalen Aita!

Felix Matxalen!

Eustaki Matxalen!!!

Matxalen O ez!

(Salto bat emanez, Matxalenek ihesari ematen dio)

Eustaki Harrapa dezagun!

Felix Banoa, Eustaki, banoa.

(Une horretan Txomin Palanka agertzen da eszenatokian amantal bat jantzirik eta labana eskuan duela)

Txomin P. Baina zer gertatzen da hemen, zer dira zarata horiek? Matxalen, zer gertatzen zaizu?

(Momentu horretan Mitxelena eta Martinikorena agertzen dira)

Sarjentua Bagenekien honek ez zuela funtzionatuko!

Kaboa Utzi labana lurrean eta altxa eskuak.

- Txomin P.** Baina ni...
- Sarjentua** Zu ezertxo ere ez!!!
(Txomin Palankak, ezkerreko atletik, ihesari ematen dio)
- Sarjentua** Marti eta Mitxelena aurrera!!!
(Eskuineko atletik Felix eta Eustaki agertzen dira arnas-itoka)
- Eustaki** A zer nolako ridikuloa, bainuetxean bueltataka zoroen pare.
- Felix** Lasai, Eustaki, hemen itxarongo dugu eta ziur egon une batetik bestera agertuko dela. Eseri gaitezen hemen.
(Siloian jartzera doazenean, Txomin Palanka agertzen da labanarekin)
- Eustaki** Uaaaa!!! Felix! Telebistan agertu den gaizkilea da!
- Felix** Egia! Goazen hemendik azkar.
- Txomin P.** E, barkatu, zintzotu egin naiz, labana patatak zuritzeko da, itxaron, gaizki-ulertu bat da.
(Matxalen igongailutik irteten da)
- Matxalen** Bukatu da komedia, une batetik bestera harrapatuko naute eta berriz etxera.
- Sarjentua eta Kaboa** Aizu!!!
- Matxalen** Polizia bidali dute, hau gehiegizkoa da, banoa.

- Sarjentua** Txomin Palanka, ikusi duzu?
- Kaboa** Goazen bere atzetik, ziur berak badakiela non ezkutatzen den.
- (Jenerala, Joakin eta Pitita igongailutik agertzen dira)*
- Jenerala** Badirudi beste joko bat antolatu dutela.
- Pitita** Don Tomas aurten distiratsu dabil.
- Joakin** *(Ezkerreko eskileretara hurbilduz)* Alde honetatik zaratak entzuten dira. Goazen zer gertatzen den ikustera.
- D. Tomas** Berrero ere jendea bainuetxean bueltaka, hau gehiegizkoa da. Timoteo!!! Timoteo!!!
- Timoteo** *(Txamarra jazten sartzen da)* Zer gertatzen da, nagusi?
- D. Tomas** Ez dituzu zaratak entzuten, ala?
- Timoteo** Ba..., ba..., bai! Berrero iskanbila dago, nagusi!
- D. Tomas** Ipini zaitetz ate horretan eta ez dadila inor pasa.
- Timoteo** Bai, nagusi! Ate blindatu baten pare!!!
- (Atean kokatzen da eta besoak zabaltzen ditu. Lehenengo Matxalen agertzen da eta, atzetik, Eustaki eta Felix. Eustakik eta Felixek Matxalen harrapatzen dute)*
- Eustaki** Harrapatu dugu!
- Felix** Baina gure alaba da.
- D. Tomas** Berdin zait, etxe santu honetan dagoen bitartean, mandataria da eta kitto.

- Eustaki** Hau gehiegikeria bat da, salatu egingo zaitugu.
- D. Tomas** Andere, nire pazientzia amaitzen ari da. Matxalenek bere kontratua bukatuko du eta gero etxera joango da, ez da, Matxalen?
- Matxalen** Bai, nagusi?
- Felix** Eta gu?
- D. Tomas** Zuek gonbidatuta zaudete egingo dugun festara eta kitto!!!
- Billy Colt** Zer gertatzen da, zer dira zarata hauek?
- Txomin P.** ‘Socorro! Socorro!’ Lagundu, arren! Ez didate sinesten.
- Sarjentua eta
Kaboia** Aja! Ez duzu irtenbiderik!
- D. Tomas** Nahikoa da! Nahikoa da! Ez da ezer gertatzen, ez du ezer txarrik egin; beraz, zuek biok leloarena egiten ari zarete, aditu?
- Sarjentua eta
Kaboia** Geu?
- D. Tomas** Bai, zuek!!!
- (Igongailua zabaltzen da eta bezeroak agertzen dira)*
- D. Tomas** Hara, falta zirenak! Orain jar zaitezte nahi duzuen tokian eta aurtengo festari hasiera emango diogu. Zuekin Johnny eta Missisipi Willy, Titoren laguntzarekin.
- (Don Tomasek konortea galtzen du. Eszenatokiko argiak poliki-poliki amatatu egiten dira)*

ZENTIMETROAK 93

8. mailako ikasleak,
Koro Irastorzaren ardurapean
Komedia
Jakintza ikastola
Ordizia
1993-94

GAIA

Ordiziara bisitariak etorri dira. Batzuk bertakoekin elkartzen dira, besteak ez hainbeste. Zenbait pertsonaia bitxi ere bada. Arazo askoren ondoren, kilometroak gehiegi irudituta, *Zentimetroak 93* antolatzen dute.

PERTSONAIAK

Pantxo Jango	Adelaren senargaia, baina neska guztiak gustatzen zaizkio.
Adela	Pantxoren andregaiia, xirulajole eta musikazalea.
Juana Lalo Katis	Adelaren laguna. Majia gustatzen zaio.
Axel	Motxila eta kitarrarekin eskean ibiltzen den musikazalea.
Txarli Parker	Motxila-tronpetaz dator. <i>Negu Gorriak</i> taldearenak dakizki.
Krilin	Mutil bihurria.
Boli	Wally, despistatua.
Txuri	Frantsesa. Gero bertan geldituko da bizitzen.
Dorothi	Frantsesa. Musikazalea. <i>Negu Gorriak</i> taldearen zalea.
Arroxalin	Beverly Hills-eko neska. Musika asko gustatzen zaio.
Eskarlata	Hasieran tuntuna, gero...
Maripuri	Hasieran tuntuna, gero...
Fray Ander	Apaiza. Behatza altxatuta ibiltzen da.
Garbi	Garbitasuneko emakumea.
Enkarna de Noche	Garbiren lagun mina.
Kattalin	Gaztaina saltzailea. Edatea gustatzen zaio.
Joxepa Mari	Paisa edo ijitoa. Denetik saltzen du.
Joakina Erozarra	Kazetaria.

1. EKITALDIA

Kale Nagusia. Alde batean kutxa automatikoa

(Teloia ireki eta Garbi agertzen da, erratza pasatzen. Enkarna sartzen da, dotore-dotore eta, nazka handiz, hautsak kentzen hasten da)

- Enkarna** Kaixo, Garbi, egunon.
- Garbi** Iepa, Enkarna.
- Enkarna** Zer? Zerbait berririk entzun al dun?
- Garbi** Ez ba. Zertaz entzun behar ninan zerbait, Enkarna?
- Enkarna** Jende berria omen dun etortzeko Ordiziara!
- Garbi** Ene, Jesus! Ez habil 'al dia', hi! Bosniarrak ditun eta.
- Enkarna** *(Moztuz)* Ez, ez... Horiek ez! Jende berria. Berria omen dun!
- Garbi** Ba ez dinat ezer entzun. Harritzekoa dun! Dena jakiten dinat kale honetan!
- Enkarna** Bai... Batzuk 'kotilla' fama eta besteak berriz...
- Garbi** Zer?
- Enkarna** Ez, ez! Ezer ez... Gero 'kotillak' batzuk bakarrik garela!
- Garbi** A, hori zuen gauza dun. Gauzez eta... bla-bla-bla aritzen zareten horiena. Nik lana besterik ez dinat egiten...
- Enkarna** Leku ona hauxe lana egiteko... Zikin samarra, hori bai, baina leku ezin hobea!

(Txuri eta Dorothei sartzen dira)

- Dorothi** Pardon. Parlais vous français?
- Garbi** Zer esaten din arlote honek?
- Enkarna** Hauek ditun, hi!
- Garbi** Zeintzuk?
- Enkarna** Lehen aipatutakoak. Gabatxoak, ez?
- Txuri** Español? Hablar español?
- Garbi** A zer nolako pintak! Garbiago ez badin hitz egiten, ez zionat ezer ulertuko!
- Enkarna** Isil hadi, Garbi! Hi gutxi ibili haiz munduan zehar!
- (Bitartean frantsesak galdua dabilta. Arroxalin agertzen da)*
- Arroxalin** Good morning! Barkatu, egunon. Kanpotarra naiz eta euskara praktikatzera etorri naiz hona. Esango ote didazue, mesedez, non aurkituko dudan kutxazain bat?
- Garbi** Hauxe bai kanpotar xarmangarria! Horixe baietz! Gustu handiz zerbitzatuko zaitut. Hortxe bertan duzu!
- Arroxalin** Mila esker, andrea!
- (Kutxara joaten da. Bi atsoek goitik behera begira geratzen zaizkio)*
- Enkarna** O, Garbi! Munduan zehar gutxi ibilia haizela esan dinat lehen... Ez dinat horrela pentsatzen orain. Zein ondo moldatu haizen mademoiselle horrekin... Beno! Babarrunak eltzean utzi dizkinat eta ez al zitzaizkianan erreko, hi! Gero arte.

Bueltatxo bat emango dinat arratsaldean ea “asuntua” nola dihoan... kale hau telebistako kulebroiak baino entretenigarriagoa dun...

- Garbi** Agur, Enkarni. Eta mingainari ez gehiegi eragin!
- (Enkarni joan da. Garbik erratzarekin jarraitzen du. Arroxalin kutxatik ateratzen da eta frantsesekin topatzen da)*
- Dorothi** Pardon. Parlais vous français?
- Arroxalin** No, I don't know.
- Txuri** Español? Hablar español?
- Arroxalin** No I don't know. I'm sorry. Do you speak English?
- Dorothi eta Txuri** No, no.
- Dorothi** Eta euskaraz? Badakizu?
- Arroxalin** Horixe baietz! Horretara etorri naun Ordiziara: euskara praktikatzera!
- Txuri** Tuntunak halakoak! Gu ere horretarako etorri gaitun ba! Nongoa haiz hi?
- Arroxalin** Beverly Hills-ekoa.
- Dorothi** *(Txistu eginez)* ‘Niña pija’ bat al haiz?
- Arroxalin** *(Lotsatuta)* Beno... Han bai. Baina aspertuta nengonan pijadaz eta liguez eta beste bizitza bat probatzera natorren hona. Rose dun nire izena. Beno... Arroxalin.
- Txuri** Hau Dorothi dun eta ni Blanche. Hobeto esanda, Txuri. Kutxa bat non dagoen ez dun jakingo?

- Arroxalin** Bai, ba! Hortxe bertan duzue. Itxarongo dizuet hemen.
(Arroxalin bakarrik gelditzean, Eskarlata eta Maripuri sartzen dira)
- Eskarlata** Fijatu al haiz? Horiek ditun pintajeak neska batentzat!
- Maripuri** Horrela joan egin behar din, e? Ez eta ordaindurik ere!
(‘Aitaren’ eginez) Gure Fray Anderrek ikusiko balu...! Laister asko jantziko likek, hi...! Maripuri naizen bezala!
- Eskarlata** Eta daukan postura? Hankak zabal-zabalik. Bidea ondo erakutsiz! ‘Pongo a Dios por testigo’ ezin dudala agoantatu lotsagabe horri ezer esan gabe! *(Joateko keinua egiten du)*
- Maripuri** *(Besotik helduz)* Ez, Eskarlata, ez. Hik nik bezala egin behar dun. Neure buruari esaten zionat: ‘Ez sartu, Maripuri, ez sartu’ eta ‘ya está’, lasaitu egiten naun. Goazen Fray Anderri kontatzera eta bera arduratuko dun guztiaz.
- Eskarlata** *(Ez oso gogo onez)* Baina ‘pongo a Dios por testigo’.
(Frantsesak etortzen direnean, joan egiten dira. Kattalin sartzen da eta danbolina jartzen du. Garbi ateratzen da eta ez zaio gustatzen)
- Garbi** Kattalin! Zertan ari zara?
- Kattalin** Hementxe, Garbi. Gaztaina batzuk erreko ote ditugun edo...! Bero-bero-bero.
- Garbi** Bero-bero-bero? Harri murri zapero! Oraintxe garbitu dinat kalea eta... Joan hadi eliza ondora. Hura dun leku egokia!
- Kattalin** Baina Garbi, uler ezan! Han Ito zegon. Konpetentzia!
- Garbi** Ez konpetentzia eta ez komenientzia. Ospa hemendik!

- Kattalin** Uf! ‘No está el horno pa bollos’. Banoa, banoa,
(*Boli sartzen da*)
- Boli** Barka, andereño xarmangarriak. San Martin de Loinaz?
- Garbi** Ondo galduta zabilta, gizona. Hori Beasainen dago.
- Boli** O! Beasainen? (*Planoan begiratzen du*) Boli naiz eta pergamino bat aurkitu behar dut.
- Garbi** Ba begira, Boli jauna. Ondoko herria duzu Beasain. (*Publikorantz seinalatuz*) Jaitsi zaitez kale honetan beheraino eta zuzen-zuzen iritsiko zara.
- Boli** Mila esker, andereño xarmangarriak. (*Publikorantz joaten da, San Martin non dagoen galdetuz*)
- Kattalin** Aizan, Garbi. Gizon aparta, e?
- Garbi** Beh!
- Kattalin** Beh? Ez ezan beh esan! Mila esker, andereño xarmangarriak! (*Imitatuz*) Noiz esan dinате hiri hori, Garbi?
- Garbi** Askotan! Kale honetan oso ezaguna naun gero...!
- Kattalin** Baina...
- Garbi** Ez baina eta ez baino. Lanean jarraitu behar dinat! Harri murri zapero!
- Kattalin** (*Gogo txarrez*) Bero-bero-bero...
(*Joaten dira eta Enkarna sartzen da*)
- Enkarna** Non ote da emakume santu hori? Garbi, Garbitxooo...! Uste dut kalea ‘al pil pil’ dagoela. Garbitxooo! Non demontre

sartu haiz? Albiste interesgarriak direla eta deitu dit eta orain ez dut aurkitzen. Garbitxooo!

(Fray Ander sartzen da, presaka)

Fray Ander Kaixo, Enkarna! Harritzekoa da zu egunez aurkitzea. ‘Enkarna de Noche’.

Enkarna Kaixo, Fray Ander. Zu kale konetan egotea ere ez da ohizkoa.

Fray Ander Ez, egia da. Baina Eskarlata eta Maripurik esan didate neska indezente bat ikusi dutela hementxe bertan, lizun jantzia, jokaera lotsagabea.

Enkarna Ba hemen... ni bakarrik nago.

Fray Ander Bai.

Enkarna Ez duzu ba usteko...

Fray Ander Ez, ez. Besteren bat izango zen. Bestela ez zuten ‘neska indezentea’ esango... ‘atso indezentea’ baizik. Beno, banoa, beste toki batean ere behar naute eta.

Enkarna *(Jakín nahian)* Gaixoren bat?

Fray Ander Ez, istripu bat. Ez al zara enteratu? Zororen bat Oria ibaira sartu da moto eta guzti.

(Alde egiten du)

Enkarna Ene! Jesus!

(Axel sartu eta kitarra jotzen hasten da. Enkarnak, ondo begiratu ondoren, dirua botatzen dio)

Enkarna Ene! Babarrunak!

(Krilin korrika pasatzen da publikoaren artean. Istripua izan duela dirudi. Publikoaren atzean Txarli tronpeta jotzen hasten da eta Axelen abestia ez da entzuten...)

Axel E, txo! Ni etorri nauk aurrena!

Txarli Eta?

Axel Negozioa izorratuko didak!

Txarli *(Inguratuz)* Negozioa? Nik ez diat dirurik nahi. Izugarritzko istripua ikusi diat eta lasaitu nahian hasi nauk tronpeta jotzen.

Axel Istripua? Ikusi diat nik ere tipo arlote bat korrika...

Txarli Ez zekiat korrika egiteko moduan geldituko zen. Motoa behintzat txiki-txiki eginda geratu duk: txorizo furgoneta baten kontra jo eta Oriara erori duk.

(Joxepa Mari sartzen da publikoari saldu nahian: furgoneta zatiak, txorizoak, arrainak, pergaminoa eta horrelakoak daramatza)

Joxepa Mari Txorizo de Maroko. Merke-merke. Alfonbra de Bagdag. Espejo de Portzelanosa. Pergamino de faraón. Arraina de vivero de Orio.

Txarli E, txo! Ni Orikoa naun eta arrain hori ez dun nire herrikoa!

Joxepa Mari *(Larrituta)* Mi no comprende.

Axel Orikoa ez.... Oriakoa ez duk ba izango? Arrainak, txorizoa... eta furgoneta zatiak... Istripua, hi!

Txarli Egia! Baina... non sartu duk paisa arraro hori?

- Axel** Paisa? Niri ijitoa iruditu zaidak... Orduan Oriokoa haiz?
- Txarli** Bai, Txarli Parker. (*Eskua estutuz*)
- Axel** Axel, kanpinik badagoen galdetu beharko diagu.
- Txarli** Arrazoia duk. Hainbeste traste gainean dugula ezin diagu ezer asko egin.
- (*Joan egiten dira. Adela eta Juana sartzen dira*)
- Juana** Ez dun posible! Eta nik emandako formula majikoa edan zinan?
- Adela** Dena! Ura ez den guztia edaten din!
- Juana** Eta?
- Adela** ‘¡Como si ná!’ Neska guztien atzetik jarraitzen din.
- Juana** O! Adelita gaixoa! Eta hi?
- Adela** Ni? Ez zekinat hire formula majikoa edan nuelako edo zer, baina... maite dinat, behar dinat, Juana Lalo!
- (*Pantxo sartzen da*)
- Pantxo** Nire ‘doñita’!
- Adela** Pantxo! (*Besarkatuz*)
- Pantxo** Eta zer dabil nire doñita hain goiz?
- Adela** Ea ikusten zintudan atera naiz, Pantxo! Ezin naiz zu gabe bizi, Pantxito!

- Pantxo** ‘¡Hay que estar muy bueno para ser un Bollicao!’ Goazen ba bueltatxo bat ematera, Adelita. Agur, Juana Lalo. (*Ondo begiraturuz*)
- (*Joan egiten dira*)
- Juana** Agur, Pantxo Jango. Ez naiz harritzen Adela hain ‘kolatuta’ egotea... Baina Adela nire laguna da eta Pantxo bere senargaia. Hauek ez badute balio, beste pozima majiko batzuk asmatuko ditut.
- (*Boli sartzen da*)
- Boli** Barka, andereño xarmangarria. San Martin de Loinaz?
- Juana** Uf! Oso despistatua zabilta! Hori Beasainen dago.
- Boli** O! Beasainen? (*Planoan begiratzen du*). Boli naiz eta pergaminoa aurkitu dut, baina istripu batean galdu dut.
- Juana** Ba begira, Boli jauna. Ondoko herria duzu Beasain. (*Publikorantz seinalaturuz*) Jaitsi zaitetz kale honetan beheraino eta zuzen-zuzen iritsiko zara.
- Boli** Mila esker, andereño xarmangarria (*Presaka-presaka publikoaren artetik pasa eta desagertzen da. Juana joan egin da eta pozimak ahaztu zaizkio. Joxepa Mari sartzen da*)
- Joxepa Mari** Arrainak bota ditut behintzat. Kasualitatea; gezur txiki bat esan eta harrapatu. Oria, Orio, bakalao! Bertako tipoa topatu behar! Ez dut gehiago arrainik ukituko! Kostatu zait katu koadrila hori despistatzea! Hara! Zer ote dira botila hauek?
- (*Joakina sartzen da*)
- Joakina** Azken albisteak Ordiziatik. Gauza arraro eta misteriotsuak gertatzen ari omen dira herri honetan. Gaur goizean moto

batek txorizo furgoneta batekin tupust egin du. Oria ibaira erori eta txiki-txiki eginda geratu da. Urpekariek goiz osoa daramate motozalearen bila eta ez dute arrastorik aurkitu. Jabea agertu da, baina ez dakiela ezer dio, atzo motoa ostu egin baitzioten. Hor ez dira bukatzen misterioak. Furgonetak istripuan alfonbrak eta ispilua galdu ditu. Arrastorik ez! Txorizoak ere falta dira. Zer gertatzen da Ordizian? Mamuak ote? Bertako bati galdetuko diogu. Zer diozu gaurko gertakariez?

Joxepa Mari Mi no comprende.

Joakina Entzun duzue? Inork ez du ulertzen. Mamuak ote? Ordiziatik, Joakina Erozarra.

(Joan egiten da. Krilin pasatzen da korrika. Bitartean Kattalin sartu eta instalatzen ari da)

Kattalin Garbi ez dagoela dirudi. Ea gaztaina batzuk saltzen ditudan. Gaztainak! Gaztainak merke-merke!

Joxepa Mari Umm! Gaztaina batzuk oraintxe bertan arrain gustua kentzeko, e?

Kattalin Adizu, mutur beltz! Zer duzu botilatxo horietan?

Joxepa Mari Joxepa Mari naiz. Botila bat dozena bat gaztainaren truke.

Kattalin Bale, Joxepa Mari, bale.

(Trukea egin eta Kattalinek edaria zurrut batean bukatzen du)

Kattalin ‘¡Is tinto básico!’ Beste dozena bat botila baten truke.

Joxepa Mari Uf! ‘¡Vaya castaña lleva la castañera!’

(Kattalin mozkorturik eta kantari. Garbi ateratzen da)

- Garbi** Ene! Jesus, Maria eta Jose! Lehen bat eta orain bi.
- Kattalin** Egia! Lehen Garbitxo bat zegoen eta orain bi. Hip!
- Garbi** Eta mozkorra! (*Joxepa Mariri begiratzeko dio*)
- Joxepa Mari** Mi no comprende.
- Garbi** (*Oso haserre*) Mi no comprende? Harri murri zapero! ‘¡O una patada en el culo te pego!’

(Denak joaten dira)

(Axel eta Txarli sartzen dira. Musika jotzen ari da Txarli. Txuri, Dorothe eta Arroxalin begira geratzen dira eta batez ere Txuriri asko gustatzen zaio. Dirua botatzen die. Krilin korrika pasatzen da. Txuri eta Txarli elkarrekin joaten dira. Axel kitarra jotzen hasten da. Pantxo agertzen da. Bi neskei goitik behera begiratzeko dio. Dorotheekin enroilatzen da eta joan egiten dira. Adela sartzen da eta hau ere abesten edo xirula jotzen enroilatzen da. Txuri eta Txarli etortzen dira. Adela, oso haserre, izkina batean dago. Krilin arroza botatzen ari da. Pantxok ‘giltza’ bat egin eta beldurturik bidaltzen du. Pantxo Arroxalinekin enroilatzen da eta joan egiten dira. Dorothe oso haserre dago, negarrez. Txarlik kontsolatzen du. Maripuri eta Eskarlata pasatzen dira. Oso haserre, apaizaren bila doaz. Boli sartzen da eta betiko galderak egiten ditu. Beasain aldera doa. Kattalin agertzen da. Denak gaztainak jaten eta pozimak edaten. Pantxo eta Arroxalin etorri eta roiloan sartzen dira. Gero Pantxo Adelarengana hurbiltzen da, baina honek pikutara bidaltzen du. Berrito Arroxalinengana. Fray Ander agertzen da eta, atzetik, Eskarlata eta Maripuri)

- Fray Ander** Zer kuxidade da hau? Gazte galduok! Infernuko zulora joango zarete!

Denak Harri murri zapero, bero-bero-bero. Herri honetako apaiza ere dago ero-ero.

(Joan egiten dira, Adela izan ezik. Maripuri eta Eskarlatak dena izkina batean jasotzen dute)

Mari Puri Ikusi al ditun lotsagabe horiek?

Eskarlata Jesus! Ez daukan oso aurpegi ona! ‘¡Pongo a Dios por testigo!’

Mari Puri Eta non dun senargaia?

(Adela negarrez hasten da)

Eskarlata Ez al dinat nik ikusi talde horretan, lehengo neska ponpoxo harekin? ‘¡Pongo a Dios por testigo!’

(Adela negarrez lehertzen da)

Mari Puri O, o! Beti esaten dinat nik horrelako kasuetan, e? Maripuri, Maripuri, ez sartu.

(Joan egiten dira. Axel azaltzen da. Ondoan jarri eta Adelitaren kantua abesten dio, animatzeko. Joan egiten da eta Joakina sartzen da)

Joakina Azken albisteak Ordiziatik. Herria hutsik dago, inor ez dabil kalean. Baina arrastoak hemen daude. Zer gertatu ote da? Mamuak ote? Bertako bati galdetuko diogu. *(Joxepa Mari sartu da merkantziaren bila)* Zer deritzozu guzti honi?

Joxepa Mari Mi no comprende.

Joakina Entzun duzue. Inork ez du ulertzen! Mamuak ote? Ordiziatik, Joakina Erozarra.

(Joan egiten dira. Enkarna sartzen da)

- Enkarna** ‘¡Santo Cristo de Lezo!’ Garbiren kalea nazkagarri dago. Eta non sartu da emakume santu hori? Garbi! Garbitxooo!
- (Joan egiten da. Txuri pozik eta Arroxalin eta Dorothi triste sartzen dira)*
- Txuri** *(Abesten eta dantzan)* ‘Si Adelita quisiera ser mi esposa...’
- Dorothi** Beno, bale!
- Txuri** Ene! Hori dun umorea. Eskarlata eta Maripurik baino aurpegi luzeagoak dituzue. Ni Txarlirekin geldituta nago. Banoa!
- (Isiltasuna)*
- Dorothi** Horixe! Uste nuen gauza serioa zela...!
- (Juana agertzen da)*
- Juana** Kaixo, neskak. Azken boladan ez dago aurpegi onik herri honetan, ez? Pantxo?
- (Baietz diote)*
- Juana** Harritzekoa! Mutiko horrek nire esperimendu guztiak gainditu dizkin. Ez zekinat zer eman konpontzeko.
- Arroxalin** Beverly Hills-en, nire auzoan, badun mago ezagun bat. Interesatzen bazain, idatziko zionat informazioa eskatuz.
- (Idazten hasten da)*
- Juana** Primeran! Arazoa esplika iezaion, ea formula majikoren bat bidaltzen didan!
- Dorothi** Nik itxaropena galdu dinat.
- Arroxalin** Hire izena?

- Juana** Juana Lalo.
- Arroxalin** Bigarren abizena?
- Juana** Katis. Juana Lalo Katis.
- Arroxalin** Juana Lalo Katis? Primeran. Goazen eskutitza bidaltzera.
- Dorothi** Joan zuek. Nik ez dut gogorik.
- (Pantxo sartzen da)*
- Pantxo** Dorothi! Nire andregai gabatxoa!
- Dorothi** Andregai asko dituala uste diat!
- Pantxo** Ez, ez, Dorothi! Hi bakarrik maite haut.
- (Maripuri eta Eskarlata pasatzen dira. Pantxo begira geratzen da)*
- Dorothi** *(Zaplaztekoa)* Joan hadi pikutara! Denak gustatzen zaizkik ala?
- (Negarrez hasten da. Pantxo joan egiten da)*
- Dorothi** Nire arma dela konturatzen zarenean, ez didazu zertan aurpegira bota. Ez zaitut inork minduta sentitu nahi, nahiz eta mina izan maitaminduen ezaugarria.
- (Txarli etortzen da)*
- Txarli** Bi aldiz besterik ez zaitut ikusi negar egiten eta ez dut indarrik izango hurrengorik sufritzeko.
- Dorothi eta Txarli** *(Biak batera)* Erantzuidazu mundu honetakoa naizen ala ez!

(Adela eta Axel sartzen dira. Musika. Gero Garbi eta Enkarna, oso haserre)

Garbi Oso-oso-oso fina. Eta zikina! Kanpotar guztiok nazkagarri hutsak zarete! Alde hemendik! Harri murri zapero!

Dorothi Oh la la!

Txarli Beno, beno, bagoaz.
Baina kontuz,
egunen batean eurijasa
etorriko da eta
uholde horretan
itoko zarete
eta orduan bai
jakingo duzue
mamirik gabeko gorputzak
izatea zer den.

(Joan egiten dira)

Enkarna Ez zekinat nola aguantatzen dunan!

Garbi Eta zer egin behar dinat, e? Isildu eta garbitu? Ume txoro horiek ez baditun, Kattalin gaztain saltzailea dun. Eta bestela moro edo ijito edo gizaki arraro ulergaitz hori. Eta ni? Garbitu eta garbitu.

Enkarna Gaixoa! Hori dun pazientzia! Horregatik ez haiz inoiz etortzen gauetan egiten dugun solasalditxora. Hain nekatuta egongo haiz!

Garbi Horixe nekatuta! Konturik esateko gogorik ez dinat nik!

Enkarna Gaixoa! Hala ere ondo zetorkidan niri hori, ez pentsa! Hemen berriak jaso eta gero, ni izaten naun zurrumurru gehien dakiena. Gainera, esan hunan ba, berri interesgarri bat izan zela...

- Garbi** *(Itxura aldatuz)* A bai, Enkarni! Hi joan eta berehalaxe etorri hunan. Hura presentzia! Gizaseme jatorra, edukazio onekoa. ‘Eskerrak, andereño xarmangarriak’ esan zinan.
- Enkarna** Eta non zegon ba gizon puska hori?
- Garbi** Beasainen.
- Enkarna** Beasainen? Eta nola utzi dion ba alde egiten?
- Garbi** Ez zekinat zer galdu zaion han, baina Loinazko San Martinen bila zebilenan.
- Enkarna** Lastima! Ez din ba ezer asko aurkituko herri horretan.
- (Eskarlata eta Maripuri sartzen dira)*
- Eskarlata** Ene, ene! Hau ere ikusi egin behar!
- Maripuri** Fray Ander gizarajoa! Sakristian genituen gurutze guztiak lapurtu dizkigute!
- Garbi eta**
Enkarna Ez!
- (Fray Ander sartzen da)*
- Fray Ander** Garai txarrak dira hauek gero! Frailea izan beharrean indioarena egiten ari naizela dirudi. Gurutze santuaren seinalegatik.
- Enkarna** Baina gurutze santuen seinalerik ez, ez da?
- Denak** Ez!
- Garbi** Zer ikusteko ote gaude oraindik? Ene, ene!

(Joan egiten dira. Krilin sartzen da gurutzez kargatuta. Ezkututzen ditu eta joan egiten da. Joxepa Mari sartzen da)

Joxepa Mari Dena lasai dagoela ematen du. Ea negozio pixka bat egiten dudan!

(Merkantziak ateratzean, gurutzeak ere aurkitzen ditu. Joakina sartzen da bitartean)

Joakina Azken albisteak Ordiziatik. Gauza misterioitsu gehiago gertatu dira herrian. Sakristiako gurutzeak desagertu dira. Aztarnarik ere ez. Mamuak ote? Bertako bati galdetuko diogu. Zer deritzozu guzti honi?

Joxepa Mari Mi no comprende.

Joakina Entzun duzue. Inork ez du ulertzen! Mamuak ote? Ordiziatik, Joakina Erozarra.

(Joxepa Mari erotuta dagoela adierazten du. Joan egiten dira. Kattalin sartzen da gaztaina bila eta botilak aurkitzen ditu. Edaten hasten da. Adela sartzen da, triste-triste, alde batetik. Txarli eta Dorothi bestetik)

Dorothi Oh la la! Zer aurpegi iluna! Elkar ezagutu genuenean algara gehiago egiten hunan. Ez din merezi! Pantxo makarra hutsa dun.

Txarli Ez duzu egiterik
zure bizitza hemen,
ez dauka zentzurik,
ez du balio ezer.
Esandako hitzak
eta pentsamenduak
har itzazu denak
ta zurekin eraman.

Adela Ez dakit zer egin.

**Txarli eta
Dorothi**

Esandako hitzak
eta pentsamenduak
har itzazu denak
ta zurekin eramane.

(Joan egiten dira. Axel eta Pantxo sartzen dira. Kitarra)

Pantxo Ez dakit zer pasatzen zaidan. Hilabete osoa ligatzen pasatu dut, baina...

Axel Ez zegok ondo!

Pantxo Zergatik ez? Hori duk niri gustatzen zaidana!

Axel Eta orduan, zergatik ez haiz zoriontsua?

Pantxo Ez zekiat. Beharbada... Adela nirekin haserre dagoelako.

Axel Normala. Denak ezin dituk aldi berean izan.

(Krilin gurutze bila doa. Pantxok 'giltza' batzuk egiten dizkio eta beldurturik bidaltzen du)

Pantxo Baina nik Adela maite diat.

Axel Esaiok!

Pantxo Agian... *(Joan egiten da)*
(Adela sartzen da eta berak ere xirula jotzen du)

Axel Ez al dun Pantxo ikusi?

Adela *(Goibel)* Ez.

- Axel** Hire bila ibili dun.
- Adela** Bai? Nondik joan duk?
- Axel** Hortik.
- (Adela korrika joaten da. Txarli eta Dorothi sartzen dira)*
- Dorothi** Kaixo, Axel. Orain ere musikarekin?
- Axel** Ei... Musika da niri gehien gustatzen zaidana!
- Txarli** Niri ere bai... Talde bat osatu behar genuke...
- (Txuri eta Arroxalin sartzen dira)*
- Arroxalin** Hori, hori... Nik ere horixe egingo nuke! Baina oporrak bukatu zaizkit...
- Txuri** Nik gauza bat esan nahi dizuet. *(Denak begira ditu)* Nire gurasoak hona datoz bizitzera. Hemen geldituko naiz.
- Dorothi** Oh la la! Hori dun zortea! Pozik egongo haiz...!
- Txuri** Oso pozik. Hala ere... badakit ezer ez dela berdin izango. Hi Oriora joango haiz berriro eta agian ez diagu gehiago elkar ikusiko... Beno! Polita izan duk iraun duen bitartean.
- Txarli** Bai, Txuri. Beti izango haut gogoan.
- Arroxalin** *(Goibel)* Eta orain bakoitza bere herrira: Beverly Hills. Pijoz inguratuta egongo naun berriro. Puaf!
- Dorothi** Oh la la! Gainera hi Pantxorekin habil, ez?
- Arroxalin** Ez! Pantxo haizea hartzera joan dadila.

(Axel 'Lau teilatu' abesten hasten da eta Arroxalinek jarraitzen dio. Juana eta Adela sartzen dira)

- Juana** Axel, Rose! Hori da abestia, hori! Hoberenak zarete!
- Txarli** Hala ere hire lagunaren kopeta ez dun alaitzen.
- Axel** Ez al haiz Pantxorekin egon?
- Adela** Ez diat aurkitu.
- Arroxalin** Adela. Taldea osatu nahi geniake. Zergatik ez haiz gurekin etortzen? Hemen ez haiz oso zoriontsua.
- Txarli** Ez duzu egiterik
zure bizitza hemen,
ez dauka zentzurik,
ez du balio ezer.
Esandako hitzak
eta pentsamenduak
har itzazu denak
ta zurekin eraman.
- Juana** Erabat nahastuta dago. Ez daki zer egin. Pozima majikoak kontrako efektua egin diola uste dut.
- Axel** Pantxo ere horrela dago.
- Juana** Bai? Goazen hemendik, Adela. Pantxo aurkitu behar dugu. Agian egin dut esperimentu on bat azkenean!

(Fray Ander sartzen da)

- Fray Ander** Zuek etorri zaretenetik ez dago ezer ondo Ordizian! Istripuak, lapurretak, beata pare hori nire atzetik dabil egun osoan, pekatua handik, pekatua hemendik...!

(Garbi eta Enkarna sartzen dira)

- Garbi** Eta zikinkeria! Kalea beti zikin dago: pipa azalak, gaztainak...
- Enkarna** Eta lehen herrian zerbait ginen. Gaueko solasalditxoak oso dibertigarriak ziren. Hemengo hau dibortziatu dela, hark permanentea egin duela... Orain zuek zarete gai bakarra. Zuetaz bakarrik hitz egiten da. Diboak!
- Garbi** Zikinak!
- Fray Ander** Pekatarriak!
- Txarli eta
Dorothi** Guzti hori gara
baita gehiago ere
nahi duzuen guztia
guri axolik ez!
- Garbi** Harri murri zapero.
- Fray Ander
eta Enkarna** *(Bidaliz)* Bero-bero-bero.
- (Juana eta Adela sartzen dira)*
- Juana** Hementxe geldituko gaitun. Hemendik egunero pasatzen dun. Hara, hortxe zetorren. Pantxo! Pantxooo! *(Pantxo sartzen da)* Hator hona! Emakume hau erabat desesperatuta zegok. Nire pozimek ez ditene asko balio izan, hi! Ea konpontzen dudane!
- (Juana joan egiten da)*
- Pantxo** Sentitzen dinat, 'mi doñita'. Nik hi bakarrik maite haut!
- Adela** Pantxo! Nola behar nian hori entzutea! Oso gaizki pasatu diat uda honetan hi beste neska guztiei begira ikustean!

- Pantxo** Jeloskorra dun nire doñita, e?
- Adela** Bai, Pantxo. Orain hobeto nagok. Axel, Rose eta beste guztiek musika talde bat osatu nahi diate. Agian beraiekin joango nauk.
- Pantxo** Orain hik abandonatzen naun. Merezi dinat!
- Adela** Ez, Pantxo! Itzuliko nauk. Nik maite haut!
- (Pozik besarkatzen dute elkar. Boli sartzen da)*
- Boli** Barka. San Martin de Loinaz?
- (Kasurik ez)*
- Boli** Barka. San Martin de Loinaz? Ez da ba Beasainen egongo? Pergamino baten bila nabil eta...
- (Desagertu egiten dira. Teloia isten da)*

2. EKITALDIA

Taberna

(Joxepa Mari, Kattalin, Enkarna eta Garbi daude bertan)

- Joxepa Mari** Aspaldian ezin da ezer saldu herri honetan.
- Kattalin** Ez horixe! Eta edaria? Hau al dun edaria? Lehen bazitunan botila txiki batzuk.
- Garbi** Nik lanik gabe gelditu behar dinat; kalea ez dun zikintzen...!
- Enkarna** Nik berriz gauetan irteteari utzi egin zionat. Kotileo dexenterik ez dun sortzen. Sukaldeko errezetak ematen bukatu geninan azkenean...!
- (Eskarлата eta Maripuri)*

- Joxepa Mari** Harritzekoa zuek hemen ikustea, ez?
- Eskarlata** Ez dakigu zer egin. Katekesisetik etxera eta etxetik katekesisera. Ondo aspertuta gaude, ‘pongo a Dios por testigo’. Kortatu bat nahi dut.
- Maripuri** Eta nik beste bat. Gazte jenderik ere ez dago herri honetan!
- Kattalin** Eta etortzen baditun, bidali egingo dizkinagu!
(Fray Ander sartzen da)
- Fray Ander** Jesus, Maria eta Jose! Zuek ere hemen?
- Eskarlata eta Maripuri** Fray Ander... gu...
- Garbi** Lasai, Fray Ander. Zintzo dabilta, e?
- Enkarna** Gainera, zu ere hemen zaude, ez? Zer nahi duzu hartu?
- Fray Ander** Kafe konpletoa. Ez dakit ondo dagoen.
(Pantxo, Txuri eta Juana sartzen dira)
- Juana** Adelaren karta dut.
- Pantxo** Nire doñita!
- Txuri** Nire doñita? Ez duk asko merezi.
- Juana** Utz iezaion, inoiz baino zintzoago zebilen eta.
- Pantxo** Zuek zainduta nork ligatu?
- Juana eta Txuri** Nahi bai ala?

- Pantxo** Ez, ez... Zer dio nire doñitak?
- Juana** (*Irakurriz*) Entsaiaitu eta entsaiatu ari omen dira. Taldea gero eta hobeto doa.
- Pantxo** Eta etortzekoak al dira?
- Juana** Ez du ezer esaten. Muxu bat bidaltzen dizu.
- Txuri** Ikusteko gogoia dut. Zergatik ez diegu idazten etortzeko? Agian posible dute.
- Pantxo** Goazen azkar!
- (*Joan egiten dira*)
- Kattalin** Gazterik ez orain ere!
- Maripuri** Gu ez garelako enroilatzen ote da? Nik beti esan dut: ez sartu, Mari Puri, ez sartu, baina agian...
- (*Joan egiten dira*)
- Garbi** Neska gaixoak. Hain finak ditun!
- Enkarna** Saltsa gutxi ordea! Nik adin horretan...
- Fray Ander** Bai. 'Enkarna de Noche' hintzen!
- Enkarna** Herri honetan ez zegon kastarik!
- Kattalin** Martxa duen zerbait antolatu beharko geniken.
- Joxepa Mari** Nik behin kristoren negozioa egin ninan herri batean. Kilometroak zitunan.
- Garbi** Uf! Kakanahaste hutsa.

- Enkarna** Isil hadi! Hi gutxi ibili haiz munduan zehar! Oso ideia ona dun!
- Fray Ander** Ez dakit... Ez dakit ondo dagoen. ‘¡Droguemos al Señor!’
- Kattalin** Horixe ondo dagoela. ‘¡Vaya castaña que pillaré!’
- Garbi** Antolaketa erraldoia behar dun ordea! Izan gaitezen umilxeagoak!
- Enkarna** Zentimetroak! Zentimetroak 93!
- Fray Ander** Ez dakit... Ez dakit ondo dagoen. ‘¡Droguemos al Señor!’
- (Krilin sartzen da)*
- Joxepa Mari** Harritzekoa hi hemen.
- Krilin** Zer egin behar dut herri aspergarri honetan?
- Kattalin** Berehala animatuko diagu!
- Garbi** Musika jarri beharko dugu.
- Enkarna** Nire garaian ‘Orquesta Bolero’ zen.
- Joxepa Mari** Aspaldiko garaiak ditun horiek! Honek ezagutuko din zerbait modernogoa!
- Krilin** Nik bateria jotzen dut talde batean.
- Denak** Ez esan!
- Krilin** *Negu Gorriak* taldeko bateria naiz.
- Kattalin** ‘¡Enrollao!’

Enkarna Hire taldeak animatuko dik Zentimetroak 93. Saltoki batzuk hemen... hau... Goazen...

Fray Ander Ez dakit ondo dagoen. ‘Droguemos al Señor!’

(Teloia isten da)

3. EKITALDIA **Kale Nagusia festetan**

(Juana, Joxepa Mari eta Kattalin saltokietan)

Juana Herriko karkamalek ideia bikaina izan dinате oraingo honetan. Azkenean nire asmakizunak ezagun egingo ditun.

Joxepa Mari Ea zerbait saltzen dudan. Herri honetan ez dinat zorte handirik izan. Denetik dinat oraindik *(Erakutsiz)*

Kattalin Izaten dun hik, bai, gauza onik...!

Joxepa Mari *(Botikak gordez)* Saltzeko dinat! Mozkorti hori!

Kattalin Zerbaitegatik naun ‘la de las castañas’, je, je...

(Pantxo eta Txuri sartzen dira)

Pantxo Irrikitan nago nire doñita ikusteko.

Txuri Eta Txarli, eta Axel, eta Rose.

Pantxo Zer da txorrada hau?

Txuri Zentimetroak 93 antolatu dute herriko beatentzat.

Biak Puaff!

(Joan egiten dira. Garbi, Enkarna eta Krilin sartzen dira)

- Garbi** Orain lanik behintzat ez zaidan faltako.
- Enkarna** Krilin, prestatzera joan hadi. *Negu Gorriak* laister hasi behar ditun jotzen.
- (Joan egiten dira. Eskarlata eta Maripuri sartzen dira)*
- Eskarlata** O, Mari Puri! Zein pozik nagoen! Azkenean animatuko gaitun, ‘pongo a Dios por testigo’.
- Maripuri** Bai, Eskarlata. Baina beldur piska bat badinat. Beti esaten zionat neure buruari: ez sartu, Mari Puri, ez sartu.
- Eskarlata** Isil hadi, Mari Puri! Pozima majiko horietako bat erosiko dinagu ea zer gertatzen zaigun.
- (Joakina Erozarra sartzen da)*
- Joakina** Azken albisteak Ordiziatik. Misterioak oraindik argitu gabe eta Ordiziarrek enpresa beldurgarriago bakin ekin diote: Zentimetroak 93. Arazoak hasi dira berriro. Parisetik zetorren trenaren agian ez da iritsiko, izugarritzko barrikada jarri baitute trenbidean. Arrastorik ez da ageri inguruan. Mamuak ote? Bertako bati galdetuko diogu. Zer diozu zuk gaurko gertakariez?
- Joxepa Mari** Mi no comprende!
- Joakina** Entzun duzue. Inork ez du ulertzen. Mamuak ote? Ordiziatik, Joakina Erozarra.
- (Joan egiten da. Krilin pasatzen da korrika alde batera. Gero beste aldera. Pantxo aurrez aurre aurkitzen du eta ‘giltza’ batzuk egiten dizkio)*
- Krilin** Kokoteraino nagok hirekin! Zer inporta zaik hiri nik egiten dudana? E?

- Pantxo** Asko, Krilin madarikatua. Tren horretan Adela zetorrek eta hobe duk oztoporik ez jarri, bestela ikusiko duk!
- Krilin** Eta nor haiz hi?
- Pantxo** Pantxo. Pantxo Jango.
(Joan egiten da)
- Krilin** Jango! Abizen hori... Jangojangojangojangojan! Banoa hemendik!
(Alde egitera doanean, estropozo egin eta margo gorria botatzen du)
- Juana** Krilin baldarra!
(Joakina sartzen da)
- Joakina** Azken albisteak Ordiziatik. *(Krilin ikusten du)* Mamuak ote? Odola! Banpiroak! Ordiziatik, Joakina Erozamarra.
(Presaka desagertzen da. Krilin ere joaten da. Garbi, Enkarna eta Fray Ander sartzen dira)
- Enkarna** Gezurra zen! *Negu Gorriak* taldeko bateria zela eta dena gezurra!
- Garbi** Zer egin behar dinagu orain?
- Fray Ander** Esaten nuen nik agian ez zegoela ondo...!
- Joxepa Mari** Zer gertatzen da?
- Enkarna** Musika ez dugu. Orkesta Bolerori deitu izan banio...!
'¡Terminator, la solución total!'

- Kattalin** Begira zer dioen egunkariak! Azken albisteak Ordiziatik. Banpiroak ote?
- Garbi** Banpiroak? Falta zitzaiguna! Ekar ezan gurutze bat bada-
ezpada ere. Eta baratzuriak.
- Enkarna** Niri ere bai. Baina... baratzuririk ez, ez ditun oso estetikoak
eta.
- Fray Ander** Ezagunak ditut nik gurutze hauek... Baina agian oso ondo
dago; aspaldiko urteetan gurutzerik saldu gabe nengoen...
Irabaziak erdi bana, e? ‘Droguemos al Señor!’
- (Denek hartzen dute gurutze bana. Eskarlata eta Mari Puri
oso aldatuta datoz)*
- Eskarlata** Pozima gehiago behar dinagu, hi. Eta gurutze batzuk ere bai!
‘Pongo a Dios por testigo.’
- Maripuri** Beti esan zionat neure buruari: ez sartu, Mari Puri, ez sartu.
Ez nekinan ondo zer ari nintzen galtzen!
- Kattalin** Um!... ‘Is tinto básico!’
- (Gaztainak biltzeko papera lurrera bota du. Boli sartzen da)*
- Boli** Pergaminoa! Aurkitu dut pergaminoa! *(Denak sartzen dira)*
- Adela** Juana Lalo!
- Juana** Adela!
- (Pantxo eta Txuri sartzen dira)*
- Pantxo** ‘¡Mi doñita!’
- Adela** ‘¡Ratita!’ *(Besarkadak. Musika hasten da. Teloia isten da)*

EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1.- GLOTODIDAKTIKA LANAK

a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak

- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak.** *N. Gardner* (1).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak.** *J.A. Mujika* (2).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala.** *I. Olaziregi* (3).
- **Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu** (5).
- **Hizkuntz Jolasak.** *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- **Trebatzen. OHoko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak.** *M. Sainz* (23).
- **Euskalkiz Euskalki.** *R.M. Pagola* (19).
- **Euskararen Oinarrizko Hiztegia. Maiztasun eta Prestasun Azterketa.** *J.M. Etxebarria. -J.A. Mujika* (31).
- **Oinarrizko Hitzak. Euskarazko Hitz Erabilgarrienak.** *I. Olaziregi* (34).

b) Bideo-gidoiak/ Txotxongiloak/ Musika

- **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez I.** *I.M. de Lezea - Kukubiltxo* (6)
- **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez II.** *I.M. de Lezea* (9).
- **Ipuin Zahar eta Berriak.** *L. Iriondo* (10).
- **Jolasean.** *I. Urbietta* (11).
- **Amonaren Ipuinak.** *E. Genua* (12).
- **Ipuin Gehiago.** *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- **Eskolarako Ipuinak eta Txotxongiloak.** *I.M. de Lezea* (14)
- **Kontu Kontari.** *L. Iriondo* (20).
- **Musika Hezkuntza Eskolaurrean.** *I. Urbietta* (21).

c) Gaitasun-agiriak

- **Euskararen Gaitasun Agiria. Programa.** (7).
- **Euskaltzaindiak Batasunerako Eskaini dituen Erabakiak** (8).
- **EGA. 1993-94ko Azterketak** (43).
- **Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1995eko Azterketak** (44).

d) *Ebaluazioak eta hizkuntz testak*

- **EIFE 1. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra*
- **EIFE 2. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Sierra - I. Olaziregi (33).*
- **EIFE 3. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Sierra - I. Olaziregi (36).*
- **HINE. Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan.** *J. Sierra - I. Olaziregi (38).*
- **Galbahe E1 Hizkuntz Testa** (B eta D eredueta OHoko 2. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra (26).*
- **Galbahe E2 Hizkuntz Testa** (Beta D eredueta OHoko 5. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra (25).*
- **Galbahe C1 y C2. Tests de Lengua** (gaztelaniazko testak OHoko 2. eta 5. mailarako) *J. Sierra - I. Olaziregi (27).*
- **Zortzi-A Hizkuntz Testa** (A eredu OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra (28).*
- **Pir-5 Hizkuntz Testa** (B eta D eredueta eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra. (30).*
- **Euskara Probak. Irakurmena eta Idazmena** (OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra (37).*
- **Pruebas de Lengua. Comprensión Lectora y Expresión Escrita** (8º de EGB). *J. Sierra - I. Olaziregi (39).*

2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- **Bizkaieraren Idatzizko arauak. Deklinabidea eta Aditza.** *A. Arejita - J.M. Irazola J. Uriarte (1).*
- **Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua.** *J.M. Irazola (2).*
- **Bizkaierazko Joskera.** *A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte (4).*
- **Hezkuntza Administrazioako Hiztegia.** *I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide (5).*

3. ZABALKUNDE LANAK

a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- **Idatzizko Ikasmaterialen Bilduma 1994.** B. Basterretxea-
I. Olabarria- M. Zalbide (38).
- **Ikus Entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1994.** P. Mendizabal-
I. Olabarria- M. Zalbide (39).
- **Hezkuntza-Softwarearen Bilduma 1996.** P. Mendizabal -
I. Olabarria- M. Zalbide (41).

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*

- **IRALE. 1995-96ko Aurkezpen Txostena**

c) *Normalizazio legearen garapena (NOLEGA programa)*

- **Euskal Girotze Egonaldietarako Eskuliburua.** Askoren artean (16).
- **Eskola-Antzerkia 1.** I. Artola.- J.M. Berasategi (18).
- **Eskola Antzerkia 2.** I. Artola.- J.M. Berasategi (30).
- **Eskola Antzerkia 3.** I. Artola.- J.M. Berasategi (31).
- **Eskola Antzerkia 4.** I. Artola.- J.M. Berasategi (40).
- **Eskola Antzerkia 5.** I. Artola.- J.M. Berasategi (42).
- **Eskola Hiztun Bila.** B. Basterretxea etab. (28).
- **Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa** (1986tik 1996ra).
- **Goazen Barnetegira** (Bideoa).
- **Euskal Girotze Barnetegiak** (Bideoa).
- **Euskal Girotze Barnetegiak.** Askoren artean (34).
- **Ikastetxeen Errotulazioa.** C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi (37)

d) *Bestelakoak*

- **Euskal Irakaskuntza: 10 Urte.** M. Zalbide etab.. (24).

Oharra: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.



Eskola antzerkia EK22090059

